

ttipi-ttapa



EMAKUMEAK ERDIGUNEAN

Emakumeen Nazioarteko Egunaren bueltan emakumezkoak jarri ditu erdigunean

Ttipi-TtapaK. Zortzi emakumezkoren testigantzak bildu ditu eta pandemiak

eurengan izan duen eraginaz solastatu dira. / 9

Beti Gazte txapeldun

Nafarroan sokatirako txapel guztiak irabazi ondotik Euskal Herriko txapelketari ekin dio. / 51



Aroa Uharte
leitzarrarekin 'Erle langileen amodioak' liburua hizpide / 12



Leire Ortuoste
Gartziak Doneztebeko alkate kargua hartu du / 27

Mimukai zentroa
sortzeko bidea abiatu du Leitzako Udalak / 37

SINADURAK



JOSEBINE
AGIRRE
SOTO / 3



AITOR
AROTZENA
ALBIZU / 3



AITZIBER
ALMANDOZ
LARRALDE / 4



MAIALEN
SOBRINO
LOPEZ / 4



ZOZKETA / 60

**BEREAU
OSTATU JATETXEA**

**BERRIZ ERE
ZABALIK!**



Bereau Hotela

OSTATU - JATETXEA

Menua - Karta - Plater konbinatuak
Kaxulak - Bokatak
Bataioak, ezkontzak, kinto bestak...



Martxoaren 14an, igandean, 18:00etan luntxa, denok gonbidatuta zaudete!

Lesaka - Nafarroa - Tel.: 948 63 75 70 - 650 71 40 30
hotelruralbereau@gmail.com

**BERA
LESAKA**

Agenda
2021

MARTXOA

www.berakoagenda.eus
www.lesaka.eus






**LESAKAKO
UDALA**

<p style="text-align: center; font-size: 24px;">11</p> <p style="text-align: center; font-size: 10px;">ORTZEGUNA</p>	<p>HAURRENTZAKO EKITALDIA ITSASOKO IPUINAK (LUPE LEKUONA)</p> <p>18:00 Liburutegian Adina 5-8 urte</p> <p style="text-align: center; background-color: #0056b3; color: white; padding: 2px;">BERA</p> 	<p style="text-align: center; font-size: 24px;">14</p> <p style="text-align: center; font-size: 10px;">IGANDEA</p>	<p>EKITALDIA ORGANO ETA BIOLONTXELO KONTZERTUA</p> <p>17:30 Lesakako San Martin Parrokia Antolatzailea Lesakako Roques Organoaren Lagunak Elkartea</p> <p style="text-align: center; background-color: #0056b3; color: white; padding: 2px;">LESAKA</p>	<p style="text-align: center; font-size: 24px;">27</p> <p style="text-align: center; font-size: 10px;">LARUNBATA</p>	<p>KONTZERTUA EN TOL SARMIENTO ETS</p> <p>17:00 / 19:30 Harriondoa Kultur Etxea</p>  <p style="text-align: center; background-color: #0056b3; color: white; padding: 2px;">LESAKA</p>		
<p style="text-align: center; font-size: 24px;">13</p> <p style="text-align: center; font-size: 10px;">LARUNBATA</p>	<p>MERKATUA BERTAKO EKOIZLEEN MERKATUA</p> <p>10:00-13:30 Beralandetan</p> <p style="text-align: center; background-color: #0056b3; color: white; padding: 2px;">BERA</p>	<p style="text-align: center; font-size: 24px;">20</p> <p style="text-align: center; font-size: 10px;">LARUNBATA</p>	<p>DANTZA HERRIKO DANTZARIEN EGUNA</p> <p>Antolatzailea Tantarumairu Euskal Folklore Taldea</p> <p style="text-align: center; background-color: #0056b3; color: white; padding: 2px;">LESAKA</p>	<p style="text-align: center; font-size: 24px;">20</p> <p style="text-align: center; font-size: 10px;">LARUNBATA</p>	<p>KONTZERTUA MANIPULAZIO ESTRATEGIAK (PETTI)</p> <p>Petti, Etxeko Uzta, Juantxo Zeberio (pianoa) eta Alejandro Saul (celloa) 18:30 Kultur etxean Sarrera 7 € Iraupena 90 min Argibide gehiago www.petti.eus Antolatzaileak Berako Kultur Batzordea eta Berako Udala Laguntzailea Nafarroako Antzoki Sarea</p> <p style="text-align: center; background-color: #0056b3; color: white; padding: 2px;">BERA</p>	<p style="text-align: center; font-size: 24px;">28</p> <p style="text-align: center; font-size: 10px;">IGANDEA</p>	<p>ANTZERKIA ILUNTZEN (MAIRU ANTZERKI TAILERRA)</p> <p>18:30 Kultur Etxean Sarrera 5 € Antolatzaileak Berako Kultur Batzordea eta Berako Udala</p> <p style="text-align: center; background-color: #0056b3; color: white; padding: 2px;">BERA</p>
<p style="text-align: center; font-size: 24px;">13</p> <p style="text-align: center; font-size: 10px;">LARUNBATA</p>	<p>EKITALDIA LANDARBASOKO DIZDIZKA ABESBATZA</p> <p>18:00 Harriondoa Kultur Etxean Sarrera 3 € Antolatzailea Giltzarri abesbatza</p>  <p style="text-align: center; background-color: #0056b3; color: white; padding: 2px;">LESAKA</p>						



NIRE TXANDA

JOSEBIÑE AGIRRE SOTO

Asmakizuna

Duela 101 urte izen internazionala eman zidaten, unibertzala. Emakumeen bozka eskubidea aldarrikatzeko, eta lan baldintza hobekuntza helburuarekin bataiatu zidaten. Nire inguruan dagoen guztia morez pintatzen da, bai egunak, aurpegiak, kantuak, kaleak, gogoak, baita zerua ere. Nolako festa, halako biharamuna: koloreak bizia galtzen du, estoldetan oihuak eta aldarrikapenak itota nahasten dira, zeruaren negar tanta moreak tristeki erortzen dira. Handik aste batera ahantzia naute, eta azaroaren 25a ailegatu den arte ez zaituzte sobera aipatuko; bien bitartean zuetako baten bat hiltzen ez bada, noski. Denboraren poderioz dibertimendu moderno batean bilakatu naiz, urte osoan zikintzen duen jendearen kontzientzia morez garbitzeko eguna. *Reluciente: efecto asegurado!* Ahantzi duzue, ni zuek bezala mortala izateko jaio naizela baino *immortalizat* hartzen nauzue. Beti ahazten den oroitzapena, ainitzendako bizia gogorra (gogorregia) denaren gogorapena. Egunen batez, desagertuko naiz: emakumeak, eta zergatik ez, pertsona guzikiak libreak izanen diren eguna izatea espero dut.

«NIRE INGURUAN
DAGOEN GUZTIA
MOREZ PINTATZEN
DA...»



EZPALA

AITOR AROTZENA ALBIZU

Eta hi zeinetakoa haiz?

Garai batean harako baserriko edo etxeko semeak izaten ginen, edo halako eta honakoren alabak... Orain, *hi zeinetakoa haiz?* galdetzen digutenean, adinaren arabera, *ni Astrazenekakoa* erantzunen dute batzuk, *Pfizerrekoak* bertzeak, *Modernakoak* edo *Sputnikekoak*... Oraingo zerbaitek eta gazteek segituko dute inongoak ez izaten.

NABARMENTZEKOAK



SAIOA
JAURENA
ERRUGBILARIA



LEIRE
ORTUOSTE
DONEZTEBEKO ALKATEA

Bosgarren urtez Europako txapeldun izan da Espainiako errugbi selekzioa eta, aurten ere, Saioa Jaurena Atxa, Leitzan bizi den elizondoarrak jokatu du taldean.

Zubietako alkate izan zen 2005etik 2008ra, eta orain, berriz, Xanti Utergaren lekukoa hartuz, Doneztebeko alkate kargua hartu du. Berak izanen du ondoko bi urteetan Doneztebeko aginte-makila.

ATZERA BEGIRA



2011-03-03 · TTIPI-TTAPA · 537 zk.

Zuhaitzak moarratzearen garrantzia hizpide

Moarratzea, kimatzea, kapetatzea... Duela hamar urte zuhaitz zaharren moarratzaileen lehen nazioarteko jardunaldiak Leitzan egin zituzten eta horren harira, erreportajea egin zuen TTIPI-TTAPAK. Italia, Frantzia, Erresuma Batua edo Kataluniatik etorritako 30 bat lagun bildu ziren eta zuhaitzak moarratzeko hainbat teknika landu zituzten. Miel Mari Elozegi basozainak 2005etik 2011ra Leitzan eta Areson 80 bat zuhaitz moarratu zituztela kontatu zuen eta Juan Mari Barriola orduko Leitzako mendi zinegotziak «zuhaitza hil gabe, gure arbasoek egurraren produktibitatea bilatzen zutela» azpimarratu nahi izan zuen. Argazkian Patxi Astibia, Migel Elozegi eta Migel Barriola ageri dira, 2007an egindako moarratze egun batean.



Argitaratzailea
Ttipi-Ttapa Fundazioa
Koskontako bidea, 7 - 1.
31770 LESAKA
T. (+34) 948 63 54 58
F. (+34) 948 63 54 57
WhatsApp 744 48 43 61
info@ttipi.eus

Zuzendaria
Aitor Arotzena
Erredakzioa
Gurutze Pikabea, Nerea Bazterrika,
Izaskun Rekarte, Eneritz Iraola
Publizitatea
Amaia Odriozola
Arantza Agirre
Usoa Vicente
Berriemakileak
Arkaitz Mindegia, Marifa Irazoki,
Koro Irazoki, Nerea Altzuri,
Arantxa eta Iraia, Irune Elizagoien,

Maidar Petirena, Oihana Kalparsoro, Fermin Ebekolonea, Aintzane Leiza, Pablo Irastortza, Maite, Ana eta Itziar, Juan Mari Barriola, Marga Erdozain, Maitane Maritorea, Arantxa Iturralde, Arantxa Gamio, Jaione Ariztegi, Jaione Zabalo, Nerea Mortalena, Virginia Oteiza, Pierre Bastres, Ainhoa Astiz, Ganex E., Xabier Maritorea, Maialen Iantzi, Jaione Mindegia, Olatz Mutuberria.

Fundazioaren Presidentea
Pello Apeztebea
Kudeatzailea
Joxemanuel Irigoien
Administrazioa
Amaia Goia
Lege Gordailua
NA-1324/85
ISSN
1578-4673
Tirada
6.000 ale

Erakunde laguntzaileak
Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senperoko udalak, Malerrekako Zerbitzuen Mankom., Zugarramurdioko Akelarre elkarte
2021eko harpidetza sariak
Baztan, Urdazubi 40€
eta Malerrekako 30€
Leitza 30€
Hego Euskal Herria 48€
Ipar Euskal Herria, Europa 94€
Amerika eta Australia 140€





KOLABORAZIOAK

AITZIBER ALMANDOZ LARRALDE

Jostetan ari gaitzen haurrak bagina bezala!

Gure zentzuen bidez jasotzen dugun estimulazioaren eta honen aitzinean dugun erantzunaren arabera garapen kognitibo, sozial eta motorikoaren jabe gara. Haurraren bereizgarria den ezaugarrietako bat litzateke erregulazio sentsoriala. Inguruak berezko egokitze prozesu hau garatzen lagun dezake eta bizipen sentsorialak areagotuz, inguruarekin nahiz bertzeekin dituzten hartu-emanekin gozatzera bultzatu. Gizaki guztiok inguruko estimulazioaren arabera erantzunak ditugu. Hau kontuan izanik, haur bakoitzak bere prozesu biologiko-neurologiko bereizgarriak ditu, bere joeraren arabera zaintzen duenak badaki zer nolako bizipenak eskaini behar dizkion tikiari. Elkarreragina eta jostetaren bitartez, helduok haurrari munduaren itzulpen bat eskaintzen diogu bere gaitasun guztien potentziala lor dezan lagunduz, atxikimendua eta hartu-emanak indartuko ditu. Horrela, gure burmuinaren garapenean, integrazio sentsorialaren bitartez mapak eraikitzen goaz, mundutik jasotzen dugunaren arabera. Ingurutik jasotzen duguna, zentzumenen bitartez aztertu, antolatu eta interpretatzen dugu eta horri eskerrak gure eguneroko jarduerak egiteko gauza gara. Gerora, ikaskuntza, kontzentrazio, pentsamendu eta arazoibidea garatzeko oinarri izanen dira mapa hauek.

«ERA BIRTUALAK EZ DEZALA EBATSI GAREN GUZTIA GARATZEKO AUKERA»

handiagoa dugu eta egun paper usaina duten liburuak leitu eta arretaz barneratzeko zailtasun larriak sortzen ari zaizkigu.

Ezin dugu ukatu burmuina garatzen ari den garaian kontsumoek duten eragina. Ukaezina da pantailen erabilerak kontsumo adikzioa sortzen duela. Egundua koefiziente intelektual txikiagoko belaunaldiak ditugula diote ikerketek. Irudikatze gaitasuna, kuriositatea edota aspertzeko gaitasuna gero eta hutsalagoak dira guran. Bizipen birtualak ez omen dute errealitatean bizitutakoa adinako oroimen arrastorik sortzen. Pantailen gure begi-belarriak hiperestimulatzen dituzten bitartean, gure ukimen, dastamen eta oreka gaitasunak deusezean uzten dizkigu. Aspertzen garenean sortzen da kuriositatea. Kuriositateari esker, bilatzen ditugu aukerak, gure barrenak behar dituen premiak asetzeko bideak eraikitzen ditugu. Aspertzen garenean soilik sortzen dugu, eta sortzearen plazerak aspertzeko dakar.

Josteta, berriz, irudimena garatzeko bidea da, jostetan ari garenean, plazeraren bideak gure burmuinean zuzenean egiten ditu konexioak, zuzenean ikasten dugu, zuzenean barneratzen. Gure ingurukoekin harremanak ditugunean, jostetan ari garenean, fisikoki ukitzean, orekatzen ditugun sentsoreak eraikitzen dute gure munduaren mapak, irudimena elikatuz. *Azken-juka, pot-bilka, kukuka, pittka, karnikulka*, jostetan ari gaitzen elkarrekin, senti dezagun bizirik gaudela. Era birtualak ez dezala ebatsi garen guztia garatzeko dugun aukera!

Egungo bizipenak, ordea, harremanetan, hurbiltasunean eta elkarren beharrei behatu beharrean bertze arauen baitan eraikitzen ari gara. Pantailen munduan murgildu gara eta gaituzte. Kontsumo eta adikzio maila gero eta



MAIALEN SOBRINO LOPEZ

Nolako gizartea nahi dugu?

Joan den otsailaren 26an UEUk antolatu zuen *Komunitateak eta bizi eredu berriak ehunduz* jardunaldia eta hiru gairen inguruko Euskal Herriko esperientzia zehatzak plazaratu ziren: zaintzak, sozioekologia eta autogestioa. Denak ezin laburtu, baina gustatuko litzaidake aipu batzuk ekartzea.

Zaintzen mahai-inguruan Trabadoras no domesticadas-eko kideak, Batera zaintza taldea eta Artea Herriko Bentako ordezkariak aritu ziren esperientzia trukean. Azken honetako kide den Olatz Talaveraren hitzetan Arteko esperientziak bi lanketa egiten ditu: «Errefuxiatuen harreraren zergatia salatzen dugu etengabe eta, aldi berean, herria antolatzen aritzen gara harrera beharrezkoa den bitartean erantzuteko gai izan gaitzen». Salatu eta herria antolatu, egunerokoan biak uztartzearen garrantzia nabarmentzeko iruditzen zait, bertze hainbat gizarte ekimenerako baliagarri.

Bere aldetik, Larreko mahaiko Lorea Floresek profiletan jarri zuen fokua, bertzeak bertze, honakoa erranez: «ekologiaren bueltan bi profil ditugu: ohiko militanteak, 50 urtez goitiko gizon zuri, buruzuri eta euskaldunak batetik; bertzetik, Fridays For Futureren gisakoetatik etorritako 30 urtez azpiko emakume ez beti zuri eta ez beti euskaldunak. Horrek hizkuntza talka ekarri zuen. (...) Egundua neskak ez daude talde

«ZERTAN GARA ABERATS(AGO) EDO POBRE(AGO) AZKEN URTEAN?»

motorrean». Nire ustez, militantzia eredu berrietan auzi garrantzitsua dugu jokoan oraintxe Euskal Herriko gizarteko alor anitzetan eta, ondorioen bistan, erantzunarekin asmatzeko formulak pentsatzeari energia gehiago eskaini beharko diogula uste dut. Halaber, Floresek hau aipatu zuen aitzinera begira: «erronka da larrialdi ekologikoari buruz aritzeko Euskal Herriko artikulazio gune bat sortzea. Nolako Euskal Herria nahi dugun elkarrekin hausnartu eta alternatibak kolektiboki proposatzeko». Gure eguneroko ekintzen ondorio edo inpaktua neurtu eta nolako herri, auzo edo komunitate nahi dugun elkarrekin pentsatzeko hau baino momentu hoberik nekez izanen dugu.

Azkenik, Zaldibar Argitu plataformatik Jokin Bergarak nerbio antropologikoari egin zion erreferentzia bere hitzaldiaren bukaeran eta identitatea kontsumoan eraikitzen duen gizarte batean autokontentzioa praktikatzaren alde egin zuen neurritz kanpoko kontsumoa geldiarazteko eskura dugun baliabide gisa eta aberastasun immateriala hauspotzera gonbidatu gintuen. Horretarako ere bada tenorea: zertan gara aberats(ago) edo pobre(ago) azken urtean?

11 GALDERA LABUR

GARAZI ZABALETA SASTRAKAK TALDEKO KIDEA

«Alor guztietan bultzatu beharko litzateke formakuntza feminista»

Nola aurkeztuko zenuke zeure burua?

Egoten ez dakien 31 urteko leitzarra.

Zein zaletasun dituzu?

Musikazalea naiz, kontzertuetara joatea gustatzen zait, batez ere, zutik eta dantzan ikustekoak zirenean.

Noiz sortu zen Sastrakak taldea?

2009an jaio zen ofizialki, baina oinarria urtebete lehenago herriko emakume asanbladatik abiatutako lanketa du.

Zein dira taldearen helburuak?

Laburbilduz, esanen nuke, jendarte justu, parekide eta gozagarrigo baten alde ari garela lanean. Mugimendu feministaren ekarpen eta aldarriak gurera ekarriz eta, aldi berean, hari landa eremuko ikuspegitik ekarpenak eginez.

M8a berezia izan da...

Aurtengoan, pozik egoteko beste arrazoi bat dugu: Leitzan sortu berri den talde feministaren debuta izan da!

Otsailean asanblada irekia egin zenuten. Zer adostu zen?

M8aren bueltako egitaraua osatu genuen: irakurketa feministen saioa, irratsaio eta poteo feminista... Martxoaren 4tik 13ra bitartean, egitarau polita osatu dugu azkenean!

2015ean lehen aldiz dantzatu zuten emakumeek ezpata-dantza?

Pozgarria izan zen emakumeak ere plazan ikustea. Hala ere, oraindik asko dago egiteko: ingurutzoko genero rolak transgreditu, adibidez. Gauza asko berrasma genitzake.

Udala formakuntza feministarekin hasi da...



Beharrezkoa da, erabat. Alor eta esparru guztietan bultzatu behar litzateke formakuntza feminista, eta instituzioek eredu izan behar dute horretan.

Leitza herri feminista dela esan daiteke?

Ez dut uste herri feministarik inon existitzen denik. Ikasteko eta desikasteko gauza gehiegi ditugu oraindik. Baina tira, horretarako ari gara lanean...

Aurrera begira zein da Sastrakak asmoa?

Gauza bat argi dugu: lanean jarraituko dugula, bestelako jendarte eta harreman ereduak beharrezkoak ditugula inoiz baino argiago baitugu.

Zein da Covid-19aren ondorenerako zuen ametsa?

Covid-19aren aurreko bizitza 2020ko martxoaren 8ko parranda ederrarekin agurtu bagenuen, Covid-19aren ondoko aroari ere modu berean eman diezaiozula hasiera: dantzan iraultzan, umorez eta energia feministaz inguratuta!



Merkealdia

1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea

Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634

Albornozak
Mantelak
Kuxinak
Edredoi nordikoak
Ohe estalkiak
Maindireak toailak
Edredoi-azal nordikoak

IRAKURLEAK MINTZO

Intsumisoei esker onez

JUANJO IRAZOKI

Bai, zuei esker, gure semeek ez dute soldaduska madarikatua egin behar izan. Zuen mobilizazio, epaiketa, espetxeratzei esker, garaipen handia lortu zen, baina ez da behar bezala aitortu. «Lortu zena ez zen (ez da) behar bezala ospatu». ТТИПІ ТТАПАРЕН 775. zenbakian ageri zen bezala.

Soldaduskan militar sistema gorrotatzea ikasten duzu bakarrik.

Bada bai, intsumiso mugimendu hartatik zer ikasi.

Mila esker.

N-121-A (2+1) Txertoa edo plazeboa

JUANKAR UNANUA (IGANTZI), AITOR ELEXPU-RU (BERA), DABID ITURRIA (ARANTZA), LADIS SATRUSTEGI (LESAKA), MIGEL MARI IRIGOIEN (ETXALAR), ANE OTXANDORENA (ELGORRIAGA), LEIRE ORTUOSTE (DONEZTEBE), NATALIA REKARTE (DONAMARIA), ERNESTO DOMINGUEZ (ZUBIETA), FRANCISCO JAVIER BEREAU (ITUREN), UGUTZ ZELAIETA (OIZ), ANDRES ETXENIKE (BERTIZARANA), JON TELLETXEA (BEINTZA-LABAIEN), EVARISTO MENTABERRI (ZUGARRAMURDI), IÑAKI ARIZTIA (URDAZUBI), MARTIN PIKABEA (ULTZAMA), EDURNE BARBERENA (ARRAITZ-ORKIN), ISABEL BALEZ-TENA (LANTZ), MIGUEL ANGEL LARRAIOZ (ANUE), ALBERTO URDANIZ (ODIETA), MARIKARMEN LIZOAIN (OLAIBAR), PEDRO LEZAUN (EZKABARTE), ALFREDO ARRUIZ (UHARTE).

Ez, ez dugu birus bati buruz hitz egiten, baina zerbait ona badu sartuta gabilztan saltsak (uler bedi zoritxarra arintzeko modu gisa), hori da, denok zaku berean gaudela. Aberatsak, pobreak, katalan independentistak, katalan konstituzionalistak, bortz axola zaizkien katalanak, txisteetako ingelesak, frantsesak eta alemanak, indarrean dauden txorizoak, txorizo emerituak, langileen familiak, Pedro Sanchezek eta Donald Trumpek. Denok modan dagoen azkeneko maskararekin...

Bai, badakigu, hemen ere mailak daude, mundu guztiak ez du intentsitate berarekin pairatzen eta ez ditu

ondorio berberak jasaten (hemendik gure aitortpena benetan gaizki pasatzen ari direnentzat), baina azken batean, guztioi, erabat guztioi, ziurgabetasun berak besarkatzen digu, eta murrizketa berberak jasaten ditugu, gure askatasuna murrizten dutenak, indibidualki zein kolektiboki. Eta gauza jakina da, aunitzen gaitza... Baina hau guztia gertatzen den bitartean eta guztiok bahituta mantentzen gaituen bitartean, bizitzak aitzinera segitzen du, eta gezurra badirudi ere, oinezkoen arruntak bertze kezka batzuk ditu.

Kezka horrek ez dio kolektibo horri kontsolamendua ematen, egunero egoera pairatzen duen nafarren zati bati bakarrik eragiten baitio. Kezka hori N-121-A eztabaidatuaren egoera da, Nafarroako Gobernuak guztiei atsegin arazteko ahaleginak egin dituen arren, ez baitu inor gogobetetzen.

Azken hilabeteetan isilik egon gara. Egoera ikusita, argi geneukan lehen-tasunak bertze batzuk zirela. Hala ere zain, harrituta, eta baita pixka bat txundituta ere, gobernuak errepidearen inguruan egindako mugimendu guztiak segitu ditugu. Ez dakigu nola interpretatu duen iritzi publikoak gure isiltasuna, jakina, entzun eta isil baiezko borobil, eta agian pentsatu ahal izan dute foru-agintariekin izan dugun komunikazioa arina eta iraunkorra izan dela. Baina errealitatetik urrun.

2020ko otsailaren 28an, 1.500 nafar baino gehiagok manifestazioa egin genuen Beran, errepidean barrena, eta, horregatik, gure ustez, justifikaziorik gabeko egoera lotsagarria da; urtea joan urtea etorri, pandemikoa izan ala ez, foru administrazioaren ulermen zantzurik txikiena ere sumatu gabe pairatzen duguna. Aste pare bat geroago Uharten gauza bera egiteko asmoa genuen, urteak baitaramatza konponbideak eskatzen, eta administrazioaren zabarkeriaren bertze adibide bat da. Gaur egungo administrazioarena eta aitzineko guztiena, elkar ezagutzen baitugu, eta baten bat harrotzen hasia da...

Erdi mailako gizarte garatu batean,

pentsaezina litzateke Itaroa bezalako leku batean, hogeita batgarren mendean, egunero tona anitzetako milaka kamioik zirkulatzen segitzea, soilik agintea duenak ez duelako eduki behar dena, nazioarteko trafikoko hori guztia horretarako prestatutako bide alternatiboetatik desbideratzeko. Frantzian ez litzateke gertatuko. Frantzian, bertze aukera bat badute, denak zintzo doaz joan behar duten lekutik. Eskumena Sustapen Ministerioarena dela diote. Baina ez al dira zuhaitz bereko zura? Zer moduz dei bat? (Houston, arazo bat dugu). Erabakia politikoa da, ez adarrik jo. Erran gabe doa Uhartetik ez dela N-121-A errepidea pasatzen, bere merkataritza-gunetik doazen kamioi gehienak bertara doazela bezalaxe.

Erran bezala, gure asmoa protestekin segitzea zen, eta Beran 1.500 joan bagenin, Uharten aunitzez gehiago izatea espero genuen, Iruñetik gertu geundelako. Badakigulako oinezko jendea, beraiek bai, gehienak gure alde daudela. Zentzuzkoa delako eta ulertezina delako hainbertze urteren ondotik hildakoak zenbatzen segitzea (bost iaz, nahiz eta hiru hilabete konfinatuta egon), eta gobernuari marra jarraituak margotzea baino ez zaio bururatzen. Bikoitzak, hori bai.

Deialdia eginda eta baimenduta zegoen, baina Covid-a ailegatu zen, eta garai hartan gertatutakoaren neurria imajinatu ezin genuen arren, leialtasun-eta erantzukizun-ekintza batean, hura gibelatzea erabaki genuen. N-121-A errepidearen arazoa konpondu gabe dago oraindik, aurkezpen zatatsua izan arren, 2+1 izugarriaren aurkezpena, «Nazioartean emaitza bikainekin testatuta», maskara ongi paratuta daraman inork ez aditu arren. Errepide tamalgarri horren trafikoari (erresumako hiriburura sartzeko bide nagusia Nafarroako 30 udalerrri baino gehiagorentzat) ez zaio batere axola txertoa izan edo ez izatea. Eta guri, bide horrek kamioiz gainezka segitzen duen bitartean, 2+1a plazebo hutsa irudituko zaigu; izan ere, 2+1ek hiru batuko ditu, eta hiru soilik

IRAKURLEAK MINTZO

Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. ТТИПІ-ТТАПАК eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.



Koskontako bidea, 7 - 1, 31770 LESAKA

info@ttipi.eus



948 63 54 58

batzuetan izanen dira. Nahi eta ezin bat izanen da, bai baina ez, inor pozik uzten ez duen irtenbide bat, konparazioko bidegabekeria lotsagarri bat, guk, gainerako milaka nafarrek bezala, urteak baitaramatzagu (eta geratzen zaizkigunak kudeaketa negargarri bati esker) itzalean bidesariak ordaintzen bertze azpiegitura batzuegatik; azpiegitura horiek guretzat ere ez ditugu eskatzen, baina, gutxienez, gure aldarrikapenei erantzuteko balio beharko lukete.

Inguruko hogeita hamar bat alkatek, historikoki hagitz ezohikoa izan den arren, dokumentu bat sinatu genuen, inguruan ez jatorririk ez helmugarik zuen nazioarteko trafikoa, Leitzarango autobiatik desbideratzeko eskatuz. Parlamentuak berak eskatu zion gobernuari azter zezala talde parlamentario guztien babesarekin, Navarra Suma izan ezik, abstenitu egin baitzen. Eta gobernuak, euria entzuten duenak bezala. Baina ez hori bakarrik, gaur egun dugun alarma-egoera aprobetxatu dute, alderdi aunitzetan esku hartu baitigu, izapide guztiak bizkortzeko, 2+1 modu traketsan eraikitzen hasteko eta propaganda guztia martxan paratzeko. Neurri mirakulutsuen nahasketa bat iragarri zuen: kontrol gehiago, radarrak, marra jarraituak, bidesariak, biribilguneak, tunelen bikoizketa. Azken hori bereziki odoltsua izanen da; izan ere, milioi aunitzetako gastua eraginen du (ez dago dirurik), baina gure eskariari kasu eginez gero, ez litzateke beharrezkoa izanen; izan ere, kamioien joan-etorri gehiegizkoa da horiek segurtasunagatik banatzera behartzen dituenak. Hori dela eta, Europar Batasunak hainbertze kezkatzen duen zigoren mehatxua egin dio lurralde kohesioko kontseilariari, publikoki onartzeraino. Ciriza jauna, errespetu guztiz: Leitzarango tunelak bikoiztuta daude. Denak.

Eta horretan segitzen dugu, gure gobernuak, nafar guztienak, bere propaganda-makineria aktibatzen duen bitartean eta beraiantzat irtenbidea dela

erakusten duten bitartean, guk, milaka nafar xumek, egunero gurutzatzen segitzen dugu hamarnaka kamioiren palmo bateko distantziara, deskuidatzeko tarterik uzten ez dutenak. Bidea hobetzearen kontra ez gaude inola ere, zor historikoa dela uste dugu. Baina inork ez dezala zalantzan paratu gure errepideko trafiko astuna nabarmen murriztu behar dugula. Erran digutenez, hartu beharreko neurriek kamioi-lariei N-121-A erabiltzea galaraziko dietela espero dute: jaun-andreok, horiek galarazteko arrazoirik baldin bada, desbideratzeko arrazoirik ere bada.

Esker mila sua itzaltzen lagundu zenigutenei

PONTXIANO ARIZKUNGO ETXENIKEA BASERRIKO FAMILIAREN IZENEAN

Etxenikea baserriko familiak otsaileko hirugarren asteburuan gure baserri inguruan izandako sutea itzaltzen lagundu zenuten guztiei eskerrak eman nahi dizkizuegu. Zuengatik gure bizimodua mantentzeko, baserria, borda eta gure bazterrak.

Esker mila denei.

BOTA BERTSOA


**JULENE
ETXEBERRI
PACHECO**
SARAKO
BERTSOLARIA



Askatasunaren bila

*Martxoan hasiz geroztik
Gu etxeetan sarturik
Zenbat segundo, minutu
ez ditugu kontaturik
Ohartzen gara halere
luzaz ongi pentsaturik
Batzuk badira urteak
hola direla bizirik
Ganbaran mila itzuli
segur dituzte eginik
Horrezgain orain ez dute
ere gure bisitarik
Baina askatasun ametsa
ez dute oino galdurik.*

*Egoera hola ikusiz
gu denak gara penetan
Eta burua behititzen
usatuak gehienetan
Baina lagun, senideek
horiek diren tokietan
Nahiko lukete guk hola
segitzea ekintzetan
Ekainean egin bezala
bilduz mendi tontorretan
Edota Eguberritan
gure herriko plazetan
Horien esperantz izpia
baita gure eskuetan.*



Zaindu maite duzun hori...

Nola erran?

* Izartxoak dutenak eta arrosez daudenak gaizki daude.

Ahoskerari lotutako kontuak bildu ditugu aldi honetan Euskararen Txokoko atal honetan. Ez partikulak eragindako hots-uztartzeak kontuan hartu behar direla dio Euskaltzaindiak. Batzuetan arauz:

IDAZKERA	AHOSKERA	
	ZUZENA	OKERRA
Ez daki	Eztaki	*Ezdaki
Ez zait	Etzait	*Ez zait
Ez zuen	Etzuen	*Ez zuen
Ez zara	Etzara	*Ez zara

Eta bertze batzuetan hobespenez:

IDAZKERA	AHOSKERA
Ez balitz	ezpalitz
Ez gatoz	ezkatoz
Ez nuke	Enuke/eznuke (biak zuzenak)
Ez luke	Eluke/ezluke (biak zuzenak)

Bitxikeriak

Nola osatuko zenituzke bikoteak?

Ortozik	Itogin
Masail	Ugari
Erauntzi	Oinutsik
Erauntsi	Erantzi
Ausarki	Zaparrada
Itaxur	Matela

KALKO USTELAK

***'Bilera ospatu'** ala **'bilera egin'?**

**Bilera ospatu* eta kideko esapideen lekuan, *bilera egin* eta kidekoak erabiltzea gomendatzen du Euskaltzaindiak.

-**bilera ospatu* >

bilera egin.

-**zozketa ospatu* >

zozketa egin

-**partida ospatu* >

partida jokatu.

Ospatu aditzarekin ondoen egokitzen direnak bestak, garaipenak eta ospakizunak dira. Hona hemen adibide batzuk:

-Gabon gaua ospatzeko, aitaren eta amaren ondoan...

-Norbaiten mendeurrena ospatu.

Bilerak, txapelketak, lehiaketak, jardunaldi eta topaketak direnean hizpide (zer erranik ez hiletak), *izan, egin, jokatu, batu, bildu, elkartu, gogoratu...* dira egokiak. Meza baldin bada, *eman/esan.*

-Partida Mastegin jokatu dute.

Eta zuk zer diozu?

Bidali zure zalantzak, proposamenak, azalpenak... Animatu eta parte hartu!



info@ttipi.eus



744 48 43 61



Leitzan martxoaren 8arekin egindako manifestazio batean ateratako irudia.

Emakumeak pandemiaren erdian

Emakumeen Nazioarteko Egunaren bueltan eta pandemia hasi zenetik agudo urtebete beteko denean, eskualdeko zortzi emakumezkoren testigantzak bildu ditu ТТИPI-ТТАРАК, pandemiak eurengan nola eragin duen jakiteko

G. PIKABEA

«Arlo guztietan pandemiaren ondorioak are larriagoak izaten ari dira emakumezkoengan». Halaxe dio Nafarroako Berdintasunerako Institutuak. Eta Euskal Herriko Mugimendu Feministaren hitzetan, «lehertu dena, ez da osasun

krisia soilik. Covid-19ak eragindako izurrite testuinguruak, sistema honen hainbat dimentsiotako krisiak azaleratu ditu».

Hari horri tiraka, Emakumeen Nazioarteko Egunaren bueltan eta pandemia egoera hasi zela agudo urtebete beteko den honetan, pandemiak

emakumezkoengan izan duen eragina bildu nahi izan du ТТИPI-ТТАРАК. Leire Barrenetxe Sanchez (Azpilkueta), Miren Terexe Uitz Salaberria (Goizueta), Zuriñe Erkizia Conde (Lesaka), Itziar Mielgo Rey (Beintza-Labaien), Ruth Ortez Herrera (Elizondo), Reyes Goñi

Mutuberria (Ezkurra), Ohiana Kalparsoro Forkada (Arano) eta Ainhoa Iguñiz Santiago (Bera) dira aldi honetako protagonistak. Zortzi emakumezko, bakoitzaren egoera bat edo berteza izan, era batera edo bertzera, pandemiaren eragina sumatu duten zortzi lagun.

Bat datoz pandemiak emakumezkoengan eragin handiagoa izan duela erraterakoan eta berdintasuna lortzeko bidean gibelera egin dela aipatu duenik ere izan da. Horren adibide, zaintza lana feminizatua izatea, etxeko langileen lan ikusezina, emakume aunitzek lana galdu izana edota genero indarkeria kasuen gorakada aipatu dituzte. →



Leire Barrenetxe Sanchez erizaina da Elizondoko zahar etxean.

«Luze egiten ari zaigu eta nekea sumatzen dugu»

Elizondoko zahar etxeko erizaina da Leire Barrenetxe (Azpilkue-
ta, 1997), eta pandemiarekin «lana handitu eta konplikatu» zaie.
Beretako «hasmenta izan zen zailena» eta «kolpe handia» izan
zen: «Egoerak zahar etxea berrantolatzea eskatzen zuen eta ez
zegoen denborarik. Heriotzak hasi zirenean aunitz zaildu zen,
kulpa eta inpotentzia sentitu genituen, eta estres handia». Egun,
«birusarekin nahiko lasai» dabilta, baina «luze» egiten ari zaio,
eta «nekea» sumatzen du. Egoitza kudeatzen duen enpresaren
gestioaren harira, «arazoak pandemiaren aitzinekoak» direla dio
baina «pandemiarekin gabeziak agerian gelditu dira». Osasun
langile «gehienak emakumezkoak» direla eta «historikoki zaintza
emakumeen lana» izan dela ere oroitarazi du, baina «pandemia-
rekin gizonetako eta emakumezko aunitz kaltetu direla» argi du.



Miren Terexe Uitz Salaberria «arrisku handikoen taldean» dago.

«Pandemiak bereziki emakumeoi eragin digu»

«Arrisku handikoen taldean» dago Miren Terexe Uitz (Goizueta,
1967), «diabetikoa eta transplantatua» baita. Gainera, «91 urte-
ko amarekin bizi naiz». Pandemiaren eragina «ederki» sumatu
du, «osasun azterketak aurrez aurre egitetik telefonoz egitera»
pasatu delako, eta «herritik ezin atera gelditu» delako. «Beldur
handia» sentitzen du: «oraingoz ongi nago, baina badakit koro-
nabirusa harrapatuz gero, Gerbaxioren baratzera noala». Amak
ere kezkatzen du: «niregatik kutsatuko balitz, kontzientziako
harrak ez lidake bizitzen utziko». «Arriskua» baduela ikusita,
«neurriak hartzen» ditu, baina kexu da «batzuek errespetatzen
ez dituztelako. Ez kutsatzeko, nik etxean gelditu behar dut?». Etxetik kanpo, sinetsita dago «pandemiak bereziki emakumeoi eragin digu» diela: «berdintasuna lortzeko bidean atzera egin dugu».



Zuriñe Erkizia Conde lesakarra Gasteizen ari da ikasten.

«Gazteoi sozializatzeko askatasuna kendu digute»

Pandemiak Haur Hezkuntzako graduako lehenbiziko urtean
harrapatu du Zuriñe Erkizia (Lesaka, 2002) eta «egoera berezira»
egokitu behar izan du: «Aste bat unibertsitatean presentzialki
eta hurrengo etxetik online egiten dugu». «Nahiko ongi mol-
datzen» diren arren, «ikasketako hagitz modu zaila» iruditzen zaio,
baita «hezkuntza sistema ez dagoela prestatua eta ez dela
eraginkorra» ere. Ikasketetatik kanpo ere «bizimodua aldatu»
zaio: «kanpora atera eta erabat lasai gauzak egin ezin izatea
nekegarria da. 19 urterekin sozializatzea oinarritzkoa da eta
askatasun hori kendu digute». Ez du genero desberdintasunik
nabaritu: «ikasketetan denok neurri berdinak izan ditugu». Kanpoan, ordea, «konfinamendu hasieratik genero indarkeriak gora egin du. Emakume batzuei okerrago eragin die pandemiak».



Itziar Mielgo Rey artisaua da eta artisau denda batean egiten du lan.

«Sistema patriarkalean bizi gara eta aldaketak beharrezkoak dira»

«Eragin handia» izan du pandemiak Itziar Mielgorengan (Beintza-
Labaian, 1976). Artisau denda «ekain erdira arte ezin izan nuen
ireki» eta irekita ere, «bezeroen gehiengoa turistak direnez,
pentsa! Ez dago mugimendurik!». «Gastuak antzekoak dira
baina ez dago sarrerarik». Halere, «egoera latzetan alde positi-
boa beti ateratzen da» eta, pandemiak «baseriko bizitzaz berriz
gozatzeko» bide eman omen dio. Bere hitzetan, pandemiak
gizonezkoiei eta emakumezkoiei ez die berdin eragin. «Pandemia
aurretik emakumeon lan-egoera ez zen justua, eta pandemiare-
kin larritu egin da». Berdintasuna aldarrikatu du. «Sistema pa-
triarkalean bizi gara baina sistema ez da beti errudun bakarra.
Gizartean aldaketak behar dira, mentalitatea aldatu behar dugu».
Pandemian «elkartasuna premiazkoa» dela ere gaineratu du.



Ruth Ortez Herrera sortzez nikaraguarra da eta Elizondon bizi da.

«Berdintasuna lortzeko oraindik bide luzea egin behar dugu»


Azken urtea «gogorra» izan da Ruth Ortezendako (Elizondo, 1983), bertzeak bertze, pandemiarekin lanik gabe gelditu dela eta hala, «bizibidea ateratzeko behar genuena gabe». «Lanik ez izatearen kezka eta kutsatzeko beldurra» sentitu ditu eta ondorioz, «antsietatea, estresa...». Bere ustez, «pandemiak gizonezkoak baino gehiago zigortu gaitu», hala nola, «zaintza lanetan lehen erroan aritzen garen gehienak emakumezkoak garelako». Eta emakumezko etorkinen egoera «okerragoa» iruditzen zaio: «lehen lan aukera guti genituen, eta pandemia-rekin, are gutiago». Gainera, kezka bikoitza dela dio, «sorterrian dugun familiaren egoerak ere kezkatzen baikaitu». Berdintasuna lortzeko «bide luzea» egin behar dela uste du, «arlo guztietan genero desberdintasun eta matxismo handia» ikusten dituelako.



Reyes Goñi Mutuberria sortzez labaiendarra da baina Ezkurrán bizi da.

«Garrantzitsuena pertsonaren balioa da, ez emakumea edo gizona den»

Reyes Goñik (Beintza-Labaien, 1962) «asko» nabaritu du pandemiaren eragina, senarrarekin batera duen jatetxeko eta hostaleko martxa ezohikoa izaten ari baita pandemia hasi zenetik. «Kolpe handia» hartu dutela dio: «Egunerokoa jende artean egotera ohituak gaude eta itxita edukitzea oso tristea da». «Ilusio falta eta pena» sentitu ditu, «giltzaperatuak bageunde bezala». Hori bai, pandemiak «senarrari eta bioi berdin eragin» diela aipatu digu: «Betitik senarra eta biok aritu izan gara eta lan berdina egiten dugu». Halere, jakitun da ez dela beti horrela: «Nik nire lanean ez dut arazorik izan baina askotan ez gaude behar bezala baloratuak eta dena ez da indarra. Bizitza honetan gauza asko daude eta garrantzitsuena pertsonaren balioa da, berdin dio emakumezkoa edo gizonezkoa den».



Ohiana Kalparsoro Forkadak lanean eragina sumatu du.

«Pandemiak zaintza lana ageriago uzteko balio izan du»

Lanean sumatu ditu pandemiaren ondorioak Ohiana Kalparsorok (Arano, 1990). Itxialdian, «lan dezente» izan omen zuten: «Aldaketa garaiak ziren, jendeak online formatura egokitu behar izan zuen eta lan asko izan genuen». Gerora, «dena egonkortu zenean, lana jaitsi zitzaigun» eta «azarotik otsailera kezkatuak» ibili zirela onartu digu. Lanetik aparte «nahiko antzeko» ikusten du bere egunerokoa: «Asteburuetako aisialdia asko aldatu da eta Gipuzkoako muga itxita izatea oso presente izan dugu. Baina egunerokoa, lanetik etxera eta etxetik lanera, ez zait askorik aldatu». Pandemiak «emakumezkoei gehiago eragin» diela uste du, «zaintza lanetan batez ere emakumezkoak aritzen garelako». Horrez gain, «pandemiak umeen eta adinekoen zaintza lana ageriagoan uzteko balio izan duela» iruditzen zaio.



Ainhoa Iguñiz Santiago, irundarra da sortzez baina Beran bizi da.

«Pandemiak genero desberdintasunak areagotu ditu»

«Escolak itxita» hartu zuen lehen kolpea Ainhoa Iguñizek (Bera, 1977). Banandua eta hiru haurren ama da eta escolak itxita, egoerara egokitzea «hagitz zaila» izan omen zen: «Heretik kanpo lanean segitu behar nuen, haurrak etxean escolako lanak egiten... Eromena izan zen». Udan ere sumatu zituen ondorioak, baita ikasturte hasieran ere. «Gehiegizko beldurraren erabilera» ere salatu du: «dena beldurra da, berdin du nori edo zeri, berezi gabeko beldurra». Baina zaintza dela eta, «zama handiagoa eta aurreikusitako beharrek kontu gehiago» sentitzen ditu eta «hori gogorra da». «Pandemiaren ondorioak emakumezkoontzat okerragoak izan direla» dio, «batez ere, zaintzaz emakumezkoak arduratzen garelako. Edozein krisik genero desberdintasunak areagotu egiten ditu eta pandemiak hori egin du».

«Orain berritzailetzat ditugun hainbat ideia ez dira hain berriak»

AROA UHARTE ZUBILLAGA LEITZAKO ITZULTZAILEA

Aleksandra Kollontairen 'Erle langileen amodioak' errusieratik euskarara ekarri du Aroa Uharte leitzarrak. Bakarrik itzuli duen bere aurreneko literatur lana izan da

G. PIKABEA | LEITZA

Errumanierak erakarri zuen lehenbizi eta hark eman zion errusiera ezagutzeko bide, liliuratzaraino. Geroztik, sorterritik bada ere, hizkuntza eslaviarrarekiko duen interes berezi horri eusten dio Aroa Uharte Zubillagak (Leitza, 1984). Horren adibide da errusieratik itzuli berri duen Aleksandra Kollontariren *Erle langileen amodioak* liburua. Erein eta Igela argitaletxeekin egin du, Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpreteen elkarteak (EIZIE) urtero antolatzen duen Literatura Unibertsala bildumarako lehiaketa irabazita. Bakarrik itzuli duen bere aurreneko literatur lana eta Errusiarekin duen lotura izan ditu hizpide.

Arte Ederrak ikasiz hasi zinen eta Errusian bukatu zenuen. Nolatan?

Leioan Arte Ederrak ikasten ari nintzela, Erasmus beka batekin Errumaniara joan nintzen. Han hasi nintzen Errusiako literatura irakurtzen eta Errusiarekiko zirrara sentitu nuen. Hortaz, Arte Ederrak bukatutakoan, Bartzelonan eslaviar filologia ikastea erabaki nuen. Literatura, historia eta batez ere errusiera eta poloniera ikasi nituen eta oso pozik aritu nintzen. Errusiara joateko aukera izan nuen, eta Moskun eta San Petersburgon bi egonaldi egin nituen. Oso argi nuen Euskal Herrira itzuli nahi nuela eta hona etorritakoan, errusierarekin lotuta zer egiten ahal nuen bilabili nintzen, baina ez nuen

topatu. Alde horretatik, itzulpena errusierarekin eta ikasitako guztiarekin harremana mantentzeko modua izan da.

Nolakoak dira errusiarrak?

Ikasketetako hirugarren urtean, Moskun sei hilabeteko egonaldia egin nuen. Moskuko unibertsitate estataleko ikasleen egoitza erraldoian bizi izan nintzen eta hasieran asko kostatu zitzaidan arren, oso gus-

tura egon nintzen. Polita eta interesantea izan zen. Gero, ikasketak bukatutakoan, San Petersburgora joan nintzen, beka batekin master bat egitera. Urtebete egin nuen han, Errusiako familia baten pisuan bizitzen, eta bigarren egonaldi horretan gehiago ezagutu nituen. Hasieran hotzak dirudite, baina ez nuke hala direnik esanen. Ez dira Mediterraneo-



Aroa Uharte 'Erle langileen amodioak' narrazio bilduma esku artean duela. EREIN

koak bezain atseginak edo irekiak, baina konfiantza hartutakoan, oso abegitsuak dira.

Eta zer diozu Errusiako kulturaz?

Errusia herrialde erraldoia da eta hainbat kultura ditu bere barrenean: musulmana, animista, buriatia, budista... Hainbat geruza ditu eta horietako batek kultura europarrarekin lotura du eta beste batek Asia-koarekin. Urte askoz Errusia mongoliarren mende egon zen eta horren arrastoak eta beste kultura batzuenak ere badira.

Zer dakigu euskaldunok Errusiaz?

Kultura anglosaxoiar edo amerikanoaz baino askoz ere gutxiago dakigu. Alde horretatik oso marjinala da. Hortik aparte, alde batetik, gertakari historikoengatik Errusiari buruz dakiguna idealizatu egiten da, baina testuingurua ulertu gabe. Iraultza prozesu haiek nola eta zergatik gertatu ziren ulertu gabe mitifikazio puntu bat sumatzen da. Gainera, gerra garaian, Nafarroan beharbada ez hainbeste, baina frankisten kontra borrokatu zutenen artean errusiarrek itxaropena piztu zuten, tankeak bidaltzen zituztelako eta Errepublika salbatzera etorriko zirela pentsatzen zutelako. Baina beste aldetik, gaur egun, Errusiatik oso aldebakarreko informazioa jasotzen dugu. Putinen berriak baino ez dira ailegaten.

Errusieratik Erle langileen amodioak euskaratu duzu. Azaldu...

Bai, EIZIEk Literatura Unibertsala lehiaketan liburu hau proposatu zuela ikusi nuenean, lagin bat aurkeztu nuen. Lehiaketa irabazita poza eta aldi berean urduritasuna sentitu nituen baina banekien gozatu nuela. Eta pozik nago emaitzarekin, nahiz eta itzulpena fintzeko eta aldatzeko gogoia beti hor dagoen.

Liburuan hiru ipuin bildu dira eta Errusiaren historiako gertakari nagusiak ageri dira...

Bai, lehenbiziko bi ipuinak motz samarrak dira eta hirugarrena nobelatxo bat da, hirurak Errusian XIX. mendearen bukaeran eta XX. mendearen hasieran

kokatuak. Protagonistak emakumezkoak dira eta trama nagusia emakumezko horien amodio kontuak dira. Garai hartan, Errusian bizitzaren arlo guztietan izugarritzko aldaketak izan ziren: gizartearen, ekonomian, politikan... bainaliburuan askoz ere kontu intimoagoak kontaktzen dira. Liburuko istorioak aldaketa izugarri haien erdian, pertsonen arteko harremanetan izandako aldaketak kontaktzen dira, besteak beste, amodiori buruzko ikuspuntuak nola aldatzen diren.

Hiru ipuinak azalduko zenituzke?

Lehenbizikoan, *Amodioa hiru belaunalditan* ipuinean, XIX. mendeko amodio erromantikotik hasi eta iraultza denboran jaiotako neska gazte baten ikuspuntua kontaktzen da, hiru belaunaldi eta bakoitzak iraultzaren eskutik bere garaiko amodio-egiturak nola puskatzen dituen. Bigarrenean, *Ahizpak* ipuinean, emakumea gizonarengana lotzen duten egiturak ageri dira: emakumeak bizitzarekin eta lan politikorekin segitzeko dituen lanak, eta aldi berean, gizona, etxea eta familia lotzen duen egitura nola puskatzen duen. Langabezia egoeran emakumeek prostituziora jotzeko duten arriskua ere aipatzen da. Hirugarrena *Vasilisa Malygina* ren maitasun istorioa da. Harremanen inguruko hausnarketak bat egiten da, harreman batek, kasu honetan emakumea nola lotu dezakeen amodioaren esperoan edo bila egoteak, bizitzako erabaki nagusiak horren inguruan hartzeak, bere desioak... Emakume horiek iraultzaileak dira, eta ez dira amodioagatik bakarrik bizi.

Gaur egungo gizartearekin loturirik badu?

Liburuan planteatzen diren gai batzuen inguruko gogoetak gaur egun ere egiten ditugu. Adibidez, harremanak, poliamodioa, amodio erromantikoak sortzen dituen menpekotasunak... Gaur egungo irakurleentzat ere interesgarriak izan daitezke. Orain berritzailetzat



Leitzarrak berak bakarrik euskaratu duen lehenbiziko literatur lana da Aleksandra Kollontairena. EREIN

ditugun ideia horiek ez direla hain berriak erakusten du.

Liburuaren estilo sinpleaz ere aritu izan zara...

Kollontai ezzen literatura idazlea, batez ere iraultzailea izan zen, eta saiakera dezente idatzi zituen. Une jakin batean, errealitate horrekin zuen harreman zuzena galdu zuen, diplomazia lanak egitera erbestera bidali zutelako. Orduan hasi zen literatura idazten, eta diotenez, Kollontairentzat literatura ideiak jendearengana ailegatzeko tresna izan zen. Garai hartan, alfabetatze prozesu oso inportantean zeuden, eta emakume nekazari eta langile asko ari ziren irakurtzen ikasten. Horregatik, liburuak nahiko hizkuntza estilo sinplea

«EMAKUME
IRAULTZAILEEN
AMODIO KONTUAK
KONTATZEN DIRA»

du. Ahozkotasunak ere garrantzia du, baina hori Errusiako literaturaren ezaugarri bat da, eta hizkera aldetik, esaldi motzak erabiltzen ditu.

Nola aurkeztuko zenuke Kollontai?

Oso pertsona liluragarria izan zen, indar handikoa eta ibilbide luzekoa. Oso gaztetatik bat egin zuen XIX. mende bukarako eta XX. mende hasierako langile mugimendurekin eta 1917ko iraultza ailegatu zenean, hortxe zegoen. Alderdi boltxebikeko komite zentraleko kidea izan zen eta lehenbiziko gobernu sobietarrean ministro. Izugarritzko lana egin zuen hainbat lege onartzeko, besteak beste, dibortzioaren legea. Bere kasakoa ere bazen, eta bolada batez mentxebikeekin aritu eta

«KOLLONTAI OSO
PERTSONA
LILURAGARRIA ZELA
IRUDITZEN ZAIT»

gero, boltxebikeen aldera egin zuen. Alderdi barrenean, ildo ofizialek aldentzeagatik erbestealdi diplomatikora bidali zuten eta munduko bigarren emakume enbaxadore izendatu zuten. Ibilbide politikoa handikoa izateaz gain, saiakera dezente egin zituen, baita emakumeen lan baldintzen inguruan ikerketak ere. Literatura ere idatzi zuen, baina bere lanak pixka bat baztertuak izan ziren. Emakumeak iraultzako subjektu bihurtzearen alde ere asko borrokatu zuen baina alderdiko jende askok barre egin zion.

Itzulpen gehiago etorriko dira?

Bakarrik itzuli dudan lehenbiziko literatur lana izan da. Aurretik Amaia Apalauzarekin Sergei Dovlatoven *Filiala* itzuli nuen, eta ondotik Lenin *Estatua eta Iraultza* saiakera. Igual gehiago etorriko dira, zergatik ez? Errusiar literaturatik itzultzeko lan asko daude eta aukera baldin badut, egitea gustatuko litzaidake.



2022an elkar ikusteko hitzordua iragarri dute: 2022ko apirilaren 10a. UTZITAKOIA

Bigarren urtez mendi maratoi erdia bertan behera

Mendi Maratoi Erdia ezin izanen dutela antolatu iragarri dute Manttale Mendi Lasterketa eta Agerra Mendi taldeek

IZASKUN REKARTE

Antolatzaileen hitzetan «aurten ere ez da posible izanen mendi maratoi erdia antolatzeari». Izan eren, 2020ko edizioa ere bertan behera utzi behar izan zuten. Pandemiak «ez du etenik ematen» eta egoera sanitarioaren bilakaera «ez da guztioi gustatuko litzazigukeen bezainbertze hobetu». Antolatzaileek adierazi dutenez «ez dakigu hemendik bi hilabete eta erdira, lasterketa egitekoa genuen datan, egoera nolakoa izanen den».

Argi dute «mendi maratoi Erdia beti antolatu dugun mo-

duan ezin izanen litzatekeela egin». Izan ere, egun horretan «550 korrikalari, 200 boluntario eta ikusle aunitz» biltzen dira.

Hurrengo urteari begira

Bertzalde, oharrean urte hauetan guztietan «lasterketa posible egin izan duten boluntarioei, korrikalariari, enpresei, saltokiei eta erakundeei eman diguten laguntza eta animoen-gatik» eskerrak eman nahi izan dizkiete.

Azkenik, 2022an elkar ikusteko hitzordua iragarri dute: 2022ko apirilaren 10a.



Egun dauden konpost-guneak edukiontzi marroiekin osatuko dituzte. ARTXIBOKOA

Edukiontziak paratuko dituzte hondakin organikoa biltzeko sistema hobetzeko

IZASKUN REKARTE

Udalak jakitera eman duenez, egun «hondakin organikoaren %27 bakarrik bereizten da». 2012. urtean herrian «auzo-konpostaren hautua» egin zen eta hori izan da «orain arte jarraitutako sistema». Udaltetik adierazi dutenez «Bortzirietako bertze herrietan %50 inguru bereizten da». Hau erreferentzia gisa harturik 2021ean herrian «maila horretara iritsi» beharko litzateke, aitzinera begira «%70eko helburuari» eusteko.

Herrigunean «orain arte sei konpost-gune» izan dira (hiru konpost-etxola Agerran, Eztegaran eta Kanttonberrin; eta hiru konpost-ontzi Zubizabalen, Iturlandetan eta Matzadan). Otsailaren 17ko bilkuran erabakitakoaren arabera, «momentu honetan sistema mistoaren hautua» egin dute.

Horrela «egun dauden konpostagailuekin» segituko dute eta hauek «edukiontzi marroiekin» osatuko dituzte. Udalaren arabera, sistema mistoak bi abantaila ditu: «etxeko konpostarekin segitzeko aukera izatea» eta «bilketa igotzeko bidea» ematea. Modu honetan, «dauden sei konpost-guneekin» segituko dute eta «30 edukiontzi marroi» paratuko dituzte. Edukiontzi berdeen kopurua murriztuko dute, «hirutik bira proportzioan».

Informazio kanpaina

Azkenik, udalak informazio kanpaina egingen du «etxez etxe joanda, euskarri grafiko egokia diseinatuz eta kubo marroiak banatuz». Gainera, kanpaina honetan «hondakin organikoa biltzeko bisistemen ezaugarriak» azalduko ditu, «erabiltzaile bakoitzak bere aukera egiteko».

BRANDONEA s.l.
 PROFESIONALES DE BARRERAS Y PUERTAS
BILTEGIA: 948 630 102
SAKELAKOIA: 633 480 563
 Bidasoa, 76 - atea 21-22 • BERA

ALBERTO RETEGI
 abokatu
 abokatu
 © 948 630 763 · Altzate, 17 · BERA

LABE ZAR
 Astelehenetik ortziralerara:
 07:15etik aitzinera
 Larunbata eta igandea:
 08:00etatik aitzinera
 948 631 076 • BERA

F. LANCHAS
 Akutxiladorea eta bernizatzailea
 Parket eta parket flotatzailea jartzea
 Mota guztietako zolak
 Tel: 948 630 735 M: 620 172 679

MARITX
 · INGENIARITZA ELEKTRIKOA
 · PROIEKTU ELEKTRIKOAK
 · BOLETIN INDUSTRIA
 · INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
 T. (0034) **636 617 450**
 Legia, 23 - BERA

Labiaga Ikastolan estalpea egiten hasiko da

Udalak eta Labiaga Ikastolak egindako akordioaren arabera patio berria «urte guztian herriari irekia» egonen da

IZASKUN REKARTE

2021eko udan Labiaga Ikastolak patioa berritzeko lanak hasiko ditu. Lehen fase honetan, Eztegarako eraikinaren azpiko patioan 200 metro karratuko estalpea eraikiko dute. Ikastolako kideek aditzera eman dutenez, «gure ikastolak aspalditik behar zuen halako idorpe bat eta ikasturte honetan Covid-19aren eraginez inoiz baino nabarmenago agertu da gabezia hori». Patio berrirako ideia «hainbat gurasoren, irakasleren eta bazkideren artean landu» dute eta ondotik Ander Rodriguez arkitektoak gauzatutako proiektua «batzarrean onartu» dute.

60.000 euro Ikastolen Elkartasun Kutxatik

Labiaga Ikastolako arduradunek jakinarazi dutenez, estalpea «Ikastolen Elkartasun Kutxatik jaso dugun 60.000 euroko maileguari esker erai-ki ahal izanen dugu». Euskal Herriko ikastola guztien ekarpenei esker, urtero dirulaguntza batzuk banatzen dira



Eztegara pasealekuko egoitza.

«proiektu estrategikoak egin nahi dituzten ikastolen artean eta oraingoan, Labiaga Ikastolari egokitu zaio ekarpena jasotzea». Guztira, Ikastolen Elkartek «800.000 euro banatu ditu hamar proiektuentzako» eta Labiaga Ikastolak bere «esker ona» adierazi nahi izan dio.

Azkenik, Labiaga Ikastolako kideek patio berria «urte guztian herriari irekia» egonen dela azpimarratu dute. Udalarekin egindako akordioaren arabera, «herriar guztiek izanen dute estalpea erabiltzeko aukera». Izan ere, herrian dauden espazio estaliak «guti» dira eta ikastola herri erdian dagoenez herritarrek «espazio hau erabiltzeko aukera izatea» eskertuko dutelakoan daude.



Xabi Balda Errandonea abeltzainaren behorrak zauritu zituen suak.

«Penagarria da, baina mendiaren egoera ikusita ez da harrizkekoa»

Egora kaxkarrean gelditu da mendia otsailaren 21-22ko sutearen ondorioz. Xabi Balda Errandonea abeltzainak dioenez, «mendi inguru honek basamortua dirudi, edo Marte. Negar egiteko gogoa ematen du. Asteburua luzea izan zen, gaua eta eguna, ohatzean sartu eta lorik ezin egin. Gaez bueltaka ibili, goiz abiatu etxetik, berandu bueltatu. Bera inguruan ez genuen horrelakorik bizitu, telebistan ikusten dugu aunitzetan, baina tokatzen zaizularik ohartzen zara zer den». Handik eta hemendik jaso duten laguntza ere ez du aipatu gabe utzi nahi Berako abeltzainak. «Laguntza eskatu eta jendea prest agertu da eta hori eskertzekoa da. Eskerrak eman baita suhiltzaileei, boluntarioei, eta Berako artzainei ere sua itzaltzen eta aziendak biltzen emandako laguntzagatik... itzalean lan egin duten guztiei! Hondarrean ni agertzen ari naiz leku guztietan, baina badira erlezainak ere kalte handiak izan dituztenak, horiek gogoan hartu behar ditugu». Berako udalaren interesa ere eskertu du Baldak, «laguntza emateko prest dago».

Otsailaren 20-21eko asteburuko gertakaria penagarria izan da Baldarentzat, baina mendiaren egoera ikusita ez dela harrigarria ere uste du: «Mendia garbi kontzea garrantzitsua da, akats handiena mendiak hagitz zikinak daudela da, ez dira zaintzen zaindu behar diren bezala, zerbait egiten da, baina jarraipena egin behar da, hirietan lorategiekin egiten den bezala. Plantazioetan inbertitzea ongi dago, baina suebakiak egin behar dira, aziendak ibiltzen diren larreak garbitu... Segida bat eginez gero ez genuen irudi hau izanen. Mendia ez da bakarrik egurra ateratzeko: hartzen ahal da, baina eman ere egin behar zaio mendiari».

Zalain
JATETXEA RESTAURANTE

Eramateko janaria
astelehenetik ortziratera

Zalain Auzoa BERA t. 948 631 106 w. www.zalain.info

Jauztena

Denda. 948 631 217
T. 630 136 863
Julio Caro Baroja, 6 - BERA
jaurenabera@gmail.com

Elektrizitate lanak orokorrean
Erreformak, etxe berriak
Lantegietako mantenu lanak
Antenak

Sukaldeak, etxetresnak
eta orain sukaldeko diseinua 3D

HAURRENTZAKO TERAPIA

- antsietatea, estresa
- beldurrak, fobiak
- amesgaiztoak
- somnambulismoa
- enuresia
- hiperakibitatea
- eskola-arazoak
- dolua
- gurasoen banantzeak
- portaera-desorekak
- anai-arreben arteko jelsia
- bullying
- haurdunaldia-arazoak
- erditze-arazoak

Mathilde 620719400
Beran eta Donezteben

<https://ninosmetodoshec.wordpress.com>

METODO SHEC

Organo eta txelo kontzertua prest igandean elizan

Lesakako Roques Organoaren Lagunak Elkarteak antolatu du Ignacio Arakistain eta Oleg Sarapulov musikariek (17:30)

AITOR AROTZENA

Lesakako Roques Organoaren Lagunak Elkarteak (AAORL), udalaren laguntzarekin, 2021erako aurreikusita dituen kontzertu sortako lehena antolatu du. Oraingoan, organo+biolontxelo da kontzertuaren formatua, eta martxoaren 14an, igandean eskainiko dute 17:30ean, San Martin elizan.

Ignacio Arakistain organo-jotzailea eta Oleg Sarapulov biolontxelo-jotzailea izanen dira kontzertua emanen dutenak. «Aurten antolatu dugun kontzertu-zikloak hainbat musika-tresna mota izanen ditu lagun, jendeak organo-rako konposatutako musikaren estilo eta errepertorio berriak ezagutu eta gozatzeko aukera izan dezan», adierazi du AAORL elkarteak.

13.410 euroko dohaintzak

Elkarteak sustatutako organoa zaharberritzeko proiektua gizarte-interesekotzat jo zen 2020an. Nafarroako Kultur mezenasgoari buruzko Foru Legearen arabera, onura fiskal handiak daude horrelako proiektuetan laguntzen duten enpresa eta partikularrentzat.

Kanpaina horretan 103 ekarpen lortu zituzten (102 partikular eta enpresa bat), eta guztira 13.410 euroko dohaintzak izan ziren eta elkarteak laguntza hori eskertu nahi du.

2021ean, berriz ere lortu dute gizarte-intereseko aitorpena, eta berriz ere animatu nahi dituzte partikularrak eta enpresak 2021eko abenduaren 31 baino lehen dohaintza egin dezaten Mecnaren bidez, dagozkion zerga-abantailez baliatu ahal izan daitezten.

Dizdizka abesbatzaren kontzertua antolatu du Giltzarrik larunbatean

A. AROTZENA

Giltzarri Abesbatzak antolatuta, Dizdizka gazte abesbatza Harriondoan entzuteko aukera izanen da martxoaren 13an, larunbatean, 18:00etan.

Errenteriako Landarbaso Abesbatza famatuaren talde gaztea da Dizdizka. 2016ko otsailean sortua, urte bereko apirilaren 24an eskaini zuen bere lehenbiziko kontzertua, sorterrian bertan, *Landarbaso Munduan* izeneko ekitaldearen barrenean. Kontzertu ugariren protagonista izan da geroztik: Donostiako Hama-



Dizdizka abesbatzako kideak.

bostaldian, Beasainen eta Kantabrian, errate baterako.

Egun 33 partaidez dago osatua, eta musikak dakarren plazera sentiaraztea da bere helburu nagusia.



Gardelberriko familia, Gardeleko soroan, kea gibelean dutela.

«Egunez ez da polita, baina gauez beldurgarria da sua»

Ez zen asteburu xamurra izan otsailaren 20-21 ekoa Auzoberri auzoko Gardelberri baserrikoentzat. Nerea Maia Elizondok aipatu zigunez, «larunbat arratsaldean ikusi genuen suak errepidea eta Bidasoa ibaia gainditu eta Lesaka aldera pasatua zela, baina mantso zebilen eta, itxura batean, suhiltzaileek kontrolatua zuten. Alderdi horretatik lasaixeago ibili gara».

Miren Maia ahizpak zioenez, «suhiltzaileak erabat hemendik barna zebiltzan, auniztan gurutzatu ginen beraiekin, baina haize honekin eta inguru malkartsu honetan, ezin zuten gauza aunitz egin. Gurekin ez dira gelditu, baina gero etxera agertu dira, goizaldeko hirurak aldera. Beraien gibeletik joan gara, badaezpada ikusteko non zegoen sua, igual baserri ondoan genuen eta ez ginen ohartuak. Beraien gibeletik joan gara Berreu aldera, guk ere ikusteko eta arratsaldean bezalatsu zegoen nahiko kontrolatua. Halere, egia da lo gutti egin dugula, gauez beldurgarria da sua, eta errespetua sortzen dizu, gorritua ikusten duzu eta zeure buruari galdetzen diozu, heldu da, ez da heldu?».

Nerea Maiaren erranetan, «Endarlatsa aldetik goiti bertze su bat hasi dela ere ikusi dugu eta hasieran kezkatu gara, baina suhiltzaileek kontrastua dela erran digute eta lasaitu gara. Aunitz inpresionatzen zuten Berreu aldetik Irun aldeko Potonbordak ere, sua hagitz hurbil zuela ikusten zen. Gauez ez ziren bi baserriak ikusten, baina sua bai, eta bagenekien hurbil zela. Haizeak garra haundiak ateratzen zituen, baserriak hor nonbait zeudela bagenekien, eta beldurra... ailegatu ote da, ez ote da? Egunez ez da polita, baina gauez beldurgarria da sua». Iritzi beretsukoa da Miren Maia ere: «Haizea ikaragarri ibili da gauez, joan garenean Berreu aldera eta kotxetik atera, haizeak gibelera eramaten zigun, imajinatu sua!».

Igor Lasagak, Nerearen senarrak ere sua gauez ikaragarria dela onartu du. Berakoa sortzez, «lagunen bideoen bitartez» jakin zuen behorak hil eta erlauntzak galdu zirela Beran. «Pena handia da, zebilen haizearekin ezin izan zuten sugarretatik ihes egin. Zorionez Lesaka aldean ez da horrelakorik izan eta aziendak zeuden lekuetan ez du suak eragin».

Denak Bat
Hemen erabili
kattagorria
LESAKA
948 627 514
www.kattagorria.com

BEKO
LOREAK ETA LANDAREAK
Frain Auzoa · LESAKA
T. 948 637 826



Martxoaren 1ean egin zuten aurkezpenean Satrustegi, Conde eta Larrarte.

Herriko 1.326 etxeetatik ia %10 guztiz hutsik dago

Martxoaren 1ean egindako aurkezpenean aipatu zuten, herritar gehienek egoerari buruzko kezka dutela azaldu dute

AITOR AROTZENA | LESAKA

Joan den abendutik, Lesakako etxebizitzaren egoera aztertzeke ikerketa egiten ari da udala, gaur egun etxebizitzaren egoera zertan den eta herritarren beharrak zein diren aztertzeke. Ikerketaren baitan bi atal nagusi landu dituzte, alde batetik herriko etxebizitzaren erregistroa, eta bertze aldetik herritarren beharren analisia. Beharrak ikerkeke inkesta bat zabaldu zuten urtarrilean, eta herritarren 192 erantzun jaso zituzten. Hortaz gain, bertzelako entitate eta adituekin ere azertu dituzte beharrak, eta emaitzak jaso eta antolatzen ari dira orain, ondorioak atera ahal izateko.

Emaitzen zein ondorio nagusi batzuen berri emateko martxoaren 1ean egin zuten aurkezpenean Harriondoan. Ladiis Satrustegi alkateak ireki zuten solasaldia, ikerketa has-teko arrazoiak eta udalaren ikuspegia emanaz. Ondotik, Eneko Larrarte Nafarroako Gobernuako etxebizitza saileko

zuzendariaren txanda izan zen, eta Nafarroako egoera orokorraren berri eman zuten, eta egun martxan dauden proiektu eta politikei buruz ere aritu zen. Azkenik, Garazi Condek orain arteko ikerketaren emaitzen eta ateratzen ari den ondorioen berri eman zuten.

«Herriko 1.326 etxebizitzetatik 131 hutsik daude»

Alde batetik, eskaintza aztertzeke etxeen erregistroa egin dute ikerketan eta eskaria zenbatekoa den ezagutzeko, adituekin kontsulta, inkesta eta elkarrizketak erabili dituzte. Neurketa honen arabera, Lesakan osotara 1.326 etxebizitza daude eta horietatik 131, kasik %10 guztiz hutsik daude. Garazi Condek aipatu zuenez, «ez dugu zerekin erkatu, baina erran dezakegu 131 etxe huts horiekin badugula haunditu eta etxebizitza behar batzuei behintzat irtenbidea emateko aukera. Etxe hutsen

gai orokorrean gutti azertu da eta ez dago datu nahikorik horien inguruan. Azkenik, datu hauek azken urteetako bizitza estilo aldaketaren ispilu dira, batez ere baserriak hustutzen joatean». Inkesta erantzun dutenen 192 lagunetatik 162k ohiko bizilekua Lesakan dute. Horietatik 90 (%55,56) bere etxearen jabe da, 36 (%22,22) gurasoen etxean bizi da, 23 (%14,2) alokairuan eta 13 (%8) familiako baten etxean bizi da. Inkestatuen %94,4k emantzipatu nahiko luke baldintza egokietan. Emantzipatuko ez lirakeen guztiak 25 urtez azpikoak dira.

Hilean 424 euroko errenta bana bertze

Lesakan, alokairuaren prezioaren bana bertzeko hilean 424 eurokoa den bitartean, gurasoen etxe bizi diren gehienek hilean 201-300 euroko aurrekontua izanen lukete errentarako. Beraz, oraindik gureasoen etxean bizi diren gazteek emantzipatu nahiko lukete, baina egoera ekonomikoak eta aukera faltak eragiten du gurasoen etxean gelditzea. %80k baino gehiagok Lesakan bizi nahiko luke etorkizunean. Alokairuan bizi diren maizterren artean, bana bertze soldataren %32,17 bideratzen dute hileko alokairura. Etxebizitza jabetzan dutenen artean, %90 hipoteka bidez ordaintzen ari dira eta oraindik mailegua ordaintzen segitzen dute gehienek (83tik 59). Kanpoan bizi diren artean, berriz, hirutik bat Lesakara itzuliko litzateke etxebizitza merkatuko balitz.

Laburbilduz, inkesta erantzun dutenen artean, ia %80k uste du gaur egun etxebizitzaren egoera kezagarria dela eta %95,3ak uste du etorkizunean egoera kezagarria izanen dela edo izan daitekeela. Kopuru horrek berak dio Lesakako udalak neurriak hartu beharko lituzkeela eta %92,2k Nafarroako Gobernuak hartu beharko lituzkeela neurriak.

Turismo teknikaria kontratatzeke deialdia egin du udalak

A. AROTZENA

Turismo bulegoan publikoari arreta eta informazioa emateko langile bat kontratatu nahi du udalak. Sei hilabete-tarako kontratua, 2021eko apirilaren 1etik irailaren 30era bitarte, eskaini du. Eskatzaileek martxoaren 10era arteko epea dute eskaera orria bete eta aurkezteko. Izangaiak Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuan lan eskatzaile gisa inskribatua egoteaz gain, 16 urteak beteak izan beharko ditu. Gainera, Batxilergoko titulua edo Lanbide Heziketako bigarren graduako titulua eta euskarazko C1 hizkuntza gaitasuna beharko ditu.

Turismo teknikariak Bortzirriak, Malerreka eta Baztango informazio turistikoa eman beharko die bisitariei. Horrez gain, udalerriko turismo-plan bat (turismo-enpresekin eta udalarekin elkarlanean) garatuko du eta, era berean, inguruko turismoa sustatu eta dinamizatzeke lanak egingen ditu.

Herriko dantzarien eguna antolatu dute hilaren 20rako

Tantirumairu Euskal Folklore Taldeak Herriko Dantzarien Eguna antolatu du martxoaren 20rako. Hau idazterakoen egitaraua eta ordutegiak guztiz zehaztu gabe badaude ere, goizean dantzari ttikienek emanaldia eskainiko dute eta arratsalean ikuskizunen bat ere izanen da. 18:00etan dantzari helduen taldeen emanaldia ikusgai izanen da Harriondo Kultur Etxean. Joan den urtea ia emanaldirik gabe joan zen eta urte osoan lanean segitzen duela erakutsi nahi du dantza taldeak.

Mendi itzulia bertan behera uztea erabaki du Altxatak

Oraindik ezin da 500 mendizale eta antolakuntzako 200 lagun biltzen duen irteera segurtasunez antolatu

IRUNE ELIZAGOIEN

Bizi dugun osasun egoera larria dela eta, 2021erako aurreikusita zegoen Etxalarko Mendi Itzulia bertan behera uztea erabaki du Altxata kultura eta kirol elkarteak. Egoera zertxobait hobetzen ari dela badirudi ere, ezinezkoa da mendi itzulia bere horretan ezagutzen den moduan segurtasunez antolatzea. Etxalarko mendiez gozatzera etortzen diren 500 bat laguneri eta antolakuntzan eta boluntario lanetan aritzen diren bertze 200 bat laguneri ziurtatu nahi izan diete, dato-



Aurten ez da horrelakorik izanen.

rren urtean mendi itzulia antolatzeko ahalegin guztiak eginen dituztela. Lerro hauen bidez, eskerrak eman nahi dizkiete mendi itzulia aitzinera ateratzen laguntzen duten boluntario, laguntzaile, hornitzaile, saltoki eta mendizaleei.

Larraburua elkarteko batzarra, eskulanak eta muxikoak

Larraburua elkarteak norberaren abileziak partekatu eta eskulanak egiten aritzeko deia egin du. Animatzen denak elkarteko juntakideekin jarri behar du harremanean edo 623 15 34 38 telefonora deitu. Bertzetik, urteko batzar orokorra martxoan 27an izanen

da; 16:30ean lehenengo deialdia eta 17:00etan bigarrena. Gero berendua eskainiko dute. Martxoaren 8tik aitzinera muxikoen entsaioak ere berreskuratuko dituzte. Astelehenero 18:00etatik 19:30era izanen dira frontoian Nekane eta Alejandoren eskutik.



KULTUR ETXEA

Guraso elkartearen zozketan sarituak

Landagain Guraso Elkarteak, Eguberrietako goxokien erosleen artean, zozketatxo bat antolatu zuen eta hauek izan ziren sari-dunak: Laura Elizagoien (bluetooth bozgorailua), Angel Mendikoa (goxokien egurrezko kutxa), Landagain Eskola (goxokiak). Laister ekimen berri bat martxan jarriko dutela aipatu dute.

Informatika ikastaroa antolatu du guraso elkarteak kultur etxean

Landagain Guraso Elkarteak antolatuta, informatika ikastaroa izanen da doan, kultur etxean, La Caixa fundazioak finantzatua. Martxoaren 16, 18, 23, 25 eta 30ean izanen da 09:30etik 11:30era. Ordenagailuaren erabilera, nabigazioa, Google zerbitzuak eta bertze

hainbat gauza ikasiko dituzte bertan. Ikastaroan izena emateko 661 15 50 56 telefonon egin behar da, martxoaren 12a baino lehen.

Hamabi lagunentzako lekua dago eta lehentasuna Landagain eskolako haurren gurasoek izanen dute.

Ainhoa Alzuguren Mitxelena

Abokatutzua orokorrean · Herentziak
Alokairuak · Lan aferak

Zerbitzua euskaraz ematen dut. Deitu eta solastatuko gara.

BERA - M. 630 97 21 89 - ainhoaalzuguren@gmail.com



EGUNEKO MENUA
SAGARDOTEGI MENUA
KARTA
OGITARTEKOAK
PLATER KONBINATUAK ...

T. 948 625 472
Alasta karrika · BERA
zubiondojatetxea.com



Bizikleten salmenta
eta konponketa.

Kanttonberri, 1 | BERA

T. 948 631 218

joxemi@kateabike.com

www.kateabike.com





Otsailaren 28an jokatu zuten lehenbiziko jardunaldia Antsoainen.

Herriko hiru talde Nafarroako Herri Kirol Jokoetan ari dira

MAITE, ANA ETA ITZIAR

Herriko hiru talde ari dira Herri Kirol Jokoetan. Lehenbiziko jardunaldia otsailaren 28an jokatu zuten eta kimuak bigarren eta haurrak garaile izan ziren. Kadeteak martxoaren 7an hastekoak ziren. Herri kirol joko hauek martxoaren 28a arte luzatuko dira, hiru-

garren jardunaldia martxoaren 14an eta laugarrena 21ean izanen dira. Bai jardunaldiak baita martxoaren 28ko finala ere Antsoainen jokatuko dituzte, 11:00etan. Aurten ikuslerik ez dagoenez Antsoaingo herri kirol taldearen *Youtube* kanalean ikusteko aukera izanen da.

Simonbaitako garbitokia berritu dute auzolanean

Aitzineko TTIPI-TTAPA zenbaki batean aipatu bezala, herritarrek garbitokiak moldatzen hasiak dira auzolanean. Oraingo honetan Simonbaitakoa izan da berritutakoa. Argazkian ikusten den bezala, aldaketa ederra nabari da eta txukun aski utzi dute.



Itxuraberrituta utzi dute.



MAITE, ANA ETA ITZIAR

Urko Telletxea txapeldun

Otsailaren 20an Donezteben jokatu zen Malerrekako XIX. Pilota Txapelketako finala eta bertan Urko Telletxea Sein herritarrek Lesakako Jon Madariaga Apezetxearekin batera benjamin mailako finala irabazi zuen. 18-5 irabazi zieten Oberenako Mauleon eta Remirez azpitxapeldunei.

Bortzirietako Berdintasun Zerbitzuaren bulegoa herrian

TTIPI-TTAPA

Bortzirietan 2006an berdintasun teknikaria kontratatu zen Mankomunitatearen bidez. 2008an kudeaketa gizarte langilearen postuari egoztea erabaki zen eta urte urte ekintza gehiago antolatu direnez, bertze profesional baten beharra ikusi zuten.

Hala, urtarrilaren 13an Bortzirietako udalek egindako bileran hitzarmen bidez Berdintasun Zerbitzua ematea erabaki zuten. Teknikari postuaren deialdia, kontratazioa eta bulego gestioak Igantziko

udalaren gain egonen diren arren, teknikariak Bortzirietako emakume eta gizonen arteko aukera berdintasunak sustatuko dituen gaiak jorratuko ditu: kanpainak, programak eta sentsibilizazio ekintzak; ahalduz eta parte hartzea sustatzeko jarduerak; dirulaguntzak bideratu eta kudeatu; berdintasuna... Kultura, aisialdia, kirol arloa, hezkuntza eta gazteria, tokiko garapen enplegua, osasun-gizarte zerbitzuak eta lurralde antolamendua izanen ditu lan eremu.

AMA KONTXA

GASOLINDEGIA

- ONGI FILTRATUTAKO ERREGAIA (A Gasolioa, B Gasolioa, SP 95, Adblue)
- 24 ORDUKO ZERBITZUA
- TELEFONOA ETA FAXA
- APARKALEKUA
- KUTXAZAIN AUTOMATIKOA
- SUPERMERTATUA
- LABETIK MOMENTUAN ATERATAKO PIZZAK ETA OGIA
- ARROPA GARBIGAILUA ETA LEHORGAILUA

GASOLIOA ETXERA

ETXERA BEREHALA ERAMATEN DUGU. PREZIO LEHIAKORRA

Ctra. N-121-A · Km 48,8 · DONEZTEBE · T. 948 450 272 · 948 450 787

KAGU

LIBURUDENDA

Tel. / Fax 948 638 232
Koskontako bidea, 7
(osasun-zentroaren parean)
31770 LESAKA

- PAKETEA JASOTZEKO GUNEA
- LIBURUDENDA
- KOLORETAKO FOTOKOPIAK
- USBK EGINDAKO INPRIMAKETAK
- ESKANERRAK
- ESKOLA MATERIALA
- INFORMATIKAKO MATERIALA
- BULEGOKO MATERIALA
- EGUNKARIAK, ALDIZKARIAK

Udaberria ernatzeko auzolanean aritu dira herritarrak

Emakumearen baratzean, ibilbideak markatzen eta larreak erretzen aritu dira herritarrak eta eskolakoak zuhaitzak landatzen

NEREA ALZURI

Azken asteburuetan, udalak deitutako auzolanetan ari dira herritarrak. Herria denen artean zaindu behar denez, herri-gunean nola mendietan hainbat lan egin dituzte.

Duela urte batzuk sortu zen Emakumeen Memoriaren Baratzea eta geroztik, tenorean tenoreko lanetan ari dira. Neguko fruituez gainera, baratzeke lan gutti izaten da urtaro honetan, lo egoten baita lurra. Baina udaberria gainean izanik, garbiketa eta prestaketa lanak egiten aritu dira. Baratzean, barazki, lore eta landareak izaten dira eta horien landaketak ere egin behar izaten dira, hurrengo urtarotatik emankor eta polit egoteko. Aroak laguntzen duenean, auzolanean segituko dute eta denei parte hartzeko gonbita luzatu diete.

Ibilbideak markatzen

Otsailaren 20an, herritar batzuk baratzean auzolanean ari ziren bitartean, bertze talde bat Izuko PR ibilbide laburreko markak margotzen aritu zen.



Herritarrak larreak erretzen.

Larre erretzen

Otsailaren 27an, berriz, herritarrek larre erreketak egin zituzten auzolanean. Senberroko borda inguruan aritu ziren erreketak kontrolatuak egiten.

Eskolan zuhaitz landaketa

Otsailaren 25ean, berriz, eskolako lagunak izan ziren lanean aritu zirenak. Aspaldiko ohiturari hutsik egin gabe, aitzurrak hartu eta Lehen Hezkuntzako ikasleak zuhaitzak landatzen aritu ziren Senberroko borda inguruan. Eskolatik adierazi dutenez, ehun bat gaztainondo landatu zituzten. Haur Hezkuntzakoek, berriz, patioa loreekin apaintzeko aprobetxatu zuten.



Otsailaren 20an herriko gazte talde bat PR ibilbideak markatzen aritu zen.



Otsailaren 25ean eskolako Lehen Hezkuntzakoek gaztainondoak landatu zituzten.



Haur Hezkuntzakoek patioa aski polit utzi dute lorez apainduta.



PRIM, c.b.

Fisioterapia Zentroa

Itzea 1, behea • T./F. 948 625 206 • BERA
Colon Pas. 6 - atzea • T./F. 943 633 050 • IRUN

Potentzia handiko laserra. Allyane metodoa

gaueko konfort-kuxina

logurak
www.logurak.com

Centro Prim regina tolosaechepare



caser residencial

www.caserresidencial.es

Egonaldi motak

- Egonaldi iraunkorrak
- Aldi baterako egonaldiak familiaren atsedenerako
- Erreabilitazioa, operazio ondokoak eta gaixondoak
- Alzheimerra eta bestelako demenziak dituzten gaixoentzako egonaldiak
- Eguneko zentroak:
 - 365 egunetan irekiak
 - Garraio zerbitzua Irun, Hondarribia eta Hendaiara
 - Iparaldearekin hitzartuak APA diru-laguntzak

ANAKA | Anaka, 8 - IRUN | Tel.: 943 667 780
BETHARRAM | Zubieta, 161 - HONDARRIBIA | Tel.: 943 647 169



Taberna Edariak: hurbileko zerbitzua, kalitatea eta aniztasuna

Taberna Edariak 1979an sortu zen Alkaiagan eta geroztik edari banatzaileen sektorean egiten dugu lan. 1988an, belaunaldi aldaketaz baliatuz eta aukera eta eremu berrietara zabaltzeko, instalazio berriak estreinatu zituen oraingo tokian. Orain, **bigarren belaunaldi aldaketa baten ateetan**, erronka berriei begiratzeko tenorea da hiru ardatz nagusi oinarri hartuta: **zerbitzua, kalitatea eta aniztasuna**.

Banatzaile izatetik haratago, aholkularitza zerbitzua emateko prest

Baztan, Malerreka eta Bortzirietako dena, ostatu eta jatetxeetara edariak banatzeaz haratago, zerbitzu erantsiak emateko prest gaude. Adibidez, lagunekin afaltzeko edari egokia aukeratzeko orduan edo ostalaritzan lanean hasi nahi duen enpresari tiki horri negozioa martxan jartzeko aholkularitzan.

Produktuaren kalitatea

Produktuen kalitatea lehenesten dugu. Gure produktu gehienetan hornitzaile ofizialekin lan egiten dugu eta hau indartzen segitzea da gure helburua. Horrela, merkatuaren oreka mantentzen laguntzeaz gain, produktuaren kalitatea

eta egoera ona ziurtatzen dugu. Bertako ardoekin, sagardoarekin, txakolinarekin, olioarekin eta esnearekin lan egiten dugu eta kontsumo jasangarriago baten alde egin nahi duten bezeroentzat itzultzeko edukiontzietan erosteko aukera eskaintzen dugu.

«Partikularrentzat zein negozioentzat aholkularitza zerbitzua eskaintzen dugu»

«Produktuetan aukera anitza dugu, gustu, egoera eta tenore guztietarako»

«Bezeroak gure lanaren ardatza dira eta hauek zaintzea da gure helburua»

Zuzeneko salmenta

Beti bezala, almagazenerako atea jendarrerera irekita daude. Izan ere, **gustu, egoera eta tenore guztietarako produktuetan dugun eskaintza zabal**a alde batetik eta **kantitate handiak erosteko aukera** bertetik, jendea gure almagazenera etortzeko arrazoi onak dira. Funtsean, superfitzie handietara joatearen alternatiba bat gara batzuentzat, herrian kontsumitzeari utzi gabe.

E D A R I A K



Bidasoa, 76 - BERA

Tel.: 948 63 10 27

☎ 670 59 85 60

tabernabera@gmail.com

www.tabernaedariak.eus

DESKONTUAK BORTZIRIAK TTIPI TXARTELA

Erakutsi eta
aprobetxatu
aukerak!



Caser
RESIDENCIAL ANAKA

%5 DESKONTUA
Egonaldietan, erreabilitazioan eta eguneko zentroan. Txartelduna eta bere 2. graduako senideak barne

Anaka, 8 | IRUN
T. 943 66 77 80

ttipi-ttapa

%10 DESKONTUA
eskeletan

Koskontako bidea, 7-1. | LESAKA
T. 948 63 54 58

Turi Sari
LAND

%50 DESKONTUA
sarreran

Irisarri, 1 | IGANTZI
T. 948 92 89 22

Semper
autozuekula

%10 DESKONTUA
matrikulan

BERA | T. 948 63 02 98
LESAKA | 948 63 82 99

Arturo

%5 DESKONTUA
arropetan

Altzate, 30 | BERA
T. 948 63 01 36

bixkiak
KIROL ETA MODAKO
arropa denda

%5 DESKONTUA

Arretxea, 11 | LESAKA
T. 948 63 81 10

KATEA BIKE

%5 DESKONTUA
konponketetan

Kanttonberri, 1 | BERA
T. 948 63 12 18

Xulufraia

%5 DESKONTUA
30€tik gorako
dekorazio gaietan

Altzate, 18 | BERA
T. 948 63 12 66

GAEA
Datu nagusiarekin

%5 DESKONTUA
kosmetikan
%5 DESKONTUA
oparietan 50€tik gora.
Promozioetan ezik

Pio Baroja, 11 beheka | Bera
T. 666 42 61 96

ALZURI
ELEKTRIZITATEA

%5 DESKONTUA
etxeresnetan
promozioetan ezik

Bittiria, 33 | LESAKA
T. 948 62 75 31

KARLOS ALZUGARAY
OSTEOPATA Euz. Osl. D.O.

%10 DESKONTUA
hamar saioko
bonoan

Itzea, 20 beheka | BERA
T. 607 85 32 08

bortziradi

DESKONTUA
%15 Kamisetetan
%10 Inprenta
lanetan
%5 kopia, enkoadernazio eta
plastifikazioetan 5€tik gotti
* Aurrekontutik kanpo

Eztegara, 26 eska. beheka | BERA
T. 948 63 15 21

LESAKAKO
UDAL
KIROLDEGIA

%40 DESKONTUA
matrikulan

Komentu, 2 | LESAKA
T. 948 63 74 00

Urdu Bera
BERRIEN BERRIEN eta BERRIEN

%20 DESKONTUA
urteko abonarean
matrikulan

Toki Ona Kiroldegia | BERA
T. 948 63 02 15

AGARRA
KIROLAK

%5 DESKONTUA
kirol artikuluetan
%15 DESKONTUA
ehiza arropetan

Altzate, 22 | 31780 BERA
T. 948 63 09 99

zela
KIROLAK

%5 DESKONTUA
erosketa
guztietan

Altzate, 6 | BERA
T. 948 63 05 98

kattogarra

%10 DESKONTUA
lentzerian

Behoko Plaza, 10 | LESAKA
T. 948 62 75 14

ZU lorendea
dekorazioa
osagarriak

%5 DESKONTUA
lore moztuan
30€tik gorako
erosketetan

Altzate, 33 | BERA
T. 948 62 57 86

elika
Dietetika
eta elikadura

%5 DESKONTUA
kontsultan

Itzea, 6 beheka | BERA
T. 948 63 12 83

oreka
nutrizioa eta dietetika

%5 DESKONTUA
kontsultan

Arretxea, 11 | LESAKA
T. 948 63 73 73

Intzuri
OPTIKA

%5 DESKONTUA
produktu guztietan

Bittiria, 28 | LESAKA
T. 948 62 75 50

Ostargi optika

%5 DESKONTUA
produktu guztietan

Bidasoa, 8 | BERA
T. 948 63 07 53

HKpodologia
NORA MAIZA

5€ DESKONTUA
ibilkeraren
azterketa digitalean

Legia, 42 | BERA
T. 688 878 177

txinelka

%10 DESKONTUA
erosketa
guztietan

Plaza Zaharra, 25 | LESAKA
T. 948 63 75 94

Ikusi TTIPI TXARTELA izateagatik hainbat denda eta zerbitzutan **dituzun abantailak**



Kirol artikuluez gain, baita arrantzale eta ehiztariendako ere

FRAN AGARA ALTZUGUREN
AGARA KIROLAK - BERA



Agara Kirolak dagoen etxean garai batean harategia eta janari-denda izan zuten, «amak denda zuen eta attak harategia» dio Franek. Gaur egun, Mari Pazemaztearekin batera, kirol artikulua saltzen dituzte Berako Agaran, arropak eta osagarriak, kirol-oinetakoak eta botak... «Gurea hirugarren belaunaldia da». Nafarroan zabalik dauden arma-denden artean, Agara zaharrena dela kontatu digu. «1923ko paperak ikusi izan ditut» zehaztu digu Franek. Arrantzaleendako gauzak ere aunitz saldu zituzten, «baina orain izugarri jausti da. Arrantzan ibiltzea erdi debekatua eduki dute eta gaur egun arrotz gazte gutti da arrantzale». Gauzak aldatzen dira eta laster erretiroa bistan du Franek. «Hemendik 2-3 urtera erretiroa hartuko dut eta laster likidazioarekin hasi beharko dut».



«Martxoaren 19an berriz ere irekiko ditugu ateak»

MATTARI ALTZUARTE GAZTELU
BAZTAN ABENTURA PARK / BKZ



1993an ireki zituen BKZk bere ateak Narbarten eta 2014an Baztan Abentura Parkea Elizondon. Urte berezia izan da, baina Mattarik dioenez, «egoe-ra latzetatik ondorio onak ateratzen badira, indartuagoa ateratzen zara. Arazo gogorre aurre egiten badiezu, bai pertsonalak baita enpresa bezala ere, horrek etorkizuna markatzen du. Guk joan den urte nahiko ongi akitu genuela erran dezakegu, gauza aunitz ikasi genituen, arlo aunitzetan... Baztan Abentura Parken gure aurtengo helburua da segurtasuna bermatzea, tirolina berria, freno automatikoa... Gure enpresaren oinarria segurtasuna da, horretan ari gara». Azken hilabeteak itxita egon ondotik, «martxoaren 19an, irekiko dute dena, enpresa normaltasunera itzuliko da, langileak hartuko ditugu berriz ere».



«Pantailan ikusi bai, baina paperean ere irakurri nahi dugu»

JOXERRA INTXAUSTI BERISTAIN
MAIMUR - LEITZA



Leitzako Maimur liburu-dendan prentsa edo eskolarako materiala erosi, eta fotokopiak edo enkuadernazioak «baita eskuz egindakoa ere» egiteko aukera topatuko du bezeroak. Lehendik Kas edari-lantegian zuen lana utzi eta emazteari laguntzeko paper artean murgildu zen Joxerra duela 28-29 urte. Eta bestelako ahotsak entzuten badira ere, «ez dut uste papera desagertuko denik: oraindik orain korreo elektronikoz jasotako mezuak inprimitu eta enkuadernatzera etortzen dira ikasleak, adibidez». Halere, onartu digu lehen prentsa gehiago saltzen zela, «Interneten eragina nabari da, baina ez gaude kexatzeko moduan. Jendeak oraindik badu paperean irakurtzeko ohitura. Eta azken urte zail honetan ez dugu itxi, beraz, aurrera!».



«Urteekin izugarri dibertsifikatu ditugu gure produktuak»

MAIKA MARIEZKURRENA IBARRA
MENDAUR PENTSUAK - DONEZTEBE



Mendauro Pentsuak-ek urte berezia du aurten. Ateak ireki zituztenetik 25 beteko dituzte martxoan eta, denborarekin, gauzak aldatu direla kontatu digu Maika Mariezkurrenak. «Jendeak eskatu ahala, gauza berriak ekarri ditugu». Hasieran, «batez ere pentsuekin» ibiltzen ziren eta, orain, izugarri dibertsifikatu dute eskaintza: pentsuak, haziak, mineralak, ardoak, kontserbak, oilaskoak eta oiloak, baratzeko fitosantarioak, fruta-arbolak... Eta produktu bereziak ekartzeaz gain, zerbitzu estra batzuk ere ematen dizkiote bezeroari. Adibidez, «muntatu gabe etortzen diren oiloen kaiolak guk muntatu eta etxeraino eramaten ditugu –azaldu digu Maikak–. Jendeak eskertzen du ematen diogun zerbitzu hori».

«Hasieran jendea ez zen kontziente 'Brexit'aren ondorioez»

LEIRE ELZAURDIA MENDIBERRI BERAKO INGENIARI OPTIKOA

2016an aurkeztu zuen lehen aldiz Erresuma Batuak Europar Batasunetik ateratzeko asmoa. Erabakia denboran luzatzen joan da, baina zenbait erabaki egun antzematen hasi dira

I.REKARTE | BERA

Ikasketak eta bidaiatzeko zirrarak bultzatuta sorterritik urrun hainbat esperientzia ezagutzen ari da Leire Elzaurdia (Bera, 1993). Ingeniaritza optikoa bukatu eta masterra Euskal Herritik kanpo egin nahi zuela erabaki zuen beratarra. Horrela, Oxfordera bidea hartu zuen. Lehenbiziko, ingeles maila hobetzeko asmoz, *au pair* lanetan ibili zen. Ondotik, Glasgoven masterra egin eta urtebetez lanean aritzeko aukera izan zuen. Abuztu hondarretik azaroa arte Grezian errefuxiatuen kanpamendu batean boluntario lanean aritu da. Bertatik itzultzean Granadan lan eskaintza bat egin zioten CSICetik eta orain bertan dabil teleskopioak eta sateliteak diseinatzen. Bere ibilbideaz eta, batez ere, *Brexit*az, aritu da TTIPI-TTAPAREKIN.

Zergatik erabaki zenuen Oxfordera joatea?

Madrilen optika eta optometria ikasi nuen eta ikasketak bukatu eta gero fisika arloan master bat egin nahi nuela erabaki nuen, zehatzago, optika eta fononika arloan. Kanpoan egin nahi nuen eta, ingeles maila altua behar nuen, Erresuma Batua hilabete batzuez joatea erabaki nuen. Oxforden *au pair* lanean urtebetez aritu nintzen eta lana ingeles ikasketekin uztartu nuen. Ingelesko azterketan nota ona atera nuen eta Es-



Brexitaren hastapenetan Erresuma Batuan zegoen beratarra.

koziako unibertsitate batean masterra egitea erabaki nuen. Glasgoven ia-ia hiru urtez bizitzen egon nintzen, urte bat masterra ikasten eta urte eta erdi enpresa batean ingeniari lanetan.

Zer da Brexit?

Brexit hitza laburdura bat da, *Britania* eta *exit* hitzekin sortutako kontzeptua. Honek Erresuma Batua Europar Batasunetik ateratzeari egiten dio erreferentzia. Duela urte gutti, 2016an, egin zuten bozketak eta Erresuma Batuak Europar Batasunetik ateratzeko interesa erakutsi zuen. 2016ko ekainaren 23an egin zen bozketak eta Erresuma Batuko biztanleen %28,1ek Europar Batasunean gelditu

eta bertze %51,8ak atera nahi zuen. 2019ko martxoaren 29an *Brexit*a gertatuko zela pentsatzen zuten eta hori luzatzen eta luzatzen joan zen adostasun ekonomiko batera ailegatu arte.

Zein izan dira Brexitaren ondorio nagusiak?

Egia erranda, niri *Brexit*ak ez dit zuzenean eragin. Justu Erresuma Batuan nintzen adostasun batera ailegatu ari ziren bitartean. Ni ingeniari optika lanean enpresa batean ari nintzen eta kontratu bat baldin baduzu, zuk zure bizi egiten segitzen ahal duzu. Oinarrian, ez da ia deus ere aldatu. Hori bai, gobernuaren aplikazio bat bete behar da, baina ez da batere zaila. Ber-

tan, zure eta gizarte segurantzako datuak eman behar dituzu.

Bertako biztanleek Brexitarekin aitzinera segitu nahi dute?

Nire ustez, jende anitzek pausou bat gibelerat egin nahiko luke *Brexit*aren auziarekin. Hasieran jendea ez zen hagitz kontziente eta gero ohartu ziren Europatik ateratzeak dituen ondorioez. Argi dago bertako makroekonomiak mundu mailan garrantzia galduko duela, baita Europa mailan ere. Galera hori, Europar Batasuneko herrialde guztiek nabaritu dute. Nik uste al daketa horiek antzematen lehenbizikoak elikagai industriakoak izan direla eta ez dakit hori kontuan hartu duten politikariek. Horren adibide garbia izan zen Eguberri bezperan Doverreko portuan sortu ziren kamioi ilara amai-gabeak. Hortaz, alde onak zein txarrak ditu eta ez dakigu nolakoa izanen den etorkizuna. Oraingoz, badirudi, berdintsu segitzen duela, baina nork daki etorkizunean zer gertatuko den.

Brexit eta ikasketak bateragarriak dira?

Nire kasuan bateragarriak izan dira. Hala ere, aipagarria da, hemendik aitzinera Erresuma Batuak ez duela *Erasmus* ikasketak programan parte hartuko. *Turing* programa propioa eskainiko du.

Brexitarekin Eskoziak independentzia errazago lor dezake?

Eskoziak Europar Batasunetik ateratzen bada Nicola Sturgeon lehen ministroak bertze erreferendum bat iragarri du. *Brexit*ak Eskoziako ekonomian ere eragin du, baita ziurgabetasun atmosfera nabaria ere. Horregatik, prozesu hau gibelatuz eta gibelatuz joan da. *Brexit*a ez da Eskoziako Parlamentuaren erabaki bat izan, Londreseko erabakia izan da. Eskoziarren %82 Europar Batasunetik ateratzeari kontra zegoen. Beraz, Eskoziak ez dago eroso eta mehatxatuta sentitzen da.



Eskolako seigarren mailako ikasleak, Nilsako begiralearen azalpenei adi.

Ingurumenarekin bat egin dute eskolako ikasleek

Nilsako bi begiralerekin ateraldia egin zuten martxoaren 2an eta hainbat ekintza landu zituzten

MAIDER PETRIRENA

Eskolako ikasleek Nilsako bi begiraleen eskutik hainbat ekintza egin zituzten martxoaren 2an, goiz osoan eta taldeka banatuta. Lehenbizi, erreka-ura analizatu zuten, produktu

kimikoak erabiliz. Gero, begiak itxita naturarekin bat egiten ahalegindu ziren, zuhaitz bat aukeratu eta honekin konektatuz. Azkenik, erlaxazio ariketa egin zuten, bortz zentzumenak kontuan hartuz.

Bide Berdea garbitu

Bidasoko Bide berdean, Doneztebe nahiz Igantzi aldera joaterakoan, erortzak izan dira azken aldi honetan eta garbiketa lanak egin behar izan dituzte.



Bide Berdea garbitua.

Itxialdiaren ondotik ostatuak irekitzen hasiak dira

Araudiak aldatu baino egun batzuk lehenago, bere terraza ederra aprobetxatuz, otsailaren 17an Fonda ostatua ireki zuten. Otsailaren 26an, beriz, Bustitz ostatuak ere atek ireki zituen. Ariztigain kanpina ere martxoaren 1etik aitzinera irekita dago.

Kaparrosen izan dira herriko txirriindulariak

Martxoaren 6an eta 7an BTT karreretan parte hartu dute herriko gazteek Kaparrosen. Gaztetxoek Nafarroako Kirol Jokuen bidez parte hartu dute. Aldiz, adin tarte batetik aitzinera, Rural Kutxak antolatutako txapelketaren barrenean sartzen dira.



UTZITAKO ARGAZKIA

Nahia Bertiz bikain pilotan

Nafarroako kirol jokoaren barrenean, banakako nesken alebin pilota txapelketan Nahia Bertiz Babaze herritarra parte hartzen ari da. Dagoeneko hiru partidu jokatu ditu eta bietan irabazle suertatu da. Malerrekako XIX. txapelketan finalera ailegatzea lortu zuen, baina ezin izan zuen txapela herrira ekarri.



URKO MITXELENA

103 basurdeko denboraldia

Joan den urteko abuztuan hasi zuten basurde ehizaren denboraldiari eta sei hilabete beranduago, otsailaren 28an bukaera eman diote. Guztira, 103 basurde ehizatu dituzte. Argazkian ikus daitekeen bezala, gazte kuadrila ederra ibili ehizaz gozatu duena hango eta hemengo mendietan.



ola
SAGAROTEGIA

www.olasagardotegia.eus
bisitatu gure online denda!

-  Bertako sagarrarekin egindako sagardoa - Euskal Sagardoa
-  Klimatizatua
-  Sagardotegiko menua
-  Eguerditan irekita
-  Aurtengo sagardo berria pitxerretan
-  Covid-aren aurkako neurriekin



SAGARDO BERRIAREN GARAIA
102 Meaka auzoa · 20304 IRUN · T.943 623 130



Ezkerretik hasita Natalia Arretxea, Izaro Altzuri, Joseba Garzia eta Eneritz Lanz.

«Bertze herrietan bezala plaza eta frontoia irekitzea nahi dugu»

ENERITZ LANZ, NATALIA ARRETXE, IZARO ALTZURI ETA JOSEBA GARZIA
SUNBILLAKO PLAZA ETA FRONTIOA IREKITZEAREN ALDE SORTU DUTEN LANTALDEKO KIDEAK

Udalak plaza eta frontoia ez irekitzea «zentzurik gabekoa eta lotsagarria» dela diote

G. PIKABEA

Sunbillako Udalak plaza eta frontoia itxita mantentzeko erabakiak haserrea sortu du zenbait herritarren artean, «bertze herrietan egin dutena Sunbillan ez egitea, tristea, zentzurik gabekoa eta lotsagarria» iruditzen zaielako. Lantaldea ere sortu dute, baita hainbat ate jo ere.

Sunbillako Udalak plaza eta frontoia ez ireki izana salatu duzue...

Iazko martxoan, Sunbillako Udalak, bertze herrietan bezala, herriko espazio publikoak itxi zituen, hau da, plaza, parkea eta frontoia. Normaltasun berrian sartu ginenean, gainerako herrietan egokitzen hasi ziren, baina hemen egoerak berdina segitu zuen. Irailean, ikasturtea hasi zenean, eskolak plaza erabiltzeko eta guraso elkarteak, urtero bezala, frontoiko bigarren solairua jangela gisa erabiltzeko eskaerak egin zituzten eta udalak baimena eman zien. Hiru entitateen elkarlanarekin

erabat ados gaude, baina aldi berean irekiera bermatzen ahal zela ikusi genuen eta urrian, udalari parkea zergatik zegoen itxita eta plaza eta frontoian zergatik ez zituen irekitzen galdu genion.

Zein harreman duzue udalarekin?

Azaroan udalarekin lehenbiziko bilera egin genuen eta parkearen garbitasuna bermatzeko hainbat proposamen adierazi genizkien. Eguneko sektORIZAZIOA eginda, arratsalde eta opor egunetan herritarrek plaza erabiltzeko eskaera ere egin genuen. Frontoiaren proposamenekin aitzinerago hasi ginen eta bertze herrietan bezala, ordua hartuta, frontoia kirola egiteko eskatu genuen. Kantxa bakarrik nahi dugu.

Zein izan zen udalaren erantzuna?

Eguberrietan parkea irekiko zutela erran ziguten, garbitasun neurriak bermatzen ahal zituztelako eta geroztik irekia dago. Baina plaza eta frontoiarekin araudia ezin zutela bete eta

itxita segituko zutela erran ziguten. Eskola eta guraso elkarrekin plaza eta frontoiaren erabilera hitzartua zutela eta bertze taldeei ez zirela irekiko aipatu ziguten, plaza irekiz gero, eskolako bi burbuila patiorik gabe geldituko liratekeelako.

Eta zer gertatu zen?

Ez ginen ados gelditu, plazaren eguneko sektORIZAZIOA bertze herrietan egiten delako, baita frontoiaren irekiera antolatua ere. Baina udalak ateak itxi zizkigun, etazerbait nahi bagenuen, epaitegira jotzeko erran zigun. Guk ez dugu saltsarik nahi, plaza eta frontoia herritar guztientzat irekitzea eskatzen dugu, beti ere, eskola eta jangela ordutik kanpo.

Plenoetara ere joan izan zarete...

Ateak itxi zizkigutenez, aukera bakarra plenoetara joatea izan da eta bi plenotan izan gara. Sinadura bilketa egitea erabaki genuen eta urtarrilaren 7an udaletxean aurkeztu genituen. Proposamena aztertuko zutela

eta gurekin, eskolarekin eta guraso elkartearekin bilduko zirela erran ziguten. Bilera egin genuen, baina espazio hauen kudeaketa udalaren esku dagoenez, berdina segitzen dugu. Otsaileko plenoan proposamen landuagoa aurkeztu nahi izan genuen; lehenasuna eskolak eta guraso elkarteak izanen luketela azpimarratu nahiguen eta frontoian ordutegia antolatzeko giza baliabiderik ez zutela errana zuten, herritar bat horretaz arduratzeko prest zegoela jakinarazi nahiguen. Baina ez ziguten plenoan so-lastatzen utzi.

Zein dira ondorioak?

Plazan ezin denez ibili, haurrak kotxeak ibiltzen diren tokietan aritzen dira jostetan eta eska-padaren bat edo bertze izan da. Frontoiaren kasuan, herritarrek bertze herrietako frontoietara joaten dira.

Zein giro sortu da herrian?

Badira irekitzearen alde eta kontra daudenak. Baina orain arte egin ditugun bi ekintzetan babesa hartu dugu eta guretzat arrunt garrantzitsua da. Herri tiki batean hamar eguneko herri-tarren 181 sinadura biltzea handia izan zen eta otsailaren 19ko kazeroladan jendeak arrunt ongi erantzun zuen. Hagitz kontent gaude eta elkartasuna mantentzea nahi genuke, prozesu luzea eta zaila izaten ari baita guretzat.

Zein asmo dituzue?

Arartekoaren erantzunaren esperoan gaude. Udala ez dela legez kanpoko deus egiten ari erran izan digu, espazio publikoan kudeaketa bere esku dagoelako. Baina Arartekoaren erantzunak indarra eman diezaguke. Guk ere ez dugu legez kanpoko deus eskatzen. Erraza eta bideragarria da, baina udalak ez du irekitzeko borondate-rik. Hagitz egoera desatsegina da, tristea, lotsagarria eta zentzurik gabekoa.

Egoera noiz arte luza daiteke?

Udan, eskola akitzean, plaza irekiko dute, baina frontoia pandemia akitu arte itxita egonen dela errana dute.

Bakarrizketa eta kontzertuak martxoan

2019an jaio ziren haurren zuhaitz landaketa egingen dute martxoaren 14an Bordablancan

MARGA ERDOZAIN

Martxoko kultur agenda beteta dute herrian. Lehenbiziko asteburuan 2019an jaio-tako haurren landaketa eta *Bi ero diskotekan* antzerkia izan zituzten.

Ekitaldiok ortziralean, martxoaren 12an, izanen dute segida. 19:30ean hasita, Irantzu Varelaren *No hay matriarcado ni en el supermercado* bakarrizketa saioa izanen dute. Guztira 70 lagunendako toki izanen da eta gonbidapena lortzeko 641 58 99 08 telefonora deitu behar da.

Igandean, martxoaren 14an, 2020an jaio diren haurren zuhaitz landaketa izanen da Bordablancan. 10:30ean dute hitzordua. Hilabeteko azken asteburuan belarriak goxatzeko modua izanen dute. Martxoaren 26an Mendi Abes-



Irantzu Varela.

batzak kontzertua emanen du elizan, 20:00etan. Eta larunbatean, martxoaren 27an, Pleura taldeak *Bakarrizketa* diskoa aurkeztuko du zinemaren. 19:30ean hasiko dute kontzertua eta joan nahi dutenek gonbidapena lortzeko 641 58 99 08 telefonora deitu behar dute (70 lagunendako toki izanen da).



ERREKA

Errekak txirrindulariendako arropa prest

Erreka Kirol Elkarteak txirrindulariendako arropa egiteko asmoa iragarria zuen eta interesa zutenei izena emateko deia eginga zien. Otsail hondarrean jaso zuten eta kiroldegian jaso daitekeela jakinarazi dute. Bada dagoeneko soinean daramanik ere.



Ortuosteri azken sei urteetan alkate izan den Utergak pasatu dio lekukoa.

«Donezteberen erronka nagusia dituen zerbitzu publiko guztiak mantentzea da»

Hurrengo bi urteetan Doneztebeko alkatea izanen da Leire Ortuoste Gartzia (Doneztebe, 1978). Erabakia «taldean adostutakoa» izan da eta kargua «ilusio handiz» hartu duela adierazi du doneztebarrak. Bi urte hauetan, bere egiteko nagusia «udalaren egunerokotasunean dauden arazoak eta eginbeharrak aitzinera ateratzea» izanen da, «herriko behar nagusiak identifikatu eta konponbide proposena bilatzea». Ortuoste ez da bakarrik egonen, «momentuko erabaki zehatzak nik hartuko ditut baina erabaki konplexuak taldean hartuko ditugu». Izan ere, «beti talde-lanean aritzen» direla azpimarratu du.

Agintaldi honetan, Doneztebeko Udal Taldea bederatzik lagunek osatzen dute, eta horietatik zazpi Leire Ortuosteren taldekoak dira (EH Bildu). Aitzineko agintaldian, «emakumeen eta gizonezkoen arteko parekidetasuna lortu» zuten talde barnean. Oraingo honetan, berriz, «bi emakume eta bartz gizonezko» izanen dira.

Bi urteko agintaldia «Covid-19ak baldintzatuta» izanen da, eta honek bertze urteetan berez udalek aurre egin behar dieten erronkei bertze batzuk gehitzen dizkie «ostalaritzako terrazen garbitasuna, segurtasun neurriak eta herriko parke zein instalazioen kudeaketa». Hala ere, udal taldeak ez ditu «bistatik galdu nahi aitzineko urteetan egindako planen jarraipena, trafikoaren ordenantza nabarmenduz».

Herrian dauden beharren inguruan, Ortuosteren iritziz «beti bada zer hobetu». Doneztebe herriaren erronka nagusia «hain herri txikia izanda, dituen zerbitzu publiko guztiak mantentzea izanen da eta epe ez hagitz luzera gai honi buelta bat eman beharko» zaiola gaineratu du. Bertalde, Doneztebe «herritarrek harro sentitzen diren lekua» bilakatu nahi duela argudiatu du, «denen artean, denen onerako».

Azken erabakiei eta ordenantzei dagokionez, ikastetxeko jolastokiari estalpea paratzeko erabakiarekin aitzinera doaz, laster «hitzarmena sinatuko dugu eta hurrengo ikasturterako eginga egonen» dela iragarri du. «Martxan dagoen» bertze proiektua herrigune historikoa zaharbertzea da, «herritarrek eskaerak eginak dituzte». Honekin batera, «udaletxea zaharbertzeko partida txiki bat utzi dugu».

«Inolako ziurtasunik gabe abiatu dugu aurten sagardotegi denboraldia»

JESUS ANGEL GARCIA ETA JUAN MARI LOPEZ LARRALDEA ETA LINDDURRENBORDA

Lekarozko Larraldean eta Lesakako Linddurrenbordan itxaropen handiegirik gabe irekiko dituzte atek, azken urteetan baino sagardo guttiago kupeleratuta

AITOR AROTZENA

Aurten ez da txotx denboraldiaren ohiko irekiera ospakizun egiterik izan, baina Nafarroako sagardotegiek otsaileko hondarreko asteburuan ireki zituzten atek. Bertzelako ostatueta eta jate-txeetan bezala, barreneko aldean %30eko edukiera dute lehenbiziko aste hauetan berderen. Lekarozko Larraldea sagardotegiko Jesus Angel Garciarekin eta Lesakako Linddurrenbordako Juan Mari Lopezekin izan gara.

Lekarozko Larraldean ia 20.000 litro kupeleratuak

Larraldeko Jesus Angel Garcia aipatu digunez, «gure sagardotegiaren kasuan, barreneko aldean %30eko edukiera baimendua izateak 40 bat bezero sartu ahal izatea erran nahi du. Kanpoko aldean ere badiugu mahai batzuk, baina oraindik hotz egiten du kanpoan zerbitzatu ahal izateko, hau ez da Valentzia!». Joan den urtean, txotx denboraldia hasi eta agudo itxi behar izan zituzten atek. Garcia aipatu digunez, «egia da gure salmentaren %80 edo %90 botilatan egiten dugula, eta lan hori egin genuen iaz ere, baina sagardotegian eragin zigan, noski: ez genuen bestarik izan, ez Aste Santurik, ezta sanferminik ere... Botilak ere urte normal batean baino aunitzez guttiago saldu genituen, dudarik gabe. Alde guztietan eta



Jesus Angel Garcia, txuleta ateratzen Lekarozko Larraldean. JUAN MARI ONDIKOL

arlu guztietan bezala, gurean ere eragin zuen koronabirusak».

Aurten 20.000 litro sagardo inguru egin eta kupeleratu dituzte, «azken urteetan baino gutxiago. Bertako gure sagarrekin egin dugu zati bat eta bertzea Nafarroa Beheretik, Izpuratik, bertako sagarra era ekologikoan landua». Etorkizunari begira, «segurtasun gabezia» azpimarratu du Garcia: «duela hilabete bat, ireki behar genuenean eman zuten ostalaritza ixteko agindua, orain %30eko mugarekin ireki dezakegu eta gero, ez dakigu hemendik hilabete batera berriz itxi beharko dugun, muga gehiago ezarriko dituzten... Hilabete beran-

duago hasi garenez, ondotik denboraldia pixka bat luzatzea espero dugu, baina ikusi beharko! Bakoitzak ahal duguna edo uzten digutena egin beharko dugu! Lehenbiziko asteburuetan, adibidez, Nafarroako bezeroak bakarrik izaten ahal genituen, ea mugak irekitzen dizkiguten, Iparraldetik eta Gipuzkoatik ere bezeroak izaten baititugu, hemengoak Gipuzkoara joaten diren bezalaxe».

«UZTEN DIGUTENA EGIN BEHARKO DUGU, AHAL DENA»

JESUS ANGEL GARCIA, LARRALDEA

Lesakako Linddurrenbordan 12.000 litro

Lesakako Linddurrenbordan 12.000 litro sartu dituzte kupelean, «azken urteetako erdia baino guttiago». Otsail hondarreko asteburuko denboraldi honetako berririkiera izan da Linddurrenbordan. «Lesakan San Anton eguna handia izaten da eta asteburu horretan eta astebete lehena-gotik, Errege egunaren ondortik ireki genuen. Gero etorri zen itxiera», aipatu digu Juan Mari Lopezek. Joan den urtean baino dexente litro litro gutxiago kupeleratu dituzte Linddurrenbordan ere, Lopezek aipatu digunez: «Dozena bat mila litro inguru egin dugu, azken urteetan baino erdia baino gutxiago. Joan den urtekoa saldu gabe gelditu zitzaigun asko, bai kupeletik, baita botilan ere gutxiago saldu genuen eta aurtengo txotx denboraldirako ere ez genuen esperantza handirik sagardoa egin genuen garaian. Gainera, gure inguruan ez dugu sagar askorik izan aurten. Guk sagarra dena kanpotik ekarri dugu aurten, Donibane Lohizune ondortik, Izpuratik». %30eko edukieran Linddurrenbordan 40 bat lagun sartzen dira, «ezer ere ez da tokatzen» dio Lopezek, eta kanpoko aldean, terrazan ere mahai dexente antolatu badiutuzte ere, oraindik ez dagoela horretarako girorik uste du Linddurrenbordakoak: «Hau haize lekua da eta asteburuan freskatzera emana dute. Egurraldi ederrarekin bai. Orain, norbaitek esaten badigu, euririk ez dela eta berokia ongi lotu eta kanpoan nahi duela, guk emango diogu, problemarik gabe, baina gainerakoan barrenean beharko du!». Sagardotegi denboraldian ez ezik, berez, urte osoan irekia izaten dute Linddurrenborda, «baina urte berezi honetan, ikusi beharko dugu zer egiten uzten diguten, igual hemendik bi hilabetera berriz ere itxi beharra daukagu».



Herritarren laguntza eskertu du Jon Altuna suhiltzaile boluntarioak.

«Kristoren inpotentzia sentitu genuen, itzali nahi eta ezin deus egin»

JON ALTUNA

BERAKO SUHILTZAILEA

«Bertze sute batzuk itzaltzen ibilia naiz, baina sekula ez hedadura honetako sute batean». Horrela mintzo da duela bi urtetik suhiltzaile lanetan dabilen Jon Altuna Ansola beratarra. «Sutea piztu zen larunbatean praktikak genituen, eta 10:00 inguruan

Ibardin aldean genbiltzan depositu bat ikuskatzen». Praktika lanetan zebiltzanean «SOSetik mezu» bat jaso zuten, eta «mezua jaso bezala kea ikusi genuen». Altunak argi adierazi du «orduan ez genekien zer heldu zitzaigun gainera». Hasieran, goizean zazpi lagun baziren ere, eguerdirako bertze lau gehitu zitzaiz-

kien. Suhiltzaile beratarrek azaldu duenez «suarentzako egoera bikaina zen». «Hezetasun gutxi, oteak zein larrak, lekuaren irisgarritasun eza» eta honi «haize handia» gehituta, hondamendiaren hasiera izan zen. Haizearen ondorioz, hegazkin eta helikopteroek ezin izan zuten aieratu eta horrela, suak hedadura handia hartu zuen denbora gutian.

Asteburu luze eta gogorra

Asteburukoa jardun luze eta gogorra izan zen. Larunbatean «egun osoan» aritu zirela aipatu du Altunak «gaueko hamarretan suhiltzaile batzuk etxera joan ziren igande goizerako deskantsatzera». Bertze batzuk berriz, «goizeko hirurak arte aritu ginen Lesakako Eskolamendi aldean». Etxera deskantsatzera joan baziren ere, «igandean goizeko bederatzietarako» berriz

ere Lesaka aldera joan zirela adierazi du.

Kalteei dagokionez, Jon Altuna beratarren iritiz mendi eta larreez gain «animalia aunitz erre dira, baita zuhaitz landaketak ere». Orain, «udalak erabaki beharko du hemendik aitzinera zer egin beharko den». Azkenik, sua itzaltzen herritarren aldetik «laguntza handia» jaso dutela azpimarratu nahi izan du gazte beratarrek «palekin eta sua jotzekoekin».

Esker solasak

Horretaz gain, herriko hainbat gazte «4x4 ibilgailuekin laguntzeko prest» azaldu direla gaineratu du. Altunak sute honetan «laguntza guztia guti» izan dela adierazi badu ere, eskerrak eman nahi izan dizkie «asteburu honetan itzaltze lanetan lagundu duten profesional, boluntario eta herritar guztiei».



MENDAUR
PENTSUAK

Mourges, 20 Nabe 1 | DONEZTEBE | T. 948 45 18 45

AGROVECO, AFFINITY, ARPPE markako pentsuak eta produktuak

Pentsuak, haziak, mineralak, ardoak, kontserbak, oilaskoak eta oiloak, baratzeko fitosanitarioak, fruta-arbolak... Erremintak, baserriko lanabesak, oinetakoak...



25
urte

Malerrekako eta inguruko baserritarrek eskuz esku elkarlanean.

Mila esker zuen konfiantzagatik!



Oinarrizko gaitasun digitalei buruzko ikastaroa Ezkurran

Guztira 25 orduko ikastaroa izanen da eta udaletxean elkartuko dira 09:00etatik 14:00etara

TTIPI-TTAPA

Nafar Lansarek antolatuta, oinarrizko gaitasun digitalei buruzko ikastaroa izanen dute martxoaren 22tik 26ra, aste-lehenetik ostiralera, Ezkurran. Guztira 25 orduko ikastaroa izanen da eta goizez, 09:00etatik 14:00etara, elkartuko dira Ezkurran udaletxean.

Edukiak

Ikastaroan gehienez ere 12 lagunek parte hartu ahal izanen dute eta, besteak beste, administrazio publikoetako on-line tramiteak segurtasunez egiteko eta bideodeiak egiteko plataformak erabiltzeko beharrezko gaitasunak garatuko dituzte.

Horretarako, sei modulutan banatutako ikastaroa jasoko dute: lehenbizikoan Windows eta Androiden ezarpenak lan-

duko dituzte; bigarrenean, Internet nabigazioa eta fitxategi motak; hirugarrenean Zoom plataforma; laugarrenean posta elektronikoa eta Googlaren kontaktuen agenda; bosgarrenean Google Drive; eta azkenekoan ikastaro bukaerako lana egingen dute.

Izen-ematea

Ikastaroan parte hartzeko baldintza bakarrak Nafar Lansaren izena emana egotea (langabezian egon zein ez) eta gazteleraz solas egin, irakurri eta idazteko gaitasuna izatea dira. Eta, bereziki, gaitasun digital eskasak ditzutenei bideratua da. Izena eman nahi dutenek Nafar Lansareren webgunean dagoen izen-emate orria betetz egin ahal izanen dute.

Iturengo hartza eta artzaina Living Kultur proiektuan

Iturengo hartza eta artzaina Nafarroako ondare immaterialalari buruzko Living Kultur izeneko proiektuan parte hartzeko, Baluarten grabaketak egiten aritu dira. Geografikoki eta gai aldetik anitza eta aberatsa izanen den proiektuan herriko inauteriak erakusteko helburuz jaso zuten parte hartzeko gonbidapena eta, hori onartuta, herriarrak martxoaren 1ean joan ziren grabaketetara. Ondotik, guztia bilduz, web orrialde bat eta liburu-museo bat eratu nahi dute.

Berdintasun horma-irudian lantzen Iturengo eskolan

Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira, Iturengo eskolako ikasle eta irakasleek horma-irudi erraldoi bat egiteko asmoa adierazia zuten. Horretarako, emakumezko eta gizonezkoen irudi parekideak bilatu eta hurrei etxetik ekartzeko deia egina zieten. Argazki horiei ondotik berdintasuna aldarrikatzeko mezutxoak gehitu nahi zizkieten. Lerro hauek idazterako orduan, gaia lantzen ari zirenez, hurrengo zenbakian ikusiko dugu lanketaren emaitza.



Lehendabiziko bideoa dagoeneko sarean dago ikusgai. KATUBI

Euskara Zerbitzuak Kultur Zarea egitasmoa abiatu du

TTIPI-TTAPA

Malerrekako Euskara Zerbitzuak, Doneztebeko liburutegi publikoarekin eta Katubi ikus-entzunezkoak eta komunikazio artisauarekin lankidetzan, Kultur Zarea ekimena abiatu zuen otsailaren 25ean, hilabeteko hondarreko ortzegunear.

Euskal kultura sustatzea helburu

Egitasmo horren helburua euskal kulturari garrantzia eta ikusgarritasuna ematea da eta horretarako ikus-entzunezkoak zabalduko dituzte Bortzirietako eta Malerrekako Euskara Zerbitzuen Youtube kanalaren bidez. Azaldu dutenez, aurtenguztira bortz bideo landuko dituzte eta horien bidez Doneztebeko liburutegi publikoko zerbitzuen nondik norakoak

azalduko dituzte. Horrez gain, ondorengo bideoetan haur, gazte eta helduendako aholkuak emanen dituztela iragarri dute.

Lehendabiziko bideoa dagoeneko ikusgai

Lehendabiziko bideoan Marga Erdozainek, liburutegiko langileak, ikus-entzunezkoak maileguan hartzeko prozesua eta EFILM plataformaren bidez streaming bidez ikusteko azalpenak eman zituen.

Horrekin batera, Doneztebeko liburutegiko erabiltzaileek euskarazko ikus-entzunezkoetan «aukera zabala» dutela eta guztira 1.000 haur zein helduendako DVD, dokumental eta pelikula baino gehiago daudela nabarmendu zuen. Otsailaren 25az geroztik, bideoa Youtube kanalean dago ikusgai.

Errigorako produktuak eskuragarri

Martxoaren 4an abiatu zen olio eta kontserben Errigora kanpaina indarrean dago. Hori horrela, herriarrek Iker edo Alix iturendarrekin harremanetan jarriz edo Internet bidez egin ditzakete eskaerak eta, ondotik, Donezteben jasotzeko aukera izanen dute.

Iturengo bertso saioak eskola zaharrean dira orain

Eskola zaharrari erabilera berria emanen diete Iturenen. Izan ere, hutsik gelditu denez, martxotik aitzinera Bertsozale Elkarteak ematen dituen bertso eskolak herrian ematea erabaki zuten. Bertsozaleak Iker Gorosterrazurekin biltzen dira.



Urtebeteko kontratua eskaini dute, lau urtez luzagarria izanen dena.

Ostatua errentan emateko deialdia egin du udalak

Proposamenak martxoaren 18ra arte aurkez daitezke udaletxean bertan

TTIPI-TTAPA

Oizko Udalak ostatua errentan emateko deialdia egin du. Hasiara batean, urtebeterako kontratua eskaini du, baina lau urtez luzagarria izanen da. Ostatuaren ardura bere gain hartzen duen maizterrak hilabetean 200 euro gehi BEZ ordaindu beharko dizkio udalari. Bigarren urtean ordaindu beharreko zenbateko hori 300 euro gehi BEZ izanen da eta hirugarrenetik aurrera errenta Nafarroako Kontsumo Prezioen Indizearen arabera goitituko da. Horrez gain, ostatuaren errenta esleitu zaionak 1.200 euroko

fidantza ordaindu beharko du. Proposamenak gutunazal zuri baten barnean aurkeztu beharko dira, eta, era berean, gutunazal horren barnean bertze hiru egon beharko dira: batean zinpeko aitortpena eta jakinarazpenak jasotzeko email helbide bat; bertzean, eskaintzaren deskribapena, ostatuaren erabilera eta mantentzeari lotutako xehetasunak; eta hirugarrenean, eskaintza ekonomikoa bildu beharko dira (xehetasunak www.oitz.org atarian). Dokumentuok martxoaren 18an 14:00 arte aurkeztu ahal izanen dira, udaletxean bertan.

Errotak 1.585 bisitari gutxiago izan ditu 2020an

FERMIN ETXEKOLONEA

2019an 2.468 bisitari izan zituen Zubietako errotak. 2020an berriz, 883 bisitari izan zituen, hau da, bisitakopuruan %64,22 jaitsiera izan du errotak. Errotazainak, Edorta Amuruak, adierazi duenez, «beherakada nabarmena izan da, batez ere udaberri eta udazkeneko eskola talde guztiak bertan behera geratu zirelako». Bisitari kopuruari dagokionez, uda «nahiko ongi» joan zen arren, «beste urteetako zifretatik urruti» ibili direla onartu du.

Aurten ere, lehenbiziko hiruhilekoan «Nafarroatik da-



Zubietako errota.

tozen talde txikiak» bakarrik izan dituzte.

Hala ere, Amuruak nabarmendu duenez, arto jotzeari dagokienez, «urtero bezalako kopurua» izan dutela argitu du: «eskualde guztitik etorri dira irina gitiera».



UTZITAKOA

Aitor Agesta txapelidun

Aitor Agesta zubietarrak –ezkerretik hasita bigarrena–, Beñat Apezetxea goizuetarrarekin bikote ostatuta, Malerrekako XIX. Pilota Txapelketa irabazi du. Final handia otsailaren 20an jokatu zuten eta Oberenako Sanchez eta Garcieren aurka 22-14 nagusitu zen bikotea.



Elizagibela Promociones S.L.

ETXEBIZITZA PROMOZIOA
18 ETXEBIZITZA 8 LOKAL

www.elizagibelapromociones.com
elizagibelapromociones@gmail.com
T. 643 466 998



• 2, 3 eta 4 logeletako etxebizitzak trasteroarekin Doneztebeko Elizagibela kalean.

• Lokal komertzialak.

Masajeak hartzeko zerbitzua izanen da Donezteben

Martxoan abiatzekoa dute eta eskaria badago masaje-emailea bertze herrietara joateko prest legoke

PABLO IRASTORTZA

Elkartek, profesional batekin elkarlanean, bazkideei gorputz-masajeak hartzeko zerbitzua martxan paratzekoa du Donezteben.

Herrian bertan ere bai

Norbaitek eskualdeko bertze herriren batean hartu nahiko balu (gertutasunagatik edo bertze arrazoiren batenagatik) eta interesatu kopuru minimoa egonen balitz, masaje-emailea bertara mugitzeko aukera izanen litzatekeela adierazi dute.

Martxoan abiatuko dute

Zerbitzua martxoan bertan abiatzeko asmoa duten arren, lerro hauek idazterako orduan aretoa, kopuruak, ordutegiak... zehazteke zituzten eta hori egin bezain laster hasiko zirela adierazia zuten.

Informazio gehiago

Elkarteko kideek informazioa jasotzeko edo horri buruzko zalantzak argitzeko 948 45 08 78 edo 618 56 78 37 telefonora dei egin dezakete, goizez, 09:00etatik 13:00etara.



Mendizaleek goiz-pasa ederra egin zuten.

Legate ezagutzeko aukera izan dute otsailean

PABLO IRASTORTZA

Urteko lehenbiziko itzulian Beintza-Labaienen ibili ondotik, mendizaleek otsailaren 16an Legate mendia ezagutzeko aukera izan zuten. Goizean, 09:00etan, Lekarozko plazan bilduta, 31 lagun mendirantz abiatu ziren. Lezabeko zubitik Legateko kaskora

jo zuten eta Beltzuriko lepoan, Iñartetan, Burkandan eta Irulegiko zubian barrena egin zuten buelta. Arizkungo Juanjo eta Axunen gidaritzapean lau ordu eta erdiko ibilbide atsegina osatu zuten. Ibilbidean parte hartu zuten goiz-pasa eder horrengatik eskerrak eman nahi izan dizkiete.



PABLO IRASTORTZA

Otsaileko sorta Erratzura

Urte hasieran elkarteak abiatutako lehiaketa erantzun ona izaten ari da. Otsailean hogeitabortz lagunetik goitik erantzun zioten ongi elkarteak egindako galderari eta horien artean zozketa egin ondotik, Erratzuko Ana Maria Arrosamenarentzat izan da produktu sorta. Zorionak Anamari!

Martxoko galdera

Nor da Frantziako Tourra irabazi duen Nafarroako txirindulari ohia? Izena eta bi abizenak zehaztu behar dira eta erantzuna 618 56 78 37 telefonora bidali behar da Whatsapp bidez.

Urteko lehenbiziko bilkura egin du Zuzendaritza Batzordeak

PABLO IRASTORTZA

Otsailaren 15ean urteko lehenbiziko bilkura egin zuen Zuzendaritza Batzordeak. Osasun egoera berezia izanagatik, elkarteak martxan segitzen duenez gero, hainbat gai lantzeko baliatu zuten bilkura.

Diru murrizketak

Solasgaien artean, berri mi-katz bat izan zuten elkarteko kideek. Izan ere, lehendakariak aurten Nafarroako Kutxa Fundazioak elkarteari ematen dion laguntza (iaz 11.180 euro) ez duela izanen adierazi zuen. Fundazioaren arabera, gizarte eta ekonomia alorrean dagoen egoeraren ondorioa izan da laguntza ukatzea.

Laguntzak murrizteak zuzenean eraginen du elkarteko bazkideengan. Zehazki,

aurten ez da ikastaro, kirol eta bertze jardueretarako elkarteak ematen zuen dirulaguntza bera izanen. Gerrikoa estututzearen ondorioz, parte-hartzaileentzat kostuek goiti egingen dute.

Informatika ikastaroa

Gorabeherak gorabehera, elkarteak ikastaroak antolatzen segitzen du. Berriki, bazkideentzako informatika ikastaroa antolatu dute. Elizondoko Arizkunenea Kultur Etxean emanen dira saioak astearte eta ortzegunetan 16:00etatik 18:00etara martxo erdialdetik aitzinera.

Lerro hauek idazterako orduan bizpahiru lagunentzat lekua zegoenez, interesdunei Doneztebeko bulegoko telefono zenbakira deitzeko jakinarazia ziren elkarteak.

Lurraren Txokoa martxan jarriko dute

Proiektuaren helburua ekoizle eta kontsumitzaileentzat elkartrukerako gunea izatea da

TTIPI-TTAPA

Bertakoa salduz eta erosiz, herria josi. Helburu horrekin sortu du Aresoko kontsumo arduratsuen aldeko taldeak Lurraren Txokoa. Taldekideek azaldu dutenez, Lurraren Txokoa izenekoa Sastinea tabernan jarriko duten gunea bat izango da: «bertan aresoarrek saldu nahi dituzten produktuen edota eskaintzen dituzten zerbitzuen iragarkiak jarri ahal izango dituzte». Elkartrukerako gunea izango da ekoizle eta kontsumitzaileentzat. Edonork parte har dezake eta eskaintzak



Edonorentzat irekia da Lurraren Txokoa.

egiteko edo erabilpenari buruzko edozein zalantza izanez gero, Lourdes, Geno edo Trinirekin hitz egin daiteke. Parte hartzeko hainbat arrazoi eman nahi izan dituzte: «ber-

Zerbitzu anitzetarako langilea lanean

Udalak jakinarazi du zerbitzu anitzetarako langile ordezkoa martxoan hasi dela lanean. Otsail hondarrean izan ziren probak eta lan poltsa osatuta gelditu da. Zazpi pertsona aurkeztu ziren eta seik gaituzten probak. Landaketa lanak ere hasi dituzte Merkun.

Bestalde, mankomunitatetik gogorarazi dute hondakin organikoak konpost ontzira poltsa eta organikoa ez den beste hondakinik gabe bota behar direla, hauek prozesua oztopatzen dute eta.

tako produktuak kontsumitzeak herria aberastu eta bizirik mantentzen laguntzen du, ingurugiroarentzat mesedegarria da eta lanpostuak sortzen dira». Gainera gure larre eta soroek

Panpanoziri aldizkaria osatzen hasiak dira

Bi urtetik behin argitaratzen den Panpanoziri herriko aldizkaria osatzen hasiak dira. Martxo erdialdean egiteko dute hurrengo bilera eta norbaitek parte hartu nahiko balu taldekideei jakinaraztea nahikoa litzateke.

Bestalde, orain arte egin den bezala, argazkiak utziz, elkarriketaren parte hartuz, garai bateko istorioak kontatuz... Herritarrei parte hartzeko deia luzatu nahi izan diete. 2011tik argitaratu diren orain artekoak www.iparmank.eus webgunean daude.

eskaintzen dizkiguten produktuen kalitatea eta hurbilekoak ematen duen bermea azpimarratu nahi izan dute, «eskura dugu, denon mesederako da eta aukera baliatu dezagun».

Emakumea behar zuen izan



Gobierno de Navarra  Nafarroako Gobernua



Instituto Navarro para la Igualdad



Nafarroako Berdintasunerako Institutua

25 Astea - 2023

Aste honetako ekintzek borobilduko dute ziklo feminista

Ostegunean 'Cholitas' dokumentala ikusteko aukera izanen da eta larunbatean yoga erlaxazio saioa antolatu dute

JUAN MARI BARRIOLA

Emakumeen Nazioarteko Egunaren bueltan, martxoaren 4az geroztik, ziklo feminista bete-betean sartua da herria. Emakume Asanbladak, Sastarak Leitzako Feministak, Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak eta udalak antolatuta hainbat hitzordu antolatu dituzte.

Joan den astean egitekoak ziren horietako asko, baina aste honetan ere jarraipena izanen dute ekitaldiek. Herri Aretoko erakusleioan, esaterako, herriko emakumeen argazki zaharrekin eta Ane Intxaustiren bertsoekin hornitua *Geroa ereiten* murala jarria dute eta martxoaren 14ra arte ikusteko aukera izanen da. Geroztik, Aroa Uharte herritarrek euskaratutako *Erle langileen amodioak* liburuaren aurkezpena [elkarrizketa 8. orrialdean], *Erradikalak ginen* ikuskizuna, irratsaio-poteo feminista, *Sugarren mende* liburuaren aurkezpena eta *Dena aldatuz sistema arrakalatu* lelopean elkarretaratzea egitekoak zituzten.

'Cholitas' dokumentala

Ostegun honetako eta larunbateko hitzorduek itxiko dute aurtengo ziklo feminista. Ostegunean, martxoaren 11n, *Cholitas* dokumentala ikusteko aukera izanen da, 18:30ean Herri Aretuan. Sarrerak Astiz eta Maimurren eskura daitezke, borondatearen truke.

Erlaxazio saioa

Larunbatean, hilaren 13an, *Gorputzetik plazerera* yoga erlaxazio saioa antolatu dute.

11:00etan. Tokia parte-hartzaile kopuruaren arabera zehaztuko dute eta izena kiroldegian edo *sastrakak@gmail.com* helbidera idatzita eman daiteke.

Horretaz gain, morez janzteko deia egingo dute eta balkoietan banderolak jartzeko mezua ere luzatu dute. Banderolak bi liburu-dendetan eskura daitezke, borondatearen truke.

Kultur hitzordu gehiago

Ziklo feminista bukatuta, beselako kultur ekitaldiek izanen dute segida. Larunbat honetan, martxoaren 13an, Pleura taldeak *Bakarrilketa* azken lana aurkezteko aurreneko kontzertua emanen du Herri Aretuan, 19:00etan. Udalak antolatutako kontzertura joateko sarrerak bi liburu-dendetan daude, bost eurotan.

Martxoaren 19an eta 21ean, berriz, *Elfkinak* haurrentzako filma ikusteko aukera izanen da, 17:00etan. Udaletik adierazi dutenez, martxoaren 12tik aurrera jarriko dituzte sarrerak salgai bi liburu-dendetan. Bost eurotan izanen dira, baina guraso elkarteok lau euro ordaindu beharko dituzte.

Martxoaren 20an, bestalde, udalak antolatuta, Zumiriki dokumentala ikusteko aukera izanen da, 18:00etan eta 20:00etan, Herri Aretuan. Sarrerak bost eurotan martxoaren 12an jarriko dituzte salgai liburu-dendetan.

Martxoaren 27an, Atekabeltz Herriguneak antolatuta, Unai Pelayo *Pelaxen* Burrendaria musika instrumentalaren kontzertua ere izanen da.



Otsailaren 27an urteko batzarra egin zuen Leitzeko kontsumo taldeak.

Kontsumo taldeak aurtengo asmoen berri eman du

JUAN MARI BARRIOLA

Urteko egitasmoei begira jarri da Leitzeko kontsumo taldea. Otsailaren 27an urteroko batzarra egin zuen eta 2020ko diru kontuak ikusi, egindako lan eta ekintzen laburpena zerrendatu eta ekintza nagusien balorazioa egin zuten. Urte berezia izan arren, uste baino probetxu gehiago ateratu diote egoerari, salmenta zuzena eta bertako ekoizleak babesteko Baserritik Etxera ekimenari esker lau saio arrakastatsu egin zituzten pandemiaren bete-betean. Horrez gain, zenbait larunbatetan bertako ekoizleen azoka egin zen, Jakoba Errekondorekin saio berezia egin zuten eta azaroko azokak, neurri bereziekin baina beti bezain harrera ona izan zuen.

Batzarraren bigarren partean momentu honetan martxan

dituzten lan-ildoak aztertu zituzten eta bereziki aritu ziren komunikazioari buruz: web orria, sare sozialak eta bazkietza sarea nola indartu.

Bestalde, herriko dinamika eta ekintza komunitarioetan parte-hartze zuzena izaten jarraitu nahi dute: udalean, Errigoran, Kikili Saldan, Atakabeltz herrigunean eta bereziki Bertatik Bertara dinamikan.

Aurten landu nahi dituzten proposamenak ere hizpide izan zituzten: Mimukai udal proiektu parte-hartzailea, eskualdeko Azoka Ibiltaria, komunitate energetikoaren inguruko informazioa eta sentibilizazio proiektua, teknologia burujabetzari buruzko informazioa.

Saioari bukaera emateko Bertatik Bertara dinamikari heldu zioten, aurtengo azokaren programazioa osatzeko.

Kaxkabeltzako poltsa eramanez zozketak

Martxoaren 31ra bitarte Kaxkabeltza elkarteak denda eta zerbitzuetan egiten diren erosketetan elkarteak poltsa erabiltzen dutenen artean, 30 euroko hamar erosketa-txartel zozketatuko dituzte. Zozketa apirilaren 1ean egingen dute Karrape irratan.

Turismoari buruzko ikastaroak Leitzan eta Lekunberrin

Cederna Garalur Elkarteak eta Plazaola Patzuergo Turistikoak antolatuta, oinarriko marketin ikastaroa, turismoari bideratutako frantses ikastaroa eta gai fiskalei buruzko prestakuntza saioak izanen dira doan Leitzan eta Lekunberrin. Informazioa: 848 42 45 00 edo 948 45 03 09.

Mimukai zentroa sortzeko bidea abiatu du udalak

Herritarren ekarpenak biltzeko zortzi saioko parte-hartze prozesua abiatu dute eta dagoeneko bi egin dituzte

TTIPI-TTAPA

Mimukai Garapenerako eta Eraldaketarako Zentroa itxura hartzen hasia da. Are gehiago, udalaren proiektuak dagoeneko bidea abiatu du eta Mikel Zabaleta alkatearen hitzetan, «hasiera oso txukuna» izan du.

Azaldu duenez, «topaguneak sortuz eta elkarlanak bultzatuz, Larraun-Leitzaldeko tokiko ekonomia garatzea da proiektuaren muina», eta Leitzan kokatu arren, eskualde osora begira ari dira lanean. «Txikiak gara, geografikoki gertu baina askotan urrun gaude eta mundu globalizatu honetan gero eta mehatxu eta oztopo gehiago daudenez, horiei aurre egiteko hemengo sareak indartzea eta elkarrekin lan egitea beharrezkoa da».

Bide horretan, «eskualdeko elikagaien transformazioa eta komertzializazioa erraztea; lehen sektorean enpresak, enplegua eta ekintzailatza sustatzea; sektorearteko sinergiak sortzea; eskualdeko enpresentzako eta langabe eta ekintzaileentzako zerbitzuak eskaintzea eta energia berriztagarrien inguruko aholkularitza ematea» dituzte jomugan. Hainbat espazio izanen dituela aurreratu dute: «obradore publikoa, energiaren inguruko informazio gunea, garapen agenteen bulegoak, formakuntza eta bilera gelak, *coworking* gunea...».

Talde lana

Leitzako Udalak bultzatu du baina Cederna Garalur eta Arano, Goizueta, Areso, Lekunberri, Araiz, Larraun, Betelu, Basaburua, Atez eta Imozko udalak laguntzen ari dira.

Parte-hartze prozesua

Helburuak zehaztuak badituzte ere, «eskualdeko ekonomia-sektore guzietako interesdunen eta herritarren beharrak» bildu nahi dituzte, eta horregatik hasi dute parte-hartze prozesua, «eskualdeko eragileen ekarpenekin espazio eta zerbitzu eskaintza ahalik eta erabilgarrienak diseinatzeko».

Parte-hartze prozesuaren baitan, zortzi saio egingen dituzte. Dagoeneko bi egin dituzte Leitzan, eta hasierarekin «oso pozik» dago alkatea: «lehenengo saiora 30 lagun etorri ziren eta oso ekarpen interesgarriak jaso genituen. Prozesu konplexua eta luzea izanen da eta hasiera oso txukuna izan du». Hurrengoak martxoaren 11n Jauntsaratsen, 17an eta 24an Lekunberri, apirilaren 15ean Leitzan, 22an Goizueta eta maiatzaren 6an Leitzan izanen dira.

Aurreproiektua

Prozesu hori bukatzean, «ondorio guztiak bildu eta txosten bat» egingen dutela aurreratu du alkatea: «txostenak zein behar dauden erakutsiko digu eta abokatu, ingeniari, arkitekto eta beste teknikariek elkarlanean proiektua modu teknikoan garatzeko erabiliko dugu». Prozesu «luzea» izanen dela dio, baina «ahalik eta aurreproiekturik definituena hurrengo hilabeteetan prest» izan nahi dute: «Proiekturako dirulaguntzak beharrezkoak izanen dira eta Next Generation dirulaguntza deialdia datozen hilabeteetan atera daitekeenez, ordurako aurreproiektua izatea oso interesgarria izanen litzateke».



Herriko sei familia bildu dira LHL erronka egitasmoaren baitan.

Herri inklusiboagoa lortzeko bidea hasi du LHL erronkak

Kirola, elkartasuna eta auzolana uztartzeko asmoz, LHL erronka egitasmoa lantzen hasi dira Leitzako sei familia

TTIPI-TTAPA

Leitza herri inklusiboagoa bilakatzeko. Horixe du helburu «kirola, elkartasuna eta auzolana uztartu» nahi dituen LHL erronkak. Euskal Herria Mendi Erronka eta Leitza Urratsez Urratsez egitasmoa izan dira abiapuntuak, antolatzaileen hitzetan, «lehen kirola, euskara eta auzolana bultzatzeko urtez urte egin den lan eredu garriatik; eta bigarrena institutukoek eskolarekin elkarlanean irisgarritasun eta mugikortasun gabeziak azaleratzeko eta herritarren kontzientzia sortzeko egin zuten lanketa bikainagatik».

Mendi erronka antolatzen ibili izan diren Iker Gomez eta Iraitzi Uriartek hasi dute bidea, mendi erronka bertan behera utzita, erronka pertsonala egitea otu zitzaielako: Linza-Hiru Erregeen Mahaia-Leitza ibilbidea egitea erabaki zuten eta hortik dator egitasmoaren izena: 150 bat kilometro, 6.000 metroko desnibela eta 24 ordu baino gehiago korrika.

Esfortua erronka solidario

Baina koxka bat gorago eginez, kirol esfortua erronka solida-

rio bihurtu dute. Munduan bost kasu baino ez dauden gaixotasuna du Leitzako Udane eta bere familiarengana jo zuten lehenbizi. Tratamenduren bat edo gailuren bat eskuratzeko, diru biltzea egitea zuten hasieran jomuga, baina familiarekin hitz egin ondoren, «behar bereziak dituzten pertsonen bizitza errazteko ekarpenak egitea eta herritarren sentsibilizazioa areagotzeko kanpaina abiatzea» erabaki dute.

Hala, bi lagun hasierako ideia, sei familiaren egitasmo bihurtu da orain, eta hainbat ekimen landu nahi dituzte: Sentsibilizazio kanpaina garatu eta herri lan-sarea osatu nahi dute, plazarako bidexka lortu nahi dute, baita aniztasun funtzionala dutenentzako aparkalekuak urdinez margotu ere. Jolas parkea egokitu eta komertzioetan piktogramak jarri nahi dituzte, eta noski, kirol erronka egin.

Bide horretan, «umeen parte-hartzea» nabarmendu dute. «Zergatik ez baliatu abagune hau herrigintza, auzolana, elkartasuna, elkarlana eta bizikidetzaren balioak eta garrantzia umeengan ere sustatzeko?».

«Aranoko bizipenetatik abiatuz sortu dut 'Mairu Baratzetan' kanta»

OLATZ ZUGASTI PERURENA HARPA-JOTZAILEA ETA ABESLARIA

Mairu Baratzetan kanta izan da Olatz Zugastiren azken argitalpena, Aranoko bizipenetatik sortutako lana

TTIPI-TTAPA

Arano bihotzean eta oroimean darama Olatz Zugasti (Hernani, 1965) musikari ezagunak. Haurtzaroko oroitzapen xumeak bezain gozoak ditu eta, horiek ardatz hartuz, *Mairu Baratzetan* kanta egin du. Hitzei eta doinuei irudia jartzeko lanean ari da orain. Herrira bueltatzeko eta ezin urratuzko aztarna uzteko bide eman dio proiektuak.

Hernaniarra zara, baina baduzu Aranorekin lotura...

Aitona bertakoa zen. Haurtzaroen eta gaztetan asko joaten ginen. Oporraldiak bertan egiten genituen, asteburu-pasak... Oroitzapen xumeak baina oso politak ditut. Bat-batean Hernaniko hirigunetik hara joatea, mendira... Lehengusuak, familia, elkartzen ginen.

Ordutik lotura horri eutsi diozu?

Bizitzak beste bide batzuetatik eramane nau baina harreman afektibo hori hor dago, aitona maite nuelako eta Arano berezia delako.

Ibilbide luzea duzu musikaren munduan. Noiz eman zenituen lehenbiziko pausoak?

Musikarekin harremana beti izan dut, oso-oso umetatik. Aitarenekin aldetik zaletasun handia izan dute. Ni sortu nintzeanean Ez Dok Amairu hazten ari zen, beraien diskoak bagenituen... Mugimendu hori hurbiletik segitu dugu. Gero Benitoren hasi nintzen. Hernaniko ikastolara etortzen zen eta han ezagutu genuen elkar.



Ibilbide luzea du Olatz Zugastik musikagintzan.

Berak *Altabizkar/Itzaltzuko bardoari* diskorako ahots triple bat behar zuen eta garai hartan ez zuenez askorik ezagutzen, nire ahotsaz gogoratu zen. Halaxe hasi nintzen.

Benito Lertxundiren disko guztietan dago zure ekarpenen bat...

Bai. Harparekin liluratu nintzen, harpa bat eskuratzeko aukera izan nuen eta ikasketekin hasi nintzen. Harpa dela edo kantua dela, disko guztietan aritu naiz. **Nolakoa izan da elkarlan hori?** Oso emankorra izan da eta da. Bere musika da eta berak nahi duen hori aurkitzen saiatzen naiz, baina ekarpenetara irekia egon da beti.

Horrez gain, bakarlarri gisa, bost lan egin dituzu. Zertan aldatu dira

lan horiek lehenbizikotik azkenekora?

Lehenengo diskoa entzuten dudanean beti pentsatzen dut ideiak interesgarriak direla eta ados nagoela, baina gaur egun beste era batera egingen nuke. Garai hartan 24 bat urte nituen eta freskotasan hori sumatzen da gai eta kantuetan, originaltasun puntu bat ere bazeukaten, harpatik abiatuak ziren eta hemen ez zen eta ez da ohikoa. Hala ere, gaur egun beste ezaugarri batzuk ditu nire musikak.

Aranorekin lotura duen *Mairu Baratzetan* kantua egin berri duzu... Nola sortu zen ideia?

Aspaldi hasi nintzen, zirriborro batzuk eginak nituen Arano

gai hartuta kantu bat egiteko ideia horri tiraka... Dena den, askotan nire kantak ez dira oso definituak eta ezin dut zehaztu zertaz ari naizen, pertzepzioak dira. Mairu-baratzeetara noa, baina bidean inauterietan gelditzen naiz, herriko giroan galtzen naiz, nostalgian barrena... Bertan bizitaketatik zerbait adierazteko nahia da. Ez naiz ez nire aitona, ez cromlechez ari... Aranok eragindako sentipenez baizik eta tartean keinu txikiak daude. Adibidez, 'zure oihartzun hunkituak bil nazan maitekero' horretan aitona egiten diot erreferentzia, malko errazeko gizonaren eta... **Zergatik *Mairu Baratzetan*?**

Monumentu horiek leku jakinetan daude eta Euskal Herrian daudenen artean bat hori da. Lotura hori egitea polita iruditu zitzaidan. Arano eta historiaurreko harrizko monumentu horiek, zer ziren oso ongi ere ez dakigun horiek... Misterio bat direnez, polita iruditu zitzaidan. Are zirrara handiagoa eragin dit gure historiaren ikur garrantzitsu bat han dagoela jakin dudanean. Elizaren atzeko aldeko ate bategan Nafarroako Erresumaren armarrira dago, jatorrizkoa. Hainbeste urtez han ibilia izan arren ez nekien...

Estiloari dagokionez, zer nabarmenduko zenuke?

Doinu askorekin probatu nuen. Eta azkenean, mairu-baratzeekin lotuta, ijito erritmoa eman diot, kantak ero puntu bat ere baduelako. Ukrainiako herri doinu bat abiapuntu hartuz neure erara egokitu dut.

Orain bideoklipa grabatzen ari zarete, horren aitzakian herrira buelta...

Hori guztia islatzea ez da erraza eta lehenbiziko aldia da niretzat. Esperientzia berria da, baina garai honetan polita izan zitekeela pentsatu nuen. Irudiak hartzen aritu gara eta gero hori muntatu beharko dugu. Nire buruan dudak sorgin kutsu hori islatzea nahiko nuke. Orainarekin eta iraganarekin lotura hori...

'Zaintza pandemia garaian' argazki erakusketa zabalik

Argazki lehiaketara aurkeztu ziren argazkiak eta eskolako ikasleen lanak Garbilekuan jarri dituzte

TTIPI-TTAPA

Zaintza pandemia garaian argazki lehiaketara aurkeztu zituzten lanak jendaurrean daude dagoeneko, nahi duenak ikus ditzan.

Bhutan proiektuaren barnean, Goizuetan eta Aranon izenburu hori duen argazki lehiaketa antolatu zuten eskualdeko prebentzio programak eta berdintasun zerbitzuak joan den urte hondarrean. Guztira 17 argazki bildu zituzten, tartean, epaimahaiaren saria irabazi zuen Itsaso Lujanbioren *Etorkizuna orain*

da eta sari-parte-hartzailea lortu zuen Garbiñe Etxegiaren *Zeruaren koloreak* argazkiak. Orain, berriz, bildutako argazki guztiak garbilekuan jarri dituzte ikusgai martxoaren 17ra arte. Martxoaren 26tik 28ra Aranon jarriko dute.

Lehiaketara aurkeztutako argazkiekin batera, Xaltoa eskolako hirugarren eta laugarren mailako ikasleek egindako marrazkiak ere bildu dituzte erakusketan, haiek ere gaiaz hausnartzeko aukera izan zutelako. Antolatzaileek hurbiltzeko deia egin dute.



Burnizko potoa komikiaren aurkezpenean hainbat herritar bildu ziren. FELIX LOIARTE

Martxoaren 27an helduentzat umorezko bakarrizketa saioa antolatu dute

TTIPI-TTAPA

Udalak, kultur taldeak, euskara zerbitzuak eta gizarte zerbitzuek antolatutako ekitaldiek aurrera jarraitzen dute. Otsailaren 27an, esaterako, Artikutzako trenaren historia kontatzen duen *Burnizko potoa* komikia aurkeztu zuten Jokin Mitxelenak, Antton Kazabonek

eta Antton Mendizabalek. Joan den igandean ipuin kontaketa egitekoa zen eta martxoaren 27an Txikirekin helduentzako umorezko bakarrizketa saioa izanen da: *40 urte eta aldapan behera niek/n*. 18:30ean hasiko da eta sarrerak bost eurotan estankoan erosi ahal izanen dira.



OLATZ ZABALA

46 lagun Nekuko Zubirako irteeran

46 lagunek parte hartu zuten Arainburu Mendi Taldeak antolatuta, joan den larunbatean, Nekuko Zubira egin zuten irteeran. Legeak baimendutako taldetan banatuta ibili ziren eta mendi taldeak «erantzun ona» eta «giro bikaina» nabarmendu ditu: «ibilbide erraza zen eta hainbat adinetako jendea animatu zen».



UMORE ONA PILOTA ELKARTEA

Zabaleta eta Eskudero txapeldunorde

Finalerako txartela eskuratuta, Nafarroako eskuz binakako bigarren mailako finala jokatu zuten Ainhoa Zabaletak eta Maria Eskudero 20an Iruñeko Labrit pilotalekuan. Altsasuarrak izan zituzten kontrario eta haiek izan ziren txapela etxera eraman zutenak.

Ibilgailuen zerga borondatez ordaintzeko aukera

Unai Miranda alkateak sinatutako ohar bidez, ibilgailuen 2021eko zerga ordaintzeko borondatezko epea zabalik dagoela jakinarazi du udalak. Martxoaren 1az geroztik egin daitezke eta apirilaren 15era arte izanen da horretarako aukera.

Egur loteen ordeztu haizeek botatako zuhaitzak

Udalak jakinarazi duenez, ez dute egur loterik ateratzerik izanen baina azken haizeteek botatako zuhaitzen materialarekin 15 bat lote atera daitezkeela aurreikusi du. Interesatuak udaletxera deitu beharko dute. Dei-ordenaren arabera esleitu dituzte, bukatu arte.

'Hemen baditun 14' erakusketa ikusgai Elizondon

Martxoaren 8aren aitzakian, hamalau emakumezko euskara sustatzen egindako lana ikusarazi nahi dute

TTIPI-TTAPA

Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira, Baztango Udaleko Kultura eta Berdintasun Batzordeak, Iruñeko Udalaren laguntzaz, euskara sustatzen aritu diren emakumezkoei buruzko *Hemen baditun 14* erakusketa paratu du ikusgai martxoaren 8an. Martxoaren 26ra arte bisitatu ahal izanen da, 17:30etik 21:00etara, Arizkunenea kultur etxeko lehenbiziko solairuan.

Euskararen alde egindako lana ardatz duen erakusketa

Erakusketak protagonista Perpetua Saragueta, Maritxu Biscarret, Feli Setoain, Mikaela Labaien, Petra Azpiroz, Paulina Urkiola, Luzia Goñi, Mikela Gastesi, Ceferina Fontellas, Ana Maria Etxaide, Mirentxu Loiarte, Xole Erbiti, Pakita Zabaleta eta Sagrario Aleman dira, XX. mendean euskararen sustapenaren eta normalizazioaren alde aritu direnak. Irakaskuntzan eta ikerkuntzan, musikagintzan, kazetaritzan, idazkuntzan eta

bertsolaritzan, zinemagintzan, administrazioan, merkataritzan edota hizkuntzaren beraren memoria eta testigantza iraunarazten, etxean nahiz plazan, egindako lanaren aitorza egin nahi zaie.

Ortziralean bertso saio feminista Iruritan

Martxoaren 8aren harira, erakusketaz gain, gaur egun euskara sustatzen ari diren hiru emakumezkoen bertso saioa ere izanen dute. Baztango Talde Feministak antolatutako hitzordua Iruritako Damaso Zabalza Gizarte Bilgunean izanen da ortziralean, martxoaren 12an.

Alazne Untxalo iturendarra, Irati Majuelo eta Saioa Alkaiza ariko dira kantari, Maialen Belarra doneztebarrak emandako gaiari erantzunez. Saioa 19:00etan hasiko da eta ikusleek ez dute sarrerarik ordaindu beharko. Dena den, edukiera kontrolatzeko gonbidapena beharko dute eta hori 18:45etik aitzinera eskuratu ahal izanen dute sarreran bertan.



ARIZKUNENEA

Baztan Kantuz Elbetetik Iruritarra

Otsailaren 20an, Baztan Kantuz egitasmoaren harira, Elbeteko plazan bildu ziren baztandarrak. Eguraldia lagun herria musika eta kantu goxoz girotu zuten. Hurrengo hitzordua Iruritan izanen dute martxoaren 21ean, igandean. Ohi bezala, 12:00etan plazatik abiatuko dira.



UTZITAKOA

(H)ilbeltza abiatzeko 'Sotoan gordeak'

Aurtengoa ez da ohiko (H)ilbeltza izanen. Lehen ekitaldia otsailaren 25ean egin zuten. Arizkunenea Kultur Etxeko ganbaran Miren Gorrotxategi idazlea aritu zen solasean, 2019ko (H)ilbeltza beka irabazi eta berriki argitaratu den *Sotoan gordeak* liburuari buruz.

BRIKO
LIMPIEZA, SL

MOTA GUZTIETAKO
GARBIKETAK:
etxeak
landetxeak
lokalak
komertzioak
enpresak
...

konfidantzazko zerbitzua

T. 608 016 052
San Andres, 66 · NARBARTE
(Sarrera Legasatik)

asegi asesorías

Zergalan

- Kontabilitate zerbitzuak
- Zerbitzu fiskalak
- Lan-aholkularitza
- Aholkularitza juridikoa
- Herentzia eta Testamentuak
- Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzua
- Datuen babesa
- Mugaz bertze aldeko aitortpenen kudeaketa (langileak eta enpresak)

www.zergalan.es | zergalan@asegi.es
www.asegi.com

Baztanberri plaza, 6
31700 ELIZONDO
T. 948 581 300 · F. 948 580 648

Eztegara pasealekua, 22-1
31780 BERA
T. 948 631 108

Eliza Kalea, 22
31740 DONEZTEBE
T. 948 450 395 · F. 948 451 304



Taldekideetako batzuk kontzertu batean. HAIZEGOA IRIARTE

The Drunken Barrels taldearen kontzertua Iruritan

Martxoaren 21ean, igandean, izanen da emanaldia Damaso Zabalza Gizarte Bilgunean

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuak sus-tatutako Artea eta Kultura egitasmoaren barne, Baztan-go Kultura Batzordeak bertako The Drunken Barrels musika taldearen kontzertua antolatu du.

Gonbidapenak egunean bertan eskuragarri

Martxoaren 21ean, igandean, Irurritako Damaso Zabalza Gizarte Bilgunean izanen da emanaldia. Kontzertua 19:00etan hasiko da eta, edukiera kontrolatu ahal izateko, gozatu nahi duten entzuleek

aitzinetik gonbidapenak jaso beharko dituzte. Jakinarazi dutenez, gonbidapenak 18:30etik goiti eskuragarri egonen dira eta pertsona bakoitzak gehienez ere bi lagunendako sarrera eskuratu ahal izanen du.

The Drunken Barrels

The Drunken Barrels Iñigo Beltzunegi, Kepa Lazaro, Endika Beltran, Xabier Durruty, Iban Dufurrena, Mikel Fagoaga eta Izargi Zumarraga baztandarrek osatzen duten taldea da eta irlandar musika egiten dute, bertsioak.

Bailableak martxoaren 14an Elizondon

Elizondoko gaiteroak eta Baztango dantzariak Elizondoko plazan bilduko dira martxoaren 14an, igandean, herriko plazan (euria eginez gero frontoi estalian). Herriko eta Nafarroako dantzak dantzatu dituzte. Eguerdian, 12:30ean, elkartzekoak dira.

'Damian Arrutiren Asmazioak' solasgai hilaren 26an

(H)ilbeltza elkarteak antolatuta, Gorka Arreserekin solasaldia izanen dute martxoaren 26an, ortziralean, 18:30ean, Elizondoko Arizkunenea kultur etxean. Editore zarauztarrak *Damian Arrutiren asmazioak* lana izanen du solasgai.

'Otro fin del mundo es posible' liburuaren aurkezpena hilaren 27an

TTIPI-TTAPA

Energia ona eta Hazitik Hozie taldeen eskutik, Jorge Riechmannek *Otro fin del mundo es posible* lana aurkeztuko du martxoaren 27an. Aitzineratu dutenez, gonbidapenei buruzko informazioa martxoaren 22tik aitzinera emanen dute.



Jorge Riechmann.

Sukaldaritza ikastaroa hilaren 15ean hasiko da

Martxoaren 15etik maiatzaren 28ra sukaldaritza ikastaroa izanen dute Lekarozko aterpean. Guztira 215 orduko ikastaroa izanen da eta 09:00etatik 14:15era bilduko dira. Xehetasun guztiak 776. zenbakian edo 676 35 08 52 telefonoan.

Baztani buruzko proiektuak diruz lagunduko dituzte

Bertze urte batez, Baztan iker-gai duten ikasketa amaierako proiektuak edo lanak diruz laguntzeko deialdia egin du Baztango Udalak. Eskatzaileek eskabideak eta lanaren memoria aurkezteko martxoaren 17a arteko epea izanen dute. Xehetasunak 776. zenbakian.

LARRALDEA
eta
LINDDURRENBORDA
Baztan Bidasoako sagardotegiak

Dolarea
Eskualdean egindako sagardoa
Txotx denboraldiaren irekiera

LARRALDEA | Telleria auzoa · LEKAROZ | 948 452121 · 626 494317
LINDDURRENBORDA | Nabaz auzoa · LESAKA | 948 637212

ANZABAL
inmobiliaria

- Inmobiliaria
Baserrri, borda, pisu, etab. salmenta eta alokairua
- Gestoria
- Zurich Aseguruak
Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
- Lan aholkularitza
Nomina eta Aseguru Sozialak
- Aholkularitza fiskala
Errenta Deklarazioa, BEZa...

Santiago, 15 ELIZONDO • T. 948 580 804
anzabal@anzabal.com • www.anzabal.com

Suak 500 hektareatik goiti erre ditu

Bizitako «tentsio momentu» horiek errepika ez daitezen «ardura hartzeko» eskatu du Juan Kruz Iriarte mendizainak

TTIPI-TTAPA

Otsaileko hirugarren asteburua mugitua izan zen baztan-darrentzat ere. Baztango Udaleko zinegotzia eta Nafarroako Gobernuko mendizaina den Juan Kruz Iriartek Xorroxin irratitari adierazitakoaren arabera «alimaleko kaltea» eragin du: «pinadiak erre dira, Bertiz natur parkean sartu zen sua...».

Lehenbiziko deia Oieregi ingurutik, Bertizko natur paketik, ailegatu bazen ere, kontua ez zen hor akitu: «segidan Arizkunen eta Erratzu artean bertze sute bat izan zen eta azkenik Alkurruntzekoa».

Bi egunotan alde batera eta bertzera ibili zen Iriarte: «herritarrak deitu gintuen eta egia erran aipagarria da herritarrak nola kezkatu diren eta zer mugimendu izan duen euren aldetik». Sua kontrolatzea «zaila» izan zen, «ortzirale gau osoa egon ondotik larunbata argitzen hasi zen eta, hemen ezinean ginela, ohartu ziren Alkurruntzko magalean bertze sute bat zegoela». Mugimendu horrek guztiak «tentsio

handia» eragin zien: «denara ailegatzea ezinezkoa zen, jende aunitz behar zen, tarte horretan Berara bidali zuten jende aunitz...». Jende faltak «beldurra» eragin zuen herri-tarrengan: «sua arazo handia izateaz gainera, bertze istri-puren bat edo larrialdiren bat izanez gero ez zegoen artatu ahal izateko jenderik».

Baztango zinegotziak kontatutakoaren arabera, bi borda «doi-doi ibili ziren, baina libratzea lortu zen...». Alkurruntzkoan larrea erre bazen ere, Arizkunen afera «larri» ibili zen: «landaketetara, baserrietara... hurbildu zen». Larunbat ilunabarrean lortu zuten itzaltzea.

Zehazki zenbateko kaltea eragin duen jakiterik izan ez duten arren, «larre, oihan eta dena 500 hektareatik goiti» erre direla uste du Iriartek.

Horren aitzinean «ardura» eskatu du: «azken aldiaren erreteta kontrolatuak egin dira, 100 hektarea inguru garbituz. Mendiak herritar, udal eta nekazariok elkarlanean zaindu beharko genituzke».



Suak kaltetutako etxoletako bat. ISABEL ALEMAN

Suak bi borda erre ditu otsailean Amaiurren

TTIPI-TTAPA

«Zinez, urteetan ez dugu atzenuko egun hauetan gertatutakoa». Halaxe adierazi zion Isabel Aleman Irungarai Amaiurko alkateak TTIPI-TTAPARI. Otsailaren 19an, ortziralean, Alkurruntzen eta larunbatean Kantorneko mendian piztutako suteen ondorioz, bi etxola erre ziren Amaiurren.

Amaiurko alkatearen arabera, «sua otsailaren 19an gauean Alkurruntz aldean hasi zen eta hurrengo orduetan Betarte eta Larroaino hedatu zen». Kantorneko mendiko sua, berriz, larunbat ilunabarrean,

«KANTORNEKO SUA PIZTU ZUENAK BAZEKIEN ZEIN ZEN EGOERA»

otsailaren 20an, hasi zen. «Kantorne inguruko sua piztu zutenean, egileak ongi aski bazekien zein egoeratan ginen momentu horretan. Izan ere, Kontorneko eremu hau Alkurruntz parean dago».

Nafarroako Suhiltzaileak, larrialdietako unitate militarreko kideak (UME) eta inguruko herritarrak ibili ziren suaren kontra, baina Alemanen hitzetan, «ezin deus egin erre ziren bi etxolak ez erretzeko». Kaltetua izan den etxola bat «Astoiko errekan dagoen Delgaineko Erdiko Borda» da, «Betarte eta Larro tartean». Bertzea, berriz, «Itzulegi alderdian, Kantorneko mendian» dago. Hain zuzen, bigarren borda hori «Bigarren Mundu Gerran parakaidista ingeleseko sortutako iheslari sareak, Cometé sareak, erabiltzen zuen etxola zen».

MARMOLES SOULE

www.marmolessoule.com

ARIZKUN | M. 688 605 182 | T. 948 453 444 | marmolessoule@gmail.com

LAPIDAK
PANTEONAK
KANPOSANTUAK
HARRI LANAK
ESKULTURAK

OTEIZA

ARKITEKTOAK

665 71 56 96 - 943 42 52 43
www.oteizaarquitectos.com

Apote Karrika 8 (Maskonea)
31730 - Irurita (Baztan)

Askatasunaren H. 7 - 7ºE
20004 - Donostia

oteizaarquitectos

Oharritu Auzoa z/g · LEKAROZ
T. 948 452 143 · 948 452 449
info@harrilan.com www.harrilan.com

HARRI LAN S.L.
VALLE DE CAJERÍA

EDOZEIN HARRI MOTAREKIN
LAN GUZTIAK EGITEN DITUGU

BAITA HORMIGOI INPRIMATUA ERE

Taupada egitasmoa martxan da berriz ere

Emakumeek bizipenak partekatzeko gune seguru bat sortzea dute helburu

TTIPI-TTAPA

Iazko erantzun ona ikusirik, Nafarroako Berdintasunerako Institutuak, Baztango Udalaren laguntzarekin, emakume gazteen ahalduntzerako Taupada egitasmoaren bigarren edizioa abiatu du.

Guztira sei saio izanen dira. Lehenbiziko saioa martxoaren 5ean egin zuten eta hurrengoak apirilaren 9an, maiatzaren 7an, ekainaren 4an eta irailaren 17an aurreikusi dituzte, toki eta ordu berean, hau da, Arizkunenea kultur etxean, 16:00etatik 19:00etara. Ondo-

tik, egoerak baimentzen badu, urriaren 29an edo 30ean topaketa egingen dute.

14-25 urteko gazteendako

Egitasmoak norberaren bizipenak partekatzeko gune seguru bat sortzea du helburu, baita emakumezkoen errealitatea ezagutzea eta mikro-matxismoari aurre egiteko estrategiak garatzea ere.

14 eta 25 urte bitarteko emakumeei zuzendua da eta, bertzeak bertze, begiratzen ikasteko, bortizkeriei buruz jakiteko, beldurra kudeatzeko,



13 lagunek parte hartu zuten. ARTXIBOKOA

aske, polit eta eroso sentitze-ko, elkarrekin sortzeko eta eraikitzeko bitartekoak landuko dituzte, Emagin elkar-terko kide baten laguntzaz.

Joan den urtean 13 lagunek parte hartu zuten eta horien artean izan zen Garazi Sarobe gazteak adierazi zuten, «bizipenak partekatzeko ez ezik, sartzeko eta elkar zaintzeko» aukera ederra izan zuten. Hortaz, «probatzera animatzeko» deia egin nahi izan zuten.

Informazio gehiago eta izen ematea

Informazio gehiago 848 42 04 04 telefonora deituz, 689 02 61 06 zenbakira Whatsapp idatziz edo programasinai@navarra.eus e-maila bidaliz eskura daiteke.

Nafarroan bertze lau tokitan

Saioak Baztanen ez ezik, Iruñean, Izarbeibarren, Zentronikon eta Agoitzen ere emanen dituzte.



ELIZONDOKO ESKOLA PUBLIKOA

INKLUSIBOA, ANITZA,
METODOLOGIA BERRITZAILAK,
EUSKALDUNA ETA ELEANITZA

ATE IREKIAK

Martxoak 22, 23, 24

Ordua: 16:30

(6 laguneko taldeak)

ZATOZ ZURE ESKOLA EZAGUTZERA

BERTARATU AHAL IZATEKO DEITU

TELEFONO HONETARA:

948 58 18 08

AURREMATRIKULAZIOA



Zurea eta denona delako

Nafarroako Gobernua
Hezkuntza Departamentua



Gobierno de Navarra
Departamento de Educación



KALITATEZKO IKASTETXEA
CENTRO DE CALIDAD



PROEDUCAR
HEZIGARRI

Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua



2023

N-121-Ako trafiko astuna desbideratzea ez dute eskatuko

Geroa Baik aurkeztutako mozioaren kontra bozkatu zuten udal batzarrean EHBilduk eta Navarra Sumak

TTIPI-TTAPA

Otsailaren 25eko osoko bilkuran N-121-A errepideari buruz Geroa Baik aurkeztutako mozioa aztertu zuten. Mozio horretan lanak iraun bizkitartean, nazioarteko kamioiak matrikula bakoitiak eta bikoitiak asteka aldizkatuz A-15 autobidetik desbideratzea proposatu zuen Geroa Baik. Modu berean, desbideratutako kamioiei bidesaririk ez kobratzea eskatu zuen. Geroa Baik salatzen zuenez, «lan horiek, beharrezkoak izan arren, egunero hainbat arrazoiengatik bide hau erabiltzen duten erabiltzaileei ondoeza eta eragozpenak eragiten dizkiete» eta «2018n bezala trafikoa murrizteko neurriak» hartzea eskatu zion Nafarroako Gobernuari. Mozioa ez zen aitzinera ateratu, Geroa Baik eta Baztango Ezkerrak alde, baina EHBilduk eta Navarra Sumak kontra bozkatu baitzuten.

Baztango EHBilduk kontra bozkatu zuen, «alde batetik nazioarteko kamioi guztiak desbideratzearen alde gaude-lako, ez matrikulen arabera.

2018an Belateko tuneletako lanak egin zirelarik Baztango udalbatzak aho batez (EH Bildu, Ezkerra, Geroa Bai, UPN eta Baztan Auzolanean) kamioi guztiak desbideratzea eskatzeko erabakia hartu zuen, eta eraki hori babesten segitzen dugu». EH Bilduren arabera, Nafarroako Gobernuaren izan zen matrikulen arabera desbideratzea erabaki zuena, aldebakarki, mendialdeko udalei kasurik egin gabe, «eta orduan ikusi ahal izan zen bezala, denak desbideratuz gero aise hobe gertatu izan zen». Horregatik, lanak iraun bizkitartean eskualdera heldu ez den nazioarteko zama garraio guztia desbideratzea da eskatzen segitzen duena.

Bertzalde, «desbideratutako kamioiei bidesaririk ez kobratzea eguneroko erabiltzaileekiko diskriminazio hutsa» dela uste du EHBilduk: «Horren arabera Iruñerat lanera, medikura... joaki den herritar batek ordaindu beharko luke eta nazioarteko garraio gintzan ari denak ez. Hori ez dela zuzena uste dugu».

Artisau azoka martxoaren 19an Elizondon eta 21ean Erratzun

TTIPI-TTAPA

Udaberriarekin batera, Bidasoa eskualdeko Argitsu artisauen elkarteko kideak plazetara bueltatzeko gogotsu daude. Martxorako bi hitzordu antolatu dituzte. Hilaren 19an, ortzegunean, Elizondon bilduko dira eta igandean,

martxoaren 21ean, Erratzun. Bertaraten direnek bertako produktuak ikusi eta erosteko aukeraz izanen dute. Osagarriak, ukenduak, xaboiak, likoreak, egurrezko tresna eta apaingarriak, poltsak, buruko zapiak... 10:00etatik 14:00etara eskuratu ahal izanen dira.



Emanaldia 19:00etan hasiko da.

Iruñeko Orfeoien kontzertua Elizondon martxoaren 27an

TTIPI-TTAPA

Igor Ijurraren zuzendaritzapean eta Raul del Toro organo-jotzaile dutela, Iruñeko Orfeoia abesbatza-elkartek kontzertua emanen du martxoaren 27an, larunbatean, Elizondoko parrokiaren.

Elizondoko Parrokiak eta Iruñeko Orfeoia, Baztango

Udalaren laguntzaz, antolatutako emanaldi gustagarria ilunabarrean, 19:00etan, hasiko da eta sarrera dohainik izanen da, edukiera bete arte. Jakinarazi dutenez, parrokiako atea 18:40an irekiko dituzte eta eserlekuak jendea ailegatu ahala banatuko dituzte.

Zure etxebizitza saldu behar duzu?

Aholkularitza dohainik.
Utz iezadazu laguntzen!
Tasazioak konpromisorik gabe

A10 INMOBILIARIA
617 304 094

A10INMOBILIARIA.ES

CARLOS GARAIKOETXEA ETXENIKE
abokatua

Dibortzioak, herentziak,
alokairuak, alkoholemiak...

T. 948 581 468 | M. 630 354 818
Santiago, 59 2C ELIZONDO

TXOKOA

Ile-apaindegia

Estitxu Mikelperizena
644 94 11 55[®]

Pedro M^a Hualde, 38 behea | 31730 Irurita

8.590.299 euroko aurrekontu orokorra onartu du udalak

Zahar etxea berritzeko proiektua idaztea, mendiko lanak eta Erratzuko eskolako jangela handitzea dira inbertsio handienak

TTIPI-TTAPA

Martxoaren 2an egin zen ezohiko osoko bilkuran 2021eko aurrekontua onartu zuen udalak, EH Bilduren eta Ezkerraren zazpi bozekin, Navarra Sumaren aurkako hirurekin eta Geroa Bairen abstentzio batekin.

Aurrekontu orokorrak udalaren, ikastolaren eta zahar etxearen aurrekontuak biltzen ditu, 7.706.446, 855.700 eta 131.153 eurokoak, hurrenez hurren. Giltxaurdi enpresa publikoarena bereizirik da, eta aurtengoa 397.299 eurokoa izanen da.

Aurtengo aurrekontuetan Covid 19ak eragin nabarmena izan du eta hori gastu arruntean ikusi da, eskoletako garbiketarik indartzeko kontu-saila 58.700 igan baita eta Giltxaurdiko abonuen jaistea orekatzeko

35.400 euro gehiago erabiliko baita.

Bertzalde, gastu arruntean eragin handia izan duen bertze kontu-saila karriken garbiketa eta hondakin organikoaren bilketarena izan da, iaz esleipen berria egin zen eta 76.885 euroan handitu da.

Gainerakoan gastuen eta sarreraren egitura berdintsu mantendu da eta hortik inbertsionarako tartea finkatu da. Aurten, denera, 781.878 euroko inbertsioa egingen da, horretatik %58,40 Nafarroako Gobernuak finantzatua, 456.590 euro, hain zuzen; gainerako 325.288ak udalaren aurrezki garbiaren kontura egingen da.

Zahar etxea berritzea

Inbertsio aipagarrien artean zahar etxea berritzeko proiektu

idatzi ahal izateko 197.000 euroko kontusaila izanen da. Bertzalde, Erratzuko eskolako jangela handitzeko 80.000 euroko aurrekontua dago. Herri horretan uraren biltegiaren premiazko lanak ere egingen dira 41.000 euroko aurrekontuarekin. Mendiko lanetan 166.200 euroko inbertsioa egingen da eta udalaren erakinetako galdaretan 8.350 euro. Modu berean ostatu turistikoaren arauketa egiteko 22.000 euroko aurrekontua erabiliko da eta turismo erreserba eta kudeaketarako plataforma egiteko 8.000. Plataforma horrek Xorroxingo gehiegikeriak mugatzeko balio beharko luke. Eskoletako lanetan urtero bezala 48.000 euro inguru inbertitutako da.

Bertzalde, zorpetzearen maila sarrera arruntentatik %45,66koa da, legeak finkatzen duen %110eko mugatik urrun.

Aurrekontuei hasierako onepena emanda aldizkari ofizialean argitaratu ondotik hamabortz egunez jende aitzinean egonen dira, alegazioak aurkeztu ahal izateko. Ondotik behin betiko onartuko dira.

Martxoaren 2ko bilkuran 2021eko udaleko plantilla organikoa ere onartu zen.

Lixura Baztan enpresa sortzeko urratsak egiten ari da udala

TTIPI-TTAPA

Garbiketa enpresa publikoa sortzeko azken aitzineko urratsak egin ditu udalak. Alde batetik Lixura Baztan SL enpresa publikoaren estatutuak eta memoria ekonomikoa behin betiko onartu dituzte, EH Bildu, Ezkerra eta Geroa Bairen aldeko 10 bozekin; Navarra Sumaren hirurek kontra bozkatu zuten. Orain behin betiko onarpena aldizkari ofizialean argitaratu beharko da. Administrazio kontseiluko kideak ere izendatu zituzten: Joseba Otondo eta Xabi Maia (EH Bildu), Iñigo Iturralde (Ezkerra), Joseba Moreno (Geroa Bai) eta Tasio Nagore (Navarra Suma). Hori eginda Lixura Baztanen kontua ireki beharko dute, 3.300 euroko kapital sozialarekin eta erregistro merkantilean altan eman beharko dute enpresa publikoa. Azkeneko urratsa eskolak eta mediku kontsultategiak garbitzeko udalak Lixura Baztani egingen dion eskaera da.



UTZITAKO ARGAZKIA

Saioa Jaurena Europako txapeldun

Bosgarren urtez Europako txapeldun suertatu da Espainiako errugbi selekzioa eta aurten ere Saioa Jaurena elizondoarra izan da taldean. Gainera, Herbehereen kontra otsailaren 27an jokatutako finalean (87-0) entsegua ere egin zuen. Larunbat honetan munduko txapelketan sartzeko partida dute Irlandaren kontra.

Nekazariekin biltzeko Magnak egindako eskaera onartu du Udalak

TTIPI-TTAPA

Otsailaren 25ean egindako osoko bilkuran udalbatzak Navarra Suma, Ezkerra eta Geroa Bairen aldeko 7 bozekin, Magnak egindako eskaera onartzea erabaki zuen. EH Bilduk kontra bozkatu zuen, 6 boz. Magnak eskatu zuen Erdizko ahalpideei buruzko bere proposamena bazkalekuko erabiltzaileei erakusteko udalaren laguntza eta aurkezpenak elkarrekin egitea.

EH Bilduk kontra bozkatu zuen Erdizi buruz Magnarekin edozer egitekotan multina-

zioanalak herri-galdeketa loteslea aitzinetik onartzea beharrezkoa dela uste duela. EH Bilduren erranetan, «Magnak eskatutakoa alde bakarreko iniziatiba da, eta udalak ez du halakoan parte hartzen ahal. Udalaren lana beharko luke gaia demokratikoki erabakitzekeo ibilbide orria finkatzea, herri-galdeketa loteslea azkeneko mugarrira izanen duena. Eta horren arabera, hitzorduak antolatzea. Hori guztia Batzar Nagusitik bideratu beharko litzateke, herri-lurrak direlako».

«Bizi dugun egoeran inork ez digu defentsak indartzeaz solas egiten»

URKI LIZARRIBAR BAKAIKOA ERLEZAINA

Erlezaintzan urte saila daramatza Urki Lizarribarrek eta Baztango Zaporeak markaren barne dagoen Orraxa ezta ekoizten du

N. BAZTERRIKA

Aitarekin batera, erleen gibelatik ibiltzen zen haurtzaroan Urki Lizarribar Bakaikoa (Arizkun, 1986). Pixkanaka, txirrinta piztuta, ikastaroak egin eta bide hori segitzea erabaki zuen. Gaur egun, erlezaintzari lotutabizi da: «udaberri-udan erleen bueltan ibiltzen naiz, udazkenean haztegieta eta neguan bidaiatu bitartean ikasten edo ezta banatzen».

Zaila izan zen erlezaintza lanbide bihurtzeko erabakia hartzea?

Bai eta urtero birpentsatzen dut. Erleak izatea ez da behiak izatea, lanbide ezegonkorra da. Eguraldiaren arabera, gure lana aunitz aldatzen da eta urte batean balio duenak hurrengoan ez du balio izaten... Horrez gain, nekazari guztiok bezala, erlezaintzan ari garentzat administrazioa da problemarik handiena...

Erlezaintzatik bizi daiteke?

Ni gaur egun hala bizi naiz, baina urte batzuek neguan bertze lan batean aritu naiz. Bizimodu xumea izanez gero, hipotekarik gabe, bizi daiteke. Hala ere, azken urteetan jende aunitzek bide hau hartu du eta ez da erraza...

Zenbat erle dituzu?

Ezinezkoa da hori jakitea, 400-500 bat ditudala erranen nuke, baina hori neguko heriotzatasaren arabera izaten da. Lehen erleen %20 hilez gero penagarria zen, orain, berriz, kontent egotekoa. Gero eta gehiago hiltzen dira, %50 edo...



Urki Lizarribar arizkundarra.

Erleak zaintzeaz gain, ezta egiten duzu...

Bai, erleak zaindu eta saldu egiten ditut eta, urte ona denean, ezta ere egiten dugu.

Noiz hasi zinen ezta egiten?

Etxean beti izan dugu, eta hori oinarri izanik, ikasten aritu naiz. Aragoi hiru urtez 1.000-1.500 erlauntz zituen erlezain batendako lanean aritu nintzen eta aunitz erakutsi zidan. Argentinan, Zeelanda Berrian... bidaiatu bitartean ikasteko aprobetxatu dut.

Nola izaten da ezta egiteko prozesua?

Urtean zehar erleak zaindu behar dira: parasitoak hil, elikatu, indartsu eduki... Loraldia heldu den momentuan espazioa

eman behar zaie. Bertzela, erreginak alde egiten du, bertze etxe baten bila. Horrez gain, zer loraldi datorren aurrekusi behar izaten dugu eta, horren arabera, kutzak paratu. Erleek ezta ontzen dutelarik argizari geruza batekin ixten dute eta hori kontrolatu, etxera ekarri eta operkulua kendu behar izaten da. Nik eskuz egiten dut, ez dut horretarako tresnarik. Ondotik zentrifugatu eta ontzi biltegieta sartzen dut. Hor 15 egunez egoten da, zentrifugatean hartu duen haizea galdezan.

Zer ezta barietate egiten dituzu?

Urtearen arabera izaten da ekoizpena. Lore bakarreko ezta ateratzen saiatzen naiz,

txillarra edo akazia erabiliz. Baina, denborak ez badu laguntzen mila lore bezala ateratzen dut. Hemen eta Erriberan izaten ditut erleak eta bi klimetako ateratzen saiatzen naiz: erromeroa, ezkaia, gaztan ezta... ere izaten ditut. Han otsail alderako erromeroak loretan daude eta hemen maiztzer arte... Bi hilabete aitzinatzen da eta horrekin jokutzen dut.

Zein da zure ezta barietate berezitasuna?

Bertakoa dela, benetakoa. Barietatearen arabera ezaugarri batzuk edo bertze ditu. Txillarrak zapore gehiago du, indar gehiago; erromeroa suabeagoa da... Gero eta zailagoa da uzta ona izatea, eguraldia aldatzen ari delako. Ondorioz, beti ez ditut ezta barietate guztiak.

Zer ezaugarri on ditu eztaiek?

Nutrizionista bati galdetuz gero azukrea dela erranen dizu. Nik, herri jakintzak dioen bezala, bertze aminoazido eta gatz mineralak dituela erranen nuke. Ez da zintzurra goxatu eta katarroa sendatzeko bakarrik. Urte guztian polen kantitate txiki bat hartuz gero udaberrian, alergía agerraldiak izaten diren momentuetan, gorputzak hori ezagutzen du eta erreakzioa ez da horrenbertzekoa izaten. Bizi dugun garai honetan inork ez digu defentsak indartu beharraz solas egiten, maskaraz eta txertoaz baizik.

Gizartea onura horiez jabetzen da?


Zer ezaugarri dituen badakitelera erranen nuke. Hala ere, ez dakit behar den balioa ematen zaion. Azken batean, supermerkatuan saltzen duten ezta, nik *miel* deitzen dudana, hiru eurotan saltzen badute... Niri ezta bera ekoiztea hori baino gehiago kostatzen zait. Doneztebe, Bera eta Elizondoko fruta dendetan saldu arren, gehiena salmenta zuzenaren bidez egiten saiatzen naiz eta merkatuetan saltzen dut gehien. Aurtengo egoerak zuzen-zuzenean kolpatu nau.

ZER EGIN ETXEAN IZANDAKO HERIOTZA BATEN AURREAN?



1.

112ra deitu medikuak heriotza ziurta dezan. Ondotik, beilatokiko langileek heriotzaren mediku agiria behar den osasun-etxean jasoko dute.



2.

Hildako pertsonaren eta eskatzailearen nortasun agiria eskura izan.




3.

Hildakoak heriotza-asegurua duen kasuetan, poliza zenbakia eta aseguru-etxearen izena eskura izan.



4.

Beilatokira deitu eta hildakoaren datuak eman. Modu honetan, beilatokiko langileek gorpua etxetik jaso eta aseguru-etxeari gertakariaren berri emanen diote.



5.

Hildakoa bere arroparekin edo hil-oihalez jantzi nahi den erabaki.



6.

Hildakoa ehortzi, erraustu, lekualdatu edo zientziari dohaintzan eman nahi den erabaki.



7.

Beilatokian zein agur mota egin nahi den zehaztuko da (zibila edo erlijiosoa), baita zein zerbitzu gehigarri kontratatu nahi den ere: lore eskaintzak, eskelak...



8.

Zerbitzuaren tramitazioa bukatzean, kontratatutako zerbitzu guztien aurrekontua emanen da. Modu honetan, bezeroak zerbitzuak ordaindutakoarekin bat egiten duen aldera dezake.



Oierikobordako bidegurutzeko pasabide kanadiarra. MARIFGA ETA KORO

Urte berriak zenbait berrikuntza ere ekarri ditu

Zabor edukiontzi berriak paratu dituzte, pasabide kanadiarra egin dute eta Gainekobentatik Urxokoarako bidea berri dute

MARIFA ETA KORO

Urte berriarekin berrikuntza batzuk ere etorri zaizkigu. Alde batetik, Zabor-edukiontzi berriak jarri dituzte Bixentenea eta Laxoinek puntuetan. Horrez gain, Oierikobordako bidegurutzean pasabide ka-

nadiar bat egin dute, hainbat herritarrek auzolana eginez eta Baztango Udalak materiala jarritz. Azkenik, Gainekobentatik Urxokoarainoko bidea ere zolaberritu dute, baita toki estu batzuetan pixka bat zabaldu ere.

Xaretako hitzak biltzen hasiko gara

MARIFA ETA KORO

Gizartearen bizimodua aunitz aldatu da, eta horrekin gure hitzak ere aldatzen dira (baita desagertu ere). Adibidez, mendiko lanetan ia jende gutti aritzen denez, toki aunitzeko izenak ere galdu ditugu (edo ez ditugu ezagutzen). Horretaz gain, gure

tokiko hainbat hitz propio ere galtzen ari dira.

TTIPA-TTAPA zenbaki honetan eta hurrengoetan, Xareta eremuan erabiltzen ditugun hitz batzuk idatziko ditugu, Xaretarrek horiek erabiltzen segitzeko animatzeko asmoz, baita paperean bilduta gelditzeko ere.

Xaretako hiztegia

- **Apantziaz:** *diotenez* hitzaren gisakoa da. («ez omen zen etorri, apantziaz»)
- **Ahantxu:** *ia-ia*, edo *kasi-kasi* bezala erabiltzen da («ahantxu erori da»)
- **Arruda:** *kurpila*
- **Bordela:** *nahasmena* («nolako bordela utzi zuten...»)



Otsaileko goiz batean karabana pila Azketako aparkalekuan. MARIFA ETA KORO

Gero eta maizago autokarabanak pilatzen dira Azketako aparkalekuan

MARIFA ETA KORO

Oporraldientarako gero eta gehiago erabiltzen dira autokarabanak eta furgonetak, eta herrian horren seinale badugu, maiz aparkalekuan aunitz pilatzen direlako.

Ibilgailu hauek bertze gisako ibilgailuen eskubide bera daukate toki publikoetan apar-

katzeko, beti ere ez badute akanpada egiten (toldoa hedatu, mahaia aterata...).

Beraz, Zugarramurdi karabanen kanpalekua jartzera norbait animatuz gero, behar bada aterabide ekonomiko bat izanen luke eta aldi berean herriko aparkalekuan toki libre gehiago geldituko lirateke.

Lapurdikoko aldean lau tokitan su eman ziotela mendiari salatu dute auzapezek

TTIPI-TTAPA

Azkaine, Biriatu, Sara, Urruña eta Ziburuko auzapezek otsailean 2.000 hektarea inguru erre zituen suteaz argibideak eman zituzten euskal elkargoaren egoitzan. Haserre eta kezkatuak solas egin zuten, eta Lapurdiko aldean sua lau tokitan nahita piztua izan zela salatu zuten. Aipatutako bortz herriek salaketa jarri dute.

Lau tokitan nahita

Otsailaren 20an Beran abiatu zen suteak 2.000 hektarea inguru erre zituen Nafarroa, Gipuzkoa eta Lapurdi artean. Lapurdiko aldeari dagokionez eta hego Lapurdiko auzapezek egin zuten prentsaurrekoan salatu zutenenez, Larrun eta Xoldokogaina inguruetan bertze lau tokitan ere sua nahita piztua izan zen.

Euskal elkargoaren Urruñako egoitzan elkartu ziren Sarako Battitt Laborde, Urruñako Filipe Aramendi, Azkaineko Jean-Louis Fournier, Biriaturko Solange Demarcq-Eguiguren eta Ziburuko Eneko Aldana. Auzapezek haien herriko etxeen izenean salaketa bana jarriko zutela baieztatu zuten orduan. Gogora ekartzekoa da Baionako prokuradoreak jada ikerketa abiatu duela.

Beratik etorri zen suteaz gain, Urruñan Ziburumendin, Azkaineko Trabenian bi puntutan eta Saran Larhango tren ttipiaren ondoan su-pizteak izan zirela baieztatu zuten. Bereziki deigarria da azken hau, larunbatean, 19.00etan piztua izan baitzen, bertze suetatik hainbat ordutara.



Harremana jubilotekan biltzen dira 17:00etan.

Fisioterapia tailerrak ortziralero jubilotekan

Izena eman nahi dutenek herriko medikuari edo erizainari jakinarazi edota Amaiari deitu beharko diote

ARANTXA ETA IRAIA


Harremana jubilatuen elkar-teak, burua ez ezik gorputza ere lantzeko asmoz, fisioterapia tailerra antolatu du. Urdazubiko jubilotekan elkartuko dira eta Oihana Elzaurdia fisioterapeutaren eskutik, ortziralero 17:00etan hainbat ariketaz osaturiko

tailerra izanen dute elkarte-koek.

Joan den otsailaren 19an izan zuten lehen klasea eta jadanik talde bat beteta dago. Bertze talde bat sortzeko asmoa dute. Nahiz eta ordua oraindik finkatu gabe egon, 60 urtetik gorako edozein herritarri luzatu diete gonbidapena.

Interesa izanez gero, informazioa eskuratu edo izena emateko herriko medikua-ekin, erizainarekin edo Harremana elkarteke Amaiarekin (659 84 95 70) jarri behar-ko da kontaktuan.

60 URTETIK GOITIKOEKIN BERTZE TALDE BAT OSATU NAHI DUTE



Haur eskola barrutik ezagutzeko bisita gidatuak ere egiten dituzte.

Landa haurtzaindegian izen-ematea zabalik astelehenera arte

ARANTXA ETA IRAIA

«Haurren garapena bermatzen duen eta bakoitzaren erritmoa errespetatuz inguru seguru eta goxoa eskaintzen duen» Landa haurtzaindegiak heldu den urterako aurrematrikula epea ireki du eta martxoaren 15era arte, heldu den astelehenera arte, egonen da ire-

kia. Horretaz gain, haur esko-la barnetik ezagutu ahal izateko bisita gidatuak ere antolatu dituzte. Bisita gidatu hauetara joan nahi dutenek aitzinetik 693 76 49 49 telefonorat deitu edo info.landa03@gmail.com helbide elektronikorat mezu bat idatzi beharko dutela adierazi dute.

Martxoaren 8ko ekitaldiak arrakastatsuak izan dira

ARANTXA ETA IRAIA

Martxoaren 8a Emakumeen Nazioarteko Eguna izan zen eta herrian ere nabaritu zen egun berezi hau.

Martxoaren 6an, larunbat arratsaldean David Perez Sañudok zuzendutako *Ane* filma ikusteko aukera izan zen kul-

tur etxean. Horretaz gain, joan den igandean, martxoaren 7an, herriko etxearen aitzinean elkarretaratzea egin zuten.

Bai proiektzioa baita elkarretaratzea ere arrakastatsuak izan ziren eta ekitaldi horien bidez herritarrek emakumeei keinu egin nahi izan zieten.

IBARDIN
31780 Bera

BEHOBIA
20305 Irun

LUZAIDE
31660 Luzaide

DANTXARINEA
31712 Urdax

EGUNERO IREKIA, ASTELEHENETIK IGANDERA ARTE
*Abenduaren 25^a eta urtarrilaren 31^aan ezik

www.venta-peio.com / (Fr) 0820 562 267 / (Es) 0034 902 210 800

TTIPI-TTAPA
SARE SOZIALETAN

facebook
www.facebook.com/ttapi.ttapa

Jarrai gaitzazu!

Sarako Biltzarra urriaren 8tik 11ra izanen da

Antolatzaileek herritarrei biltzarrera joan eta «momentu goxo bat pasatzeko» gonbita luzatu diete

GANEX

Eginiko azkeneko bilkuran lau egun horietan egitarau zabala izanen dutela iragarri dute. Biltzarrari *Ikusi Makusi* egitasmoarekin emanen diote hasiera. Igandea, egileen eguna izanen da eta azkenik, astlehenean profesionalen

eguna ospatuko dute. Azken momentuko aldaketak baldin badira, elkarteak honen inguruko informazioa emanen du eta xehetasun gehiago nahi dituen Jean Michel Garat Biltzarreko lehendakariarekin harremanetan jar daiteke, 06 11 66 08 43 telefonoan.

Laurence Harizpe da herri kontseiluko idazkari berria

GANEX

Herriko kontseiluak martxoaren 8tik aitzinera idazkari berria du, Laurence Harizpe ziburutarra. Izan ere, 2016tik gaur egun arte idazkaria izan den Sylvie Beamontek herri kontseiluko idazkari postua utzi du.



PIERRE EZCURRA

Sarako Korrika Traila 2022ra gibelatua

2020an egin zen bezala, 2021eko edizioa ere bertan behera uzteko erabakia hartu dute Sara Korrika taldeko antolatzaileek. Oharrean, izena emana dutenek lasterketa bertan behera gelditzen denaren jakinarazpena jasoko dutela adierazi dute, baita, egoerak baimentzen badu 2022an lasterketa egingen dela ere.

Michel Iribarrenek Euskal Etxeko abesbatzarekin diskoa kaleratu du

GANEX

Paueko *Lagun eta Maita* Euskal Etxeko abesbatza abeslari den Michel Iribarren herritarrek *Hegaldia* izeneko diskoan parte hartu du. Diskoa eskuratu nahi dutenek 06 13 22 40 23 telefonora deituz edo michel.iribarren43@gmail.com

helbidera idatziz eskura dezakete 15 euroren truke.

'Hegaldia' diskoa

Diskoa hamalau euskal kantu herrikoirekin osatu dute: *Loretsoa*, *Lau teilatu*, *Baldorba* eta *Nere maite pollita*, bertzeak bertze.



UTZITAKOAK

Ardi bordak zaharberitzen ari dira

Herriko kontseilua hasi da herriko hainbat ardi borda beritzen. Lehenik Olhain inguruko Etxeoneko ardi borda beritzeko lanetan hasi dira. Ondotik, Hegaburuko ardi borda egingen dute. Bertzalde, Felix Hirigoyen eta Tote Etcheverry enpresak Apezetxeko teilatua berritu dute.

Amotzeko eskola handitzeko obrak abiatuko dituzte

165.000 euroko kostua izanen dute eta laugarren klase elebidun bat edekitzeko asmoa ere bada

JEAN-LOUIS BESSONART

Herriko kontseiluaren azkeneko biltzarra egin zuten otsailaren 25ean eta erritmo bizi batean iragan zen, hamabortz gai zirelarik aztertzeko. Ez zuen sortu eztabaida zalapartatsurik, puntu gehienak aho batez bozkatuak izan baitziren. Batek, aldiz, oposizioaren absentsia izan zuen, hau zen auzoetako batzordeen sortzeari buruzko deliberamendua. Aipatzekoa haatik, Amotzeko eskolan laugarren klase bat edekitzeko asmoa dutela eta gainerat elebiduna (erretoretarako badu bederen). Dena den, eskolaren handitzeko obrak abiatuko dituzte lehenbailehen, 165.000 euroko kostu batendako.

Bizilekuen Tokiko Programa

Euskal Hirigune Elkargoak eskatua zien herriko etxeei eman zezaten beren iritzia programa honi buruz, hona

Senpererek eman duen erantzuna.

Orokorki, programa hori (2650 bizitegi urtean, 3000 biztanle gehiago, erran nahi baita 75 bizitegi urteka gure herriarentzat), neurritz kanpo iduritzen zaio, ez baitu aski kontutan hartzen hemengo biztanleen beharrak, ez baitu biztanleen kopurua menperatzen. Gainerat bizitegi sozial edo prezio neurtutakoak %44 lirake. Herriak nahi luke egin beharrak diren bizitegi sozialen kopurua %60era finkatua izan dadin, jakinez biztanleriaren %70 dretxo lukeela. Honen bitartez senpertar familia aunitz bizitegi sozial edo prezio neurtuzkoaren jabe edo alokatzaile bilaka daitezke.

Hemen bilduma arin bat baizik ez da, bertze gai aunitz aipagai dira, herriko etxeko web gunean zehazki aztertutak direnak, horrela bakoitzak bere idea egiten ahalko du.



JL BESSONART

Belar aterpea sutan

Sua deklaratu zen otsailaren 25ean Urguri Eltzauzpean den kanpoko belartegian. Suhiltzaileen interbentzio lasterrari esker, bizitegia bera babestua izan zen. Zorionez kalte materialetan mugatu zen suaren sarraskia, tartean traktore bat ere erre baitzen. Pantxo jabea, izialdura eder batekin kittorik gelditu da.

Zaldubi ikastolan ate idekitzeak

JL BESSONART

Martxoaren 6an, iragan da Zaldubi ikastolaren ate zabaltzea urtero egiten den bezala. Garai batean etxean ikasten genuen euskara. Seas-

kak kudeatzen dituen ikastolek aspalditik bermaturik dute beren murgiltze ereduak eragin sakonak ematen dituela euskararen erabilpen eta mantentzeari buruz.

Baionako suprefeta berriaren bisita izan dute herriko kontseiluan

TTIPI-TTAPA

Baionako suprefeta berria, Philippe Le Moing-Suzur, Senpereko auzapeza den Dominique Idiart ezagutzera etorri zen otsailaren 15ean.

Herria ezagutzeaz gain, herriaren inguruko hainbat afera izan zituzten hizpide. Hasteko, lakuaren urtegiko obren aitzinamenduaz aritu ziren, izan ere, aitzineko suprefetak eragin handia izan zuen obren finantzamenduan. Ondotik,

aldaketak eta gizarte bizitegien eraikuntza bezalako betebeharrak kontuan izanzen dituen tokiko hirigintza planoaz aritu ziren. Azkenik, ekonomikoki arazo handiak dituzten herriko enpresen eta saltegien egoera latzaz jardun zuten.

Otsailaren 15eko bilkura «herriak bere proiektuak aitzinera eramateko lehen pauso bat baino ez» dela izan adierazi du Dominique Idiart auzapezak.



Philippe Le Moing-Suzur eta Dominique Idiart herriko etxearen aitzinean.



Malerrekako hemeretzigarren piloatr txapelketako finalistak, antolatzaile eta sari-emalleekin. ERREKA KE

Malerrekako 19. pilota txapelketako finalak jokatu dituzte

Elite mailan Obereneko Oskoz eta Buruzgaingo Gaskuek irabazi zieten Oberenako Matari eta Irurtzungo Azanzari

TTIPI-TTAPA

Doneztebeko Erreka elkarteak hemeretzigarren aldiz antolatutako Malerrekako eskuz binakako pilota txapelketaren finalak otsailaren 20an jokatu zituzten Lesakan eta Donezteben.

Lesakan, kategoria ttikiene-tako hiru finalak jokatu zituz-

ten. **Benjaminetan**, Arkupe elkarteko Telletxea igantziarrak eta Jon Madariaga lesakarrak 18-5 irabazi zieten Oberenako Mauleon eta Remirezi; **alebinetan**, Buruzgaingo Barbarin eta Iribarrenek 18-10 irabazi zieten Oberenako Rekalde eta Lasori; infantiletan, **Txarutako** Prim eta Goienetxek 18-9

irabazi zieten Irurtzungo Igoa eta Oberenako Nazabali.

Doneztebeko Ezkurra pilotalekuan, berriz, kategoria nagusienetako lau finalak jokatu zituzten. **Kadeteetan**, Errekako Beñat Apezetxea goizuetarrak eta Aitor Agesta zubietarrak 22-14 irabazi zieten Oberenako Sanchez eta Garciari; **jubeniletan**, Iriartek (Larraun) eta Peñalverrek (P.P. San Sebastian) 22-16 irabazi zieten Oberenako Ibarra eta Murillori; **seniorretan** Oberenako Igoak eta Santamariak 22-14 irabazi zieten Landa eta Agirrerri eta **elite** mailan, Oberenako Oskozek eta Buruzgaingo Gaskuek 22-14 irabazi zieten Oberenako Mata eta Irurtzungo Azanzari.

Berako Mendi Maratoi Erdia bertan behera bigarren urtez

TTIPI-TTAPA

Iaz bezala, aurten ere, Berako Mendi Maratoi Erdia ezin izanen dutela antolatu iragarri dute Manttale Mendi Lasterketa eta Agerra Mendi taldeek sare sozialetan: «Pandemiak ez du etenik ematen» eta egoe- ra sanitarioaren bilakaera «ez da guztioi gustatuko litzazukeen bezainbertze hobetu». Antolatzaileek adierazi dute- nez «ez dakigu apirilean egoe- ra nolakoa izanen den, baina argi dugu beti antolatu dugun moduan ezin izanen litzatekeela ospatu». Izan ere, egun honetan «550 korrikalari, 200 boluntario eta ikusle aunitz» biltzen da.

Urte hauetan guztietan «lasterketa posible egin duten boluntarioei, korrikalariei, enpresei, saltokiei eta erakunde- dei eman diguten laguntza eta animoengatik» eskerrak eman nahi izan dizkiete. Azkenik, 2022an elkar ikusteko hitzordua iragarri dute: 2022ko apirilaren 10a.



UTZITAKO ARGAZKIA

Nafarroako pilota txapelketan finalista

Nafarroako pilota txapelketaren finaletan, lehen mailan, Irantzu Etxebeste beratarrak eta Naroa Elizalde zubietarrak 22-15 galdu zuten Aldaregia eta Ruiz de Larramendiren kontra. Bigarren mailan, Ainhoa Zabaleta eta Maria Eskudero goizuetarrek 22-9 galdu zuten Alonso eta Bergara altsasuarren kontra.



AITOR AROTZENA

Beti Gazte futbol taldea indartsu bueltan

Ia urtebeteko geldialdiaren ondotik, futbol kompetizioa bueltatu zen otsailaren 28an Lesakako Mastegi zelaira. Ez nolanahi gainera, Beti Gazteko talde nagusiak 7-1 irabazi baitzion Oiartzuni. Segurtasun neurriak betez, 220 ikusle sartu ziren futbol zelaira eta gozatu ederra hartu zuten.



Nafarroako txapelketa mistoa irabazi zuen zortzikotea tiran otsailaren 27an Lesakako udal pilotalekuan. AITOR AROTZENA

Beti Gaztek irabazi ditu txapel guztiak Nafarroan sokatiran

Martxoan Getxon (Bizkaia) jokatzeko hasi den Euskal Herriko txapelketako kategoria guztietan lehiatuko dira lesakarrak

AITOR AROTZENA | LESAKA

Nafarroan jokatu diren hiru txapelak herrian irabazi ondoren ekin dio Euskal Herriko txapelketari Beti Gazte sokatira taldeak.

Otsailaren 20an jokatu ziren emakumezkoen eta gizonezkoen txapelak, seinaka. Emakumezkoetan (375 kilo), nagusitasunez gailendu zen herriko taldea eta tiraldi guztiak bereganatu zituen. Gibelatik sailkatu ziren Txantrea, Berriozar eta Antsoain. Seikote irabazlean, Aitziber eta Irantzu Goienetxe ahizpak, Maialen Lopez, Ane Gurrutxaga, Arritxu Muxika eta Ainhoa Ubiria aritu ziren tiran, Joxe Angel Mitxelena entrenatzaile eta Maria Iantzi laguntzaile zutelak.

Gizonezkoetan (450 kilo) Beti Gazte lana gogotik egin behar izan zuen, batez ere Txantrea B talde indartsua menperatzeko. Bi talde hauek gainerako guztiei nahiko erraz irabazi zieten ligaxkan eta beraien artekoan, bana irabazi

zuten. Ligaxka bukatuta bi taldeek hamarna puntu zituztenez, kitarakoa jokatu behar izan zuten eta hemen ere, lehen tiraldia etxekoek bereganatu bazuten ere, bigarrena Txantreakoentzat izan zen. Beraz, desenpaterako azken tiraldia egin behar izan zuten, bi taldeak leher eginda zeudela, eta azkena Beti Gazte irabazi zuen. Beraz, txapela lesakarrarentzat izan zen, Txantrea B bigarren, Txantrea A hirugarren, Berriozar laugarren eta Antsoain bosgarren. Seikote txapeladuan Beñardo Iantzi, Ander Mitxelena, Iñigo Altzugarai, Beñat Ordoki (Eneko Saldias), Unai Gurrutxaga eta Paskual Taberna aritu ziren, Eneko Saldias entrenatzailea zela. Azken tiraldietan Saldias sartu zen tiran, min hartutako Beñat Ordokiren orde, eta Joxe Angel Mitxelenak egin zuen entrenatzaile lana.

Mistoan ere nagusi

Gizonezkoen eta emakumezkoen gertatu zen bezala, Txan-

treia izan zen lesakarren arerio nagusia txapelketa mistoan ere. Otsailaren 27an zortzikotako txapelketako lehen tiraldiak bi talde hauen artekoak izan ziren eta lan ona eginez, Beti Gazte irabazi zituen. Antsoain eta Berriozarren kontrako tiraldiak errazago bereganatu zituen Beti Gazte, txapela janzteko. Zortzikote txapeladuan, Beñardo Iantzi, Amaia Leiza, Udane Arbelaitz, Irantzu Goienetxe, Beñat Ordoki, Iñigo Altzugarai, Eneko Saldias eta Maria Iantzi aritu ziren tiran, Joxe Angel Mitxelena erakusle eta Ainhoa Ubiria laguntzaile zituztela.

Txantreak ere, Beti Gazteren kontrakoak izan ezik, bertze tiraldi guztiak irabazi zituen, bigarren postua eskuratzeko. Beharbada lehiarik handiena hirugarren postua lortzeko izan zuten Berriozar eta Antsoainek eta azkenean, Antsoain nagusitu zen.

Euskal Herrikoan hasiak

Nafarroako txapel guztiak lortu ondoren, Euskal Herriko txapelketari ekin diote Beti Gazteko tiralariek. Txapelketa osoa martxoan jokatu dute Getxoko Fadura pilotalekuan, Bizkaian. Lehen txapelak martxoaren 6an eta 7an ematekoak ziren, emakumezkoena 540 kilokoan eta gizonezkoena 680 eta 640 kilotan. Ondoko asteburuetan erabakiko dira bertze pisuetakoak. (info+ 775 zk.)

Irantzu Etxebeste eta Iera Agirre hasiak dira Master Cup txapelketan

TTIPI-TTAPA

Martxoaren 6an abiatu da Asteasun (Gipuzkoa) Master Laboral Kutxa 2021 lehiaketa berria. Denera 16 pilotarik, zortzi bikotek, izan dute pilota mistoarekin jokatu den txapelketa honetan parte hartzeko aukera, tartean Irantzu Etxebeste beratarrak eta Iera Agirre leitzarrak.

Final-laurdenetako partidetan, goizez A taldeko Irantzu Etxebeste beratarra eta Olatz Ruiz de Larramendi, Amaia Aldai eta Gentzane Aldairen kontra aritzekoak ziren eta B taldeko Leire Garai eta Oihana Orbegozo, Miren Larrarte eta Ane Urkizuren kontra. Arratsaldean, berriz, A taldeko Iera Agirre leitzarra eta Maite Ruiz de Larramendi, Andrea Aldaregia eta Nora Mendizabalaren kontra eta Bko Olatz Arrizabalaga eta Naroa Agirre, Ainhoa Ruiz de Infante eta Arrate Bergararen kontra aritzekoak ziren.

Kanporaketa hauetan irabazle atera diren bikoteek finalerdiak martxoaren 20an jokatu dituzte, 15:30etik aitzinera, ETB kamerak zuzenean direla, Irungo Urantzu pilotalekuan. Iaz bezala, finala ere Irunen jokatu dute, apirilaren 4an, eguerdian, nola ez, ETBk zuzenean emana.

Webgune berria

Baina egungo esku pilotaririk onenak bildu dituen txapelketa hau ez da Bilboko Euskal Museoan aurkeztu zen denboraldi honetako berrikuntza bakarra. Izan ere, garai berrietara egokitzeko asmoz, Emakume Master Cupeko antolatzailerak erakundearen web orrialde berria (www.emakumemastercup.eus) ere erakutsi zieten bertan bildutako pilotari eta kazetariei.

AGENDA

MARTXOAK 11 - 25

INFORMAZIOA BIDALTZEKO: Tel. 948 63 54 58 edo info@ttipi.eus



ARTXIBOKOA

LESAKA Dantzarien Eguna

Tanturumairu Euskal Folklore Taldeak antolatuta.
Martxoaren 20an.

IKUSKIZUNAK

IRURITA

Bertso saio feminista

Alazne Untxalo, Irati Majuelo eta Saioa Alkaizaren eskutik.
Gizarte Bilgunean, martxoaren 12an, 19:00etan.

GOIZUETA

'40 urte eta aldapan behera'

Ganbaran, martxoaren 27an, 18:30ean.

LEITZA

'Cholitas' filma

Herri Aretoan, martxoaren 11n, 18:30ean. Sarrerak: Astiz eta Maimurren 5 eurotan.

'Elfkinak' filma

Herri Aretoan, martxoaren 19an, 17:00etan. Sarrerak: Astiz eta Maimurren 5 eurotan.

'Zumiriki' dokumentalaren aurkezpena eta proiektzioa

Herri Aretoan, martxoaren 20an, 18:00etan. Sarrerak: Astiz eta Maimurren 5 eurotan.

KONTZERTUAK

LESAKA

Dizdizka abesbatza

Harriondoan, martxoaren 13an, 18:00etan.

Biolontxelo eta organo kontzertua

San Martin elizan, martxoaren 14an, 17:30ean.

En Tol Sarmiento

Harriondoan, martxoaren 27an, 17:00etan eta 19:30ean.

LEITZA

Pleura taldea

Herri Aretoan, martxoaren 13an, 19:00etan. Sarrerak: Astiz eta Maimurren 5 eurotan.

IRURITA

Baztan kantuz

Plazan, martxoaren 21ean, 12:00etan.

'The drunken barrels'

Gizarte Bilgunean, martxoaren 21ean, 19:00etan.

Gonbidapenak 18:30etik aitzinera.

ELIZONDO

Iruñeko orfeoia

Parrokian, martxoaren 27an, 19:00etan (ateak 18:40an irekiko dituzte).

SOLASALDIAK

ARANO

Haziak eta hazitegiak

Abañon, martxoaren 13an, 10:30ean.

ELIZONDO

'Damian Arrutiren asmazioak'

Gorka Arreseren solasaldia.
Arizkunenean, martxoaren 26an, 18:30ean.

'Otro fin del mundo es posible'

Jorge Richman hizlari.
Arizkunenean, martxoaren 27an, 18:30ean.

AZOKAK

ELIZONDO

Artisau azoka

Martxoaren 19an, 10:00etatik 14:00etara.

ERRATZU

Artisau azoka

Martxoaren 21ean, 10:00etatik 14:00etara.

ERAKUSKETA

ELIZONDO

Hemen baditun 14

Arizkunenea kultur etxean, martxoaren 26ra arte, 17:30etik 21:00etara.

EKITALDIAK

LEITZA

Gorputzetik plazererra

Yoga erlaxazio saioa. Tokia parte-hartzaile kopuruaren arabera zehaztuko da.
Martxoaren 13an, 11:00etan.
Izen-ematea sastrakak@gmail.com helbidean.

AZOKAK

ELIZONDO

Artisau azoka

Martxoaren 19an, 10:00etatik 14:00etara.

DANTZAK

ELIZONDO

Herriko dantzak, Nafarroako dantzak

Plazan (euria bada frontoian), martxoaren 14an, 12:30ean hasita.

LESAKA


Dantzarien Eguna

Tanturumairu Euskal Folklore Taldeak antolatuta.
Martxoaren 20an.

Nire aukera

«Ttikiek baserri eskolatik eramaten duten irribarrea ikustea ederra da»

INTZA GARTXITORENA URDANPILLETA BERROETAKO GAZTEA



Natura da Intza Gartxitorena Urdanpilletaren zaletasun nagusia (Berroeta, 1995) eta hori du ogibide azken bortz urteotan. Ilundain fundazioak duen baserri eskolan lan egiten du, hegazti, behi, zaldi, untxi, txerri, ardi, ahuntz, erlauntz... artean.

Ingurumen-hezitzailea

Udan, kanpaldietan, hasi zen eta, gerora, ikasturtera zabaldu zitzaion eskaintza: «udalekuetarako hasi nintzen eta gero ikasturteetan eskoletako ateraldietarako...».

Haur eta gaztetxoen ingurumen-hezitzailea da Gartxitorena eta bere lana «animaliak zer diren eta zer ematen diguten» erakustea izan ohi da: «errate baterako, dendentan erosten diren esne kaxen gibelean dagoen lana ikusarazten diegu, dena ez dela erraza ikusteko eta nekazaritza zein abeltzaintza estima dezaten».

Parte-hartzaileek hamaika ekintza izaten dituzte aukeran: «baserria baino gehiago da, baratzea, gari soroak, mintegia, basoa... bisitatzeko aukera ematen du, eurek parte hartzeko ekintzak egiten ditugu (baserriko animalien zaintza, baratzean lan egin, txangoak, ogia, taloa... egin) eta nahi izanez gero bertan lo egiteko aterpetxea ere izaten dugu. Hilabete bakoitzeko programazioa webgunean dugu eskura».

Ingumenaren zaintza eta defentsa helburu

Txoko batean eta bertean jarduera andana izaten dituzte, baina guztiak hiru helbu-

«HAURREK EZ GARELA IKASIAK SORTZEN ERAKUSTEN DUTE»

ru zehatzi lotuak izan ohi dira: «batetik, gizartea landa eremuetara hurbiltzea; bertetik, gizartearen garapen ereduak sortzen dituen arazoez (gehiegizko kontsumoa, aldaketa klimatikoa...) jabetzea; eta azkenik, norbanako eta gizartearen kontsumoa zabaltzea, ingurumena zaindu eta defendatzea».

Haur, gazte eta helduendako jarduerak

Orain artean bereziki ikastetxei zuzendutako programak kudeatu izan ditu baserri eskolak: «Haur Hezkuntzatik hasi eta goi mailetara bitarteko ikasleak izan ditugu». Baina, horrez gain, «adinekoen elkarreendako eta familierendako ere» lan egiten dute.

Ikasturte honetan, erraterako, birusa tarteko, eskoletako irteerak dezente murriztu zaizkienez, familientzako egun-pasak bultzatzeko lanean ari dira: «eskola aunitzetan ateraldirik gabeko ikasturtea da aurtengoa, bakarren bat etorri da, Erdi Mailak batez ere... Hala ere, ez dira aunitz izan. Eta, ondorioz, bertzelako bideak garatzen ari gara».

Familientzat asteburuetan irekitzen dituzte ateak, eta beraz, lana astegunetatik asteburuetara aldatu zaio Gartxitorenari: «aurten ateraldiak gehienbat asteburuetan izaten direlako». Astegunenez, berriz, bertzelako lanak egiten dituzte: «txorientzako habiak egitera joaten gara edo txoriei eraztunak paratzeari, janariari, zuloen arbera hurbiltzen diren txoriei... buruzko ikastaroetara, eten-gabe ikasten aritzen baikara».

«GEROZ ETA GEHIAGO BEHAR DUT HERRIKO LASAITASUNA»

Egunero haurrei erakusten eta haurrengandik ikasten

Hala ere, bai lehen baita orain ere, baserri eskolan egun bakoitzaren berezia izaten da bisitarien zentzua eta horren lekuko dira «haurrek hemendik eramaten duten irribarrea» Gartxitorenaren ustez: «hasieran beldurka ibiltzen dira, baina gero eta gehiago hurbiltzen dira, animaliekin gozatzera».

Ez da gutxiagorako tikienekin berroetar gazteari egiten dioten ekarpena: «haurrek egunero-egunero erakusten digute ez garelako dena ikasita sortzen, eta gu gerone ere egunero ikasten ari garelako».

Naturaz gozatu, ernatu

Ez dira garai onenak eskolaz kanpoko jardueretan lan egiten ari direnentzat. Hala ere, badi-rudi naturak eta espazio irekietan azken boladan indar handia hartu dutela eta hor inon baino seguruago egon gaitezkeela. Hori horrela, haurrek behar duten gozamenerako txoko egokia izan daiteke baserri eskola.

Gartxitorenak berak ere hala-este du eta konfinamenduan eta pandemiak eragindako egoera honetan lehendik ere naturarekin zuen harremana sendotzearen alde egin du: «Elizondon bizi naizen arren, Berroetan denbora aunitz pasatu dut».

Etxea ez ezik, lagunak eta «aitaren ahuntzak, oiloak, txakurrak...» bertan ditu Gartxitorenak. Eta, horrez gain, sorteriak «lasaitasuna» ere ematen dio: «geroz eta gehiago behar dudana eta Elizondok geroz eta gutxiago duena».

Mendiz mendi eta txokoz txoko natura arnasten eta natura ernatzen segitzeko, eskuekin makilak dituela ere ikusiko dugu han eta hemen Gartxitorena: «mendiak eta animaliak ez ezik txalaparta ere nire zaletasunen zerrandan dago eta».

MERKATU TTIKIA

ETXEBIZITZAK

SALGAI

LESAKA. Azkaine karrikako 3. zenbakian, 45 m² dituen apartamentua salgai. Mobleztatua eta hagitz egoeira onean. ☎628 04 20 47 / 647 44 25 09.



LESAKA. Bi bizitzako etxebizitza salgai, 7.000 metro koadroko eremuarekin. ☎948 38 70 93 / 651 62 10 15.

IRURITA. Baserria eta pisua salgai. Prezio negoziagarria. Partikularra. ☎693 69 49 76 (Jose M^a).

GAZTELU. Estreinatua gabeko apartamentua, kotxea aparkatzeko marrarekin (78.000 euro) eta 18.000 m²ko terrenoa duen borda salgai, ura eta argiarekin. ☎640 07 65 75 (Jose).

IGANTZI. Pisua salgai. 3 logela, bi komun eta terrazarekin. Garajea, trastelekua eta igogailua dauzka. ☎687 73 00 87.

ERRENTAN EMATEKO

DONEZTEBE. Erreka ondoan etxe bateko pisuak errentan emateko. Goikoak 85 m² ditu: 3 logela, egongela, sukaldea, komuna eta terraza. Baratz zati bat erabiltzeko aukera. 550 euro. Behekoak 75 m² ditu, sukaldea eta hiru logela. Baratzea erabiltzeko aukera. 450 euro. ☎687 63 27 37.

IRUÑEA. Buztintxuri auzoan 2 logelako pisu ederra eta argitsua errentan emateko (altzariekin). Garajea eta trastelekua barne, eraikin berean. Sarrera-irteera paregabeak. Saihesbidetik hagitz hurbil, baita etengabeko autobus zerbitzuarekin ere. Apirilaren 1etik aitzinera libre. ☎620 70 09 64.

KONPARTITZEKO

DONOSTIA. Amara auzoan konpartitzeko den pisu batean ikasle batendako tokia libre dute. ☎618 96 33 90.

GARAJEAK/LOKALAK

ERRENTAN EMATEKO

LESAKA. Albistur karrikan lurpeko garajea errentan emateko. ☎618 96 29 37.

IRAGARKIA JARTZEKO:

☎ 948 63 54 58

🌐 www.erran.eus

☎ 744 48 43 61

@ info@ttipi.eus

Sail honetan **IRAGARKIA** jartzeko **10 €** ordaindu behar da **ARGAZKIAREKIN** jarri nahi izanez gero **12 €** iragarki bakoitzeko **GEHIENEZ 25 HITZ** onartuko dira
TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta ERRAN.EUS webgunean hilabete batez agertuko da
Ordainketak Rural Kutxako **ES86 3008 0080 5607 0330 4329** kontuan **Bizum** bidez (744 48 43 61)

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartuko argitaratu diren iragarkien ondorioz sortu ahal diren operazio bidegabeen erantzukizunik



ALKAIAGA industrialdean lokala errentan emateko. ☎678 26 84 44.



ALKAIAGA industrialdean tailer mekanikoa errentan emateko, jubi-lazioagatik. ☎678 26 84 44.

EROSI

DONEZTEBEn edo **ELIZONDOn** salgai dagoen lokal txiki baten bila. Erosteko aukera edo errentan hartzeko dena. Berdin dio erabat zaharberritu behar bada. ☎644 21 98 44.

LURRAK/ORUBEAK

DENETARIK

ETXALAR. Baratza egiteko belai txiki bat nahi dute, pozoirik ibili gabekoa. ☎636 18 15 46.

LESAKAn edo **INGURUAN** ardiak sartzeko belai errentan hartu nahi dute. ☎687 07 96 44.

LANA

ESKARIAK

Eraikuntzan eta nekazaritzan esperientzia duen **gaztea lan bila**. Gidabaimen guztiekin. ☎663 59 17 76.

BAZTAN. Kotxea duen emakumea etxeko lanetan edo adinekoak zaintzen lan egiteko prest. ☎666 37 53 72.

30 urteko neska **gazte arduratsua**, sortzez nikaraguarra, lan bila. Adinekoak zaintzen ariko litzateke. Esperientzia duena eta segituan lanean hasteko prest. Lau urte hemen bizi dela. Irunen bizi da baina edozein tokitara mugitzeko prest. ☎674 44 82 79.

ESKAITZAK

BERA. Sukaldaritzan esperientzia duen pertsona bat behar dute Larungo benta batean. Ez da jatetxea. Frantsesez pixka bat jakitea garrantzitsua da. Martxo hondarretik irail hondarrera arte, sei hilabete. ☎607 56 60 22.

ETXALAR. Emakume euskaldun batek orduka adinekoak zaintzen lan egiten luke. ☎677 13 87 18.

ANIMALIAK

SALEROSKETAK



LEITZA. Txerrikume pintoak salgai. Bizirik edo labean erretzeko prestatuak. ☎690 98 61 18

MOTORRAK

SALGAI

Suzuki Vitara HDI salgai. 3 atekoa. Egoera onean. ☎616 19 80 16.



Volkswagen Transporter salgai. 2011koa. 213.110 km. 3 plaza. Kendu daitekeen kajonerarekin. Prezioa: 11.000 euro. ☎646 07 79 14.

DENETARIK

SALEROSKETAK

ARANTZA. Baserri batean su egurra salgai, sutarako prestatua, erdia ekonomikarako eta bertze erdia lur-reko surako. Egur ona eta merke. ☎948 63 40 87 / 627 14 67 59 (20:00etatik 22:00etara deitu).

BASERRIA

BEHI-AZIENDAK

Aretze gizenak:

Idixkoak: €/kg kanal

- Extra 4,01
- 1.koa 3,89
- 2.koa 3,74

Urruxak: €/kg kanal

- Extra 4,12
- 1.koa 3,98
- 2.koa 3,84

Oharra: prezioak 180-220 kg kanalean pisatzen duten aretzeenak dira

Aretze tikiak

- (15 egun ingurukoak).

Aretze mestizoak

- Urruxak 130,00
- Idixkoak 150,00

Aretze nabarrak

- Urruxak: 120,00
- Idixkoak 140,00

ZALDI-AZIENDAK

Zaldikoak: €/kg

- Sortu berriak: 4,00/4,10
- Zaldi-behorrak 1,87/2,04

ARDI-AZIENDAK

Bildotsak

- 6-8 kilokoak: 5,70/6,00
- 8-10 kilokoak: 5,10/5,60


ZERRI-AZIENDAK

Zerrikumea (19 kilo): 57 €

Zerri gizona 1,241€

Zerramak 0,600€ kg/bizirik

Datu iturria: Nafarroako Gobernua otsailaren 19tik 26ra bitarteko prezioak)



Gazta egiteko **zimitzak** salgai. 3 neurritakoak. Arras egoera onean. ☎948 58 10 39.



Bizikleta elektriko zuria, Littium, Berlin modeloa, salgai. 2019an erositia. Oso egoera onean! Aproposa herri edo hirirako. Bere bi zakutxoekin. Deitu edo idatzi Whatsappez. ☎666 26 41 16.

Ohatze artikulatu elektrikoa salgai. Sei hilabetez bakarrik erabilia. 1,05 metroko neurria eta bere latezko bere koltxoiarekin. ☎679 51 96 52.



Etxeko su egurra salgai. Garraio zerbitzuekin, etxeraino eramanen dizugu egurra. Deitu konpromisorik gabe. ☎629 451 426 (Joxean).

TTIPI-TTAPA
SARE SOZIALETAN

facebook
www.facebook.com/ttapi.ttapa

Jarrai gaitzazu!

744 484 361

ttipi-ttapa

SANTESTEBAN TAILERRAK

RENAULT MEGANE IV dci 110 CV
Nabigatzailea, klimatizadorea, aparkatzeko radar, 40.000 km - 12.950 euro
www.talleressantesteban.com
DONEZTEBE - T. 948 450 282 - info@talleressantesteban.com

GALDU-AURKITUAK

LESAKA. Lesakako igerilekuaren eta Igantzi aldera dagoen Kattu osatuaren arteko bidean Jeep markako auto baten giltzak galdu dira. Aurkituz gero, deitu. ☎666 41 90 45.

Bulabiki inguruan mendiko goretex **eskularruak galdu** dituzte. ☎686 54 46 45.

DONEZTEBE. Duela bizpahiru aste elizako estratan (Elizagibela aldera) antiojo graduatuak galdu ditut. Tous markakoak, beso edo patilla metalikoa dute. ☎629 35 55 96.

DENETARIK

Eskualdeko borda edo elkarte batean, pertsona batek bazkide sartu nahi luke. ☎620 20 87 60.

BEINTZA-LABAIENGO UDALA



UDAL PLANA HASIERA BATEZ ONETSIRIK

Beintza-Labaiengo Udalak, 2018ko abenduaren 17ko osoko bilkuran, Beintza-Labaiengo Udalaren Plana Orokorren hasierako onespina adostu zuen eta 2020-12-21eko bilkuran berretsi.

Udal Plana jendaurrean egonen da apirilaren 16a arte, eta Udaleko bulegoetan aztertu ahalko da edo www.labaien.org orrialdean, bai eta bidezko juzgatzen diren nahi beste alegazio aurkeztu ere, jendea hartzeko orduetan.

Beintza-Labaienen, 2021eko otsailaren 19an.
Alkatea, Jon Telletxea Juanenea

Sampi Aragón

VOLKSWAGEN CADDY MAXI TRENDLINE 2.0
Finantza. prezioak - 120 CV BMT. KM 0. - 18.000€

FORD KUGA ST-LINE 1.5 ECOBOOST - 150 CV
Finantzatutako prezioak - KM 0. - 27.900€

VOLKSWAGEN TOURAN BUSINESS 1.6 TDI
Finan. prezioak - 115CV. - 115.000 KMS. - 14.500€

DONEZTEBE | 948 450 354

Mendaur Motor
Leitzako bidea • DONEZTEBE
T. 948 450 333

Kotxe salmenta | Marka guztiak

Kotxe berriak **SUZUKI**

SUZUKI SX4, 120 CV.

SUZUKI GRAND VITARA

www.mendaurmotor.es

IRAGARKIAK INTERNETEN

Sail honetako iragarkiak gure webgunean ere argitaratzen ditugu hilabete batez. Ikusi iragarki guztiak Interneten:
<https://erran.eus/sailkatuak>

Sarrera eta egongelarako
ALTZARIAK SALGAI

Pinu mexikarraren egurrarekin egindakoak

m. 676 38 94 81



URTEURRENA

**Zuhaitz
BALEZTENA AGIRRE**

Donezteben, 2019ko martxoaren 11n
II. urteurrena

Orain soilik geratzen zait gutaz idaztea
Muxu, laztan eta irriak ez da erreza ahaztea
Gogorra, latza ta zaila da joan zarela onartzea.



ZURE AMA ETA ATTE

URTEURRENA

**Zuhaitz
BALEZTENA AGIRRE**

Donezteben, 2019ko martxoaren 11n
II. urteurrena

Seme, biloba, iloba eta lehengusu kuttuna, zure ttikitasunean haundi eman diguzuna, isilean izan arren gure beharrezko bidelaguna, zutaz harro gure txapelduna!




ERATSUNGO ETA SUNBILLAKO FAMILIAK

OROIGARRIA

**Asier
ARANGUREN ERRAZKIN**

Lesaka-Berrobi, 2021eko otsailaren 27an

Gazterik hautsi den bizi batek ze zentzu izan ote du
Izan zarena familiaren euskarri eta eredu
Tamalez joan zara ta triste nahigabetuta gaude gu
Baina zuk hasi zenun borroka guk irabaziko dugu.



AMA, ANAI-ARREBAK,
KOINATU-KOINATAK ETA ILOBAK

OROIGARRIA

**Maria
ELIZALDE ALSUA**

Goizuetan, 2021ko otsailaren 20an,
95 urte zituela

Hartu, eman, zaindu, ondu, zu izan gure eredu.

Eskerrik asko amona.



David eta Silvia, Iñaki eta Maribi, Ainhoa eta Kote, Saioa, Ane eta Jabi, Maddi eta Juan, Irati, Josu, Nahia, Paula, Nerea, Naroa, Aiala, Gexan, Beñat, Jare eta Ekhi.

URTEURRENA

**Ignacio
IRAZOKI ETXEPETELEKU**

Beran, 2020ko martxoaren 19an
I. urteurrena

Bere aldeko meza martxoaren 19an, Berako Altxateko elizan izanen da, 11:00etan.

Covid-19a dela eta, eliza barreneko edukiera mugatua izanen da.



ZURE FAMILIA

URTEURRENA

**Javier
IGOA OTXOTEKO**

Lesakan, 2016ko apirilaren 2an
V. urteurrena

Beti irribarra zenuen lagunmin gauza denen gainetik aitzinerat ekin bizitzari helduaz gogo guziekin indar hau utzi duzu betiko gurekin maite izan zaitugun familiarekin.



ETXEKOAK



BAZTAN BIDASOA
Ehorzketaz Zerbitzuak

BAZTAN: **ELIZONDO**n Santiago kalea, 79
BORTZIRIAK: **BERA**n San Jose Beilatokian
MALERREKA: **DONEZTEBEN** Aparan ind. 1-3
web: funerariabaztanbidasoa.com

Baita **BERTIZARANA, BORTZIRIAK, URDAZUBI** ETA **ZUGARRAMURDIKO ETXEETAKO ZERBITZUAK** ere

24 ORDU | **948 48 95 50**
365 EGUN | info@funerariabaztanbidasoa.com

Betiko taldea zu laguntzeko

IRACHE
tanatorioak

Nafarroako familien zerbitzura 1976tik

BERA | DONEZTEBE | ELIZONDO | LESAKA | LEITZA

ETXEETAKO ZERBITZUA
Trasladoak Iruñea, Donostia eta Irungo ospitaleetatik edozein herritara

 **948 63 74 04 / 948 19 70 70**
www.tanatoriosirache.es

URTEBETETZEAK



Elizondoko **Urko Muruaga Elizegik** 6 urte bete ditu otsailaren 25ean. Aunitz urtez **Urko!!** 6 muxu potolo familia guziaren partetik.



Berako **Aroa Larretxea De Mateok** 12 urte beteko ditu martxoaren 13an. Aunitz urtez etxeko gazteboari, ongi pasa eguna eta ea nola ospatzen dugun!



Zorionak **Fermin** zure urtebetetze egunean! Besarkada handi bat Zerunetako familiaren partetik. Muxuak.



Arantzako **Alazne Baleztena Goñik** 9 urte beteko ditu martxoaren 14an. Zorionak eta aunitz urtez familia guziaren partetik eta batez ere zure bi anaien partetik.



Unax Maia Larralde lesakarrak 3 urte beteko ditu martxoaren 31n. Muxu aunitz familia guziaren partetik eta batez ere Oinatz, Endara eta Jareren partetik.

SORTZEAK


- **Elsa Nuñez Elizalde**, Sunbillakoa, otsailaren 9an.

HILBERRIAK

- **Teodoro Iribarren Soria**, Etxalarkoa, otsailaren 18an, 89 urte zituela.
- **Maria Elizalde Alsua**, Goizuetakoa, otsailaren 20an, 95 urte zituela.
- **Miguel Larramendi Cordoba**, Arraiozkoa, otsailaren 21ean, 97 urte zituela.
- **Juana Josefa Iureta Sarratea**, Berroetakoa, otsailaren 23an, 92 urte zituela.
- **Xilberio Apezetxea Zubieta**, Goizuetakoa, otsailaren 25ean, 81 urte zituela.
- **Juan Etxeberria Etxebert**, Elizondokoa, otsailaren 27an, 74 urte zituela.
- **Asier Aranguren Errazkin**, Lesakakoa, otsailaren 27an, 45 urte zituela.
- **Miguel Franzesena Arrizubieta**, Gartaingoa, otsailaren 28an.
- **Gurutze Rekondo Andueza**, Lesakakoa, martxoaren 1ean, 75 urte zituela.
- **Mª Jesus Irigoien Iparrea**, Erratzukoa, martxoaren 2an, 90 urte zituela.
- **Jose Mª Almandoz Aiertza**, Elbetekoa, martxoaren 2an.
- **Mª Luisa Etxeberria Madariaga**, Igantzikoa, martxoaren 2an, 68 urte zituela.



Sunbillako **Endara Larzabal Arriolak** martxoaren 22an 7 urte beteko ditu. Zure urtebetetzea zoragarria izan dadila mattia!



Egoi eta **Eñaut Bidartek** 12 eta 9 urte beteko dituzte. Zorionak artistak!!! Segi orain arte bezalaxe. Muxu handi bana familia guziaren partetik.



Aunitz urtez laukote! **Aitor, Joxema, Joxhe** eta **Ainarak** urteak beteko dituzte martxoaren 16an, 18an eta 28an. Ongi-ongi pasa zuen eguna!



Berrobiko **Xuban Aranguren**ek 6 urte bete ditu martxoaren 3an. Aunitz urtez Lesakako amatxi, osaba-izeba eta lehengusu-lehengusinen partetik. Prestatu berendu goxoa gu joaterako. Muxu aunitz!



Zorionak gure txapel-dunari! Martxoaren 16an 12 urte beteko ditu Leitzaiko **Egoi Bidart Zabaletak!** Egun mundiala pasa! Muxu erraldoia osaba eta izebaren partetik.

ESKELAK JARTZEKO edo **OROIGARRIAK EGITEKO:**
948 63 54 58, 744 48 43 61 edo info@ttipi.eus

BEILATOKIAK
ELIZONDON, BERAN ETA DONEZTEBEN
Zerbitzuak Baztanen, Bortzirietan,
Bertizaranan eta Malerrekan
Hurbiltasuna eta begirunea
IZARRA
HEMEN, ZURE ONDOAN
AGUI, A TU LADO
T. 948 05 90 90 www.izarratanatorio.com

PLAZAN BAZAN




MARGOTU



ENGAINAGARRIA




Bost zati hauetatik bakarra dago margotu behar duzun irudi horretatik hartuta. Zein da? Margotu ezazu zati hori ere.




ZU BAI HAMALAU!

Aurki itzazu bi irudien artean dauden aldeak. Hamalau dira guztira.



HANDITIK TXIKIRA

Ordena itzazu freskagarri hauek neurriaren arabera. Handienari 1 zenbakia eman eta txikienari 6.



INTERNETEN ERE BAI !
<http://plazanbazan.eus/>

Kontsultatu soluzioak
www.PlazanBazan.eus/kioskoa/soluzioak



Ttipi Txartela

rekin beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...
TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA
MUSUTRUK

-%80ko DESGRABAZIOA
ERRENTA AITORPENEAN
Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:

TTIPI-TTAPA

Koskontako bidea, 7 LESAKA

T. 948 63 54 58 | M. 744 48 43 61

info@ttipi.eus | erran.eus

www.ttipitxartela.info

776

aleko irabazleak >



- Donostiako aquariuma - 2 sarrera
Gurutze Irizar Loperena | BERA
- Buatxabal - Kamiseta bat
Jose Miguel Elizalde Goñi | ELIZONDO
- Okille - Eguzkilore bat
Mari Carmen Ganboa Zabalo | DONEZTEBE
- Karting - Sarrera bat
Julen Anso Zelaieta | LEGASA
- BKZ abenturak - 2 sarrera
Cecilia Balda Telletxea | EZKURRA
- Zugarramurdi lezeak - 2 sarrera
Joseba Azpiroz Elduairen | LEITZA
- Elkar - Liburu bat
Beatriz Jorajuria Zubiri | AMAIUR
- Elkar - Liburu bat
M^a Jesus Sota Ruiz | LESAKA

ZOZKETAK

DONOSTIAKO AQUARIUMA

www.aquariumss.com



2 sarrera

ONDDO TA PUNTO

www.onddotapunto.com



Kamiseta bat

MARTIKO

www.martiko.com



Lote bat

KARTING INDOOR IRUN

www.kartingindoorirun.com



Zirkuitu tekniko eta dibertigarria adin guztietarako, kalitate goreneko instalazioetan

Sarrera bat

IRRISARRI LAND

www.irrisariland.com



2 sarrera

ARKUPE

www.arkupegozotegia.com



Lote bat

LIBURUAK



- Emozioak Nonahi!
- Kale Nagusia, Martxel Postaria

ibaizabal

www.ibaizabal.com

LA GUNTZAI LEAK



www.ttarttalo.eus



www.rhune.com